

Eskoriatza kirol elkarteak
50 urte bete ditu aurten | 27



Oñatiko Abesbatza eta Bergarako
Orfeoia, estreinaldirako gertu | 32



FERIXA ELGETAN ETA SANPEDROAK ESKORIATZAN
Jaietako ekitaldi nagusien gaineko gehigarria | 17 eta 21



Mugimendua sortu dute heteroarauaren,
homofobiaren eta sexismoaren aurka | 5



EIBARREKIN, LEHEN MAILARA

Andoni Azkargorta antzuolarra Gaizka Garitano
entrenatzailearen lantaldeko analista taktikoa izango da | 30

Andoni Azkargorta, Ipurua futbol
zelaiko harmailetan, martitzenean.

JAGOBA DOMINGO

"EOS hobe eta
ezagunagoa
izatea lortu
dugula
esango
nuke"



Iñigo Alberdi | EOSeko
zuzendaria | 6

Debagoienerako ere 'fracking' eskaera

Hidrokarburoen ikerketarako baimen eskaerak daude;
hala ere, denek ez dute zertan 'fracking'-a aukeratu | 2



Urkullu, Gorritxo eta Larrañaga.

Nekazaritza
ekologikoan
aitzindari izan
direlako, saria | 25

SINADURAK



Bagonetan aldapa | 7
IÑAKI CASAS




Gaueko sua, eta goizeko ihintza | 40
AGURTE BARRUSO

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 7 | HERRIAK 8 | KIROLA 30 | KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

'Fracking'-a: Debagoienera ere ailegatu da eztabaida

- Bailararako 2011n eskatu zuten ikertzeko baimena
- Gipuzkoan ere sortu da 'fracking'-aren aurkako taldea
- Diote zundaketa-baimenak laster egon daitezkeela



JULEN IRIONDO | ARRASATE

"Baimen horiek etorriko dira, ia seguru, urtarrilean; urtarriletik aurrera, ez dakigu noiz, baina badatoz". Iragarpen horixe egiten du, Bergaratik abiatuta, Gipuzkoan sortu berria den Fracking Ez taldeko kide Maritxu Goikoe-txeak. Energiaren Euskal Erakundearen –Eusko Jaurlaritzaren energia gaietarako agentzia– Hidrocarburos de Euskadi (SHESA) enpresak eta Petrichor Euskadik duela hiru urte eskatu zuten Sustraia eremuan ikerketa egiteko baimena –baimenak hidrokarburoen ikerketarako dira; denek ez dute zertan *fracking* aukera aztertu.

Sustraita deituriko eremuak Debagoieneko azaleraren zati handiena hartzen du –Mirua ize-nekoak ere bai Aramaioko eta Leintz Gatzagako lurrak–, eta Eusko Jaurlaritzak baimena emateak –berari dagokio– lekarkiekie aipatutako enpresei zundaketak egiten hasteko aukera, haustura hidrauliko teknika (*fracking*-a) bitartez lur azpitik gasa ateratzearen bideragarritasuna –askotariko ikuspunuetatik begiraturat– aztertzeke.

'Fracking'-a zer den

Presio handiko fluido baten bidez harri-geruzak hausteko prozesua da *fracking*-a. Euskal Herrian 2011n hasi zen, oro har, teknika horren berri entzuten, orduko lehendakari Patxi Lopezek Texasen –Ameriketako Estatu Batuetara egiten ari zen bidaia batean– iragarri zuenean Euskadi 60 urtez hornitzeko adinako gas erreserba dagoe-la Araban, lur azpian, sakonera batera –aurreko Jaurilaritzek ere landu omen zuten gaia–. Gas ez konbentzional deituriko bati buruz

ari zen lehendakaria, eta *fracking*-a da hura lur azpitik ateratzeko erabiltzen den teknika.

Harkaitzean –arbelean, adibidez– txertatuta egoten da gasa –ez, ohi bezala, lur azpiko poltsetan–, eta *fracking* teknikarekin lurra zulatu egiten da, gasa duen geruzara iristeko. Bertatik barkeratzen da fluido bat urez, hareaz eta gai kimikoak osatua, presio handian, harkaitza zartatu eta gasa aska dadin.

Aldekoak baditu

Ingurumenaren, osasunaren eta segurtasunaren alorretan eragin ditzakeen kalteak direla-eta, badi-ra *fracking*-arekiko errezeloak agertu dituzten eta haren erabileraren kontra eragitea helburu hartu duten taldeak; kontrara, bada ikertu behintzat egin behar litzatekeela uste duenik, eta, areago, teknika aplikatzeari ondo leritzokeenik ere.

Euskadiko, Nafarroako, Errioxako eta Soriako Meatzeetako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialeko Gobernu Juntako kide Iker Gartziazen iritzia da, adibidez, "ikertzean helburuz zundaketak egitea denon onerako"

litzatekeela, "hor behean zer dagoen" jakiteko.

Emaitzak esku artean, kontua onurak eta eragozpenak balantzari jartzea litzatekeela dio; gauzak ondo eginez gero arazorik ez legokeela iradokitzen du, AEBetako esperientziari buruz honela mintzatuta: "AEBetan, ondo ikeritu diren eta gauzak ondo egin diren ustategien kasuan ez dira arazoak ematen ari; gauzak aztertu egin behar dira eta kontrolatu egin behar dira, ondo egin daitezten; gauzak ondo eginez gero

ez dago beldurrik zertan izan".

Eta dio ondorengo gai kimi-koak nahasten direla urarekin eta harearekin, hausturarako: azido klorhidrikoa, azido zitrikoa, glutaaldehidoa, amonio bisulfitoa eta etilen glikola, besteak beste; gaineratuz gaiok ez direla, oro har, kaltegarri ingurumenarentzat, "nahiz eta badaitekeen gaie-takoren bat toxikoa izatea"; bai-na joera omen da gero eta gehia-go "produktu ekologikoak eta biologikoak" erabiltzea, "batere eraginik ez dutenak".

DATUA

30.000

SINADURA

Eusko Legebiltzarrean Herri Ekimen Legegilea aurkezteko behar den kopurua da. Ekainaren 30ean hasita, astebetez, sinadura bilketa ibiltaria egingo dute.

Alderdietan, askotariko iritzia

Energiari buruzko lantaldean agerraldia egin dute astean Fracking Ez taldeko kideek. Ondoren, lantaldeko PSEko kide Natalia Rojok, adibidez, adierazi zuen balizko energia iturri berri baten aurrean, "arduraz jokatzeara" litzatekeela iturri hori baden edo ez aztertzea, eta "edozein arriskuren aurrean" erabakiak ezetzkoa behar lukeela gaineratu. EH Bilduko Dani Maeztuk, berriz, zioen *fracking*-a "ihesbide faltsu" bat dela egungo arazo energetikoaren aurrean. Lantaldetik kanpo, Iñigo Urkullu lehendakariak berriki esan du Jaurilaritzak ez duela emakidarik egingo, ingurumen arauak "erabat" betetzen ez badira. PPK, berriz, Legebiltzarrean *fracking*-aren debekuarren aurka bozkatu zuen, baina gerora *fracking*-aren kontra agertu dira Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

Elizalde igerilekuen irekitzea

UZTAILAK 3 12:00etan

BPXport
kirol zerbitzuak
www.bpxport.es

Elorriko udala

PREZIOAK

1. Ordokorrak

Familia*	100€
Familia ugaria*	90€
Titular jubilatuen familia*	90€
Guraso bakarrenso familia*	90€
Banotakoa	65€
Banotakoa 65 urterik gora	60€

2. Udai kiroldegiko abonu integratua


Familia*	80€
Familia ugaria*	70€
Titular jubilatuen familia*	70€
Guraso bakarrenso familia*	70€
Banotakoa	50€
Banotakoa 65 urterik gora	45€
*Seme-alaba 18 urte bitartekoa	

Leihatila

18 urterik gora	6€
3-18 urte eta 65 urterik gora	4€
3 urte bitartekoa	2€
6 hilabete bitartekoa	0,50€

Inskripzioak

Kiroldegian
946 821 027
elorri@bpxport.es



Fracking Ez ekimenaren Gipuzkoako taldeko Maritxu Goikoetxea, Bergarako Agorrosingo erakusketa. | JULEN IRIONDO

Are baikorrago mintzo da SHESAko –Debagoienerako zein beste hainbat eremutarako ikerketarako baimena eskatu duen enpresa– geologo Juan Gartzia Portero berriki egindako hainbat adierazpenetan –toki desberdinetan eginak–: "Iritsi da eta geratu egingo da", adierazi du *fracking*-az. Milaka lanpostu leharkeela eta hausturarako erabiltzen den fluidoak akuiferoak ez litzukeela kutsatuko dio, hodiekan joan ohi delako gasa duen harkaitzeraino, eta harkaitzaren eta akuiferoen

artean 1.000 metroko distantzia egon daitekeelako, gainera.

Erabilgarri legokeen gas kopuru handia aipatzen du, eta, "iraultza energetikoa" ahotan, beste herrialde batzuetako gasarekiko –kasu gehienetan mendealdekoak ez direnak– menpekotasuna txikitzea leharkeela gaineratu, kanpokoaren beharrik batere ez izatera iristeraino zenbait kasutan, dienez, AEBetan gertatuko omen den moduan. Horrela, Europar gasaren prezioa asko igo den bitartean, AEBetan asko jaitsi

dela dio, gas ez konbentzionala ateratzea garestiagoa izan arren, kopuruak handiak izatera balantzea oso baikorra delako. Kontinente zaharrean, Britainia Handia eta Polonia izendatzen ditu "iniziatiba hartzen" ari diren herrialdeei buruz diharduela.

Kontrakoak ere bai

"AEBetan hasi ziren, baina sekulako protestak eta mugimendu handiak –nahiz eta hemen haien berri eduki ez– izan dira, eta badirudi orain ahulduta dagoela

teknika hori", dio Fracking Ez ekimeneko Maritxu Goikoetxea, Polonia ere aipatuz, baina justu egindako apustuaren zentzugarberia azpimarratzeko: "Zulatzan ari diren neurrian ikusten ari dira kopuruak ez direla hainbesteak, eta eragindako kalteak ikusita ohartzen ari dira ez dela merezi"; herrialdean ezarri ziren konpainiak alde egiten ari omen dira. Aurrez aipatutako balizko onurak gezurtatu eta *fracking*-aren kontrako mugimenduaren arabera teknikak

dituen eragozpen ugariak azaleratzen ditu, Bergarako Agorrosinen jarri duten erakusketa erakusten duen bitartean.

Fracking-ean "500 elementu toxiko" erabil daitezkeela dio, baina zeintzuk diren jakiterik ez dagoela, "sekreto industrialagatik": batzuk ezagutzen ei dituzte gaixotutako pertsonei, hildako animaliei eta etxeetako urari azterketak eginda; etxe bateko txorrotako urari pospoloa jarrita sua darian argazkia –ura gasarekin nahastearen ondorioz– dago erakusketa. Gai toxikoak urarekin nahasten direla frogatu omen dute hainbat ikerketa zientifikok AEBetan –nahiz konpainiak diruz saiatu kaltetuak isilarazten, diotenez–; airera meta-no ihesak izan direla ere bai. Gas konpainia bat kondemnatu duten lehen epaia ere eman ei da han.

"Putzu bakoitzeko 32 milioi litro ur" behar izatea, sortutako lohiak birziklatu ezina –adibidez uholdeekin haien gai kutsakorrek zabaltzeko omen dagoen arriskuarekin– edo lurren okupazio handia –lehen sektorea ahularaziz, besteak beste– ere aipatzen ditu Goikoetxeak, *fracking*-a geratu beharra arrazoitzeko.

la Gipuzkoa erdirako baimen eskariak

Gipuzkoako azaleraren %40rako daude eginda baimen eskariak. Besteak beste, hori ikusita jarri dute martxan hemen ere Fracking Ez taldea –aurreko astean aurkeztu zuten–. Aurreneko egiteko bezala, Legebiltzarrean Herri Ekimen Legegilea aurkezteko sinadurak biltzen ari dira –gainerako taldeekin–; horrekin nahi dute Erkidegoan *fracking*-a debeka dadin lortzea, Nafarroan, Kantabrian, Errioxan eta Katalunian bezala. Konstituzio epaitegiak, dena den, astean ebatzi du, Espainiako Gobernuak jarritako helegitea onartuz, erkidegoek ez dutela halako debekurik ezartzeko eskumenik. Ebazpena ezagututa, Fracking Ez-ek adierazi du "gaur atzo baino zentzu handiagoa" duela sinadura kanpainak. *Fracking*-a martxan jarri aurretik geratu behar dela diote, bestela, gero, behin hasita, "oso zaila" izango dela.



Fracking Ez Gipuzkoa-ren aurkezpena, Bergaran. | ANE ELORDI

NISSAN QASHQAI BERRIA BEHIN BETIKO HIRI ESPERIENTZIA

19.075 €*-tik

Behin betiko hiri crossover-a ezagutu. Ausarta eta teknologia onenarekin hornitua. Gidariarentzat kontrol osoa emateko egina. Nissan QASHQAI berria da.



**Gaurra-
etorri probatzera**

OTAOLA HIRIBIDEA, 22. TEL.: 943 82 09 74
EIBAR



*Penintsula eta Balear uharteetarako salneurria 14/06/30 arte baliagarria da eta barnean hartzen ditu: PPF, garraioa, Nissan Asistancia, BEZA, matrikulezioa, PIVE 5 plana eta PIVE 5 planarendako ekoizlearen ekarpena. Eskaintza baliagarria Nissan Qashqai berria erosten duten autonomo eta partikularrentzat, 10 urte baino gehiagoko ibilgailu bat ematen dutenentzat eroslearen izenean eta Espainiako sukursaleko RCI Banque S.A.-ren Magic Planarekin finantzatzeko dutenentzat. Gutxienezko irautea 24 hilebetekoa. Ez da jasagarria beste kanpaina batzuekin. Informazio gehiagorako GAURRA-ETORRI. Eskaintza baliagarria ekainak 30-a baino lehenago matrikulatzen diren ibilgailuentzat.



Ehunka herritarrek bat egin dute ustezko eraso sexuala salatzeko elkarretaratzean; eguaztenean egin zuten, txosnagunean. | JOKIN BEREZIARTUA

"Irmoki" gaitzetsi dute Arrasateko ustezko sexu erasoa ehunka herritarrek

Arrasateko Udalak adierazi du ez dutela onartuko "emakumeen kontrako inolako erasorik"

UBANE MADERA | ARRASATE
"Emakumeen kontrako indarkeriaren edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), baita sexismo mota oro ere, arinenak eta normalizatuak barne, esaterako: sexua-
ren arabera rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztapena; edota pertsonen diskriminazioa euren sexu-aukeraren

edo genero identitatearen ondorioz. Eta batez ere emakumeen aurka ematen diren eraso fisikoak eta psikologikoak. Erasoa hauek emakume guztien kontrako erasoak dira, onartezinak direnak eta gaitzetsi behar direnak. Ez dugu onartuko gure herrian emakumeen kontrako inolako erasorik. Egunerokotasunean zein jaietan, emakumeok libre eta aske bizi behar dugu erasoak jasateko inolako beldur barik".
Berba argi eta irmo horiekin gaitzetsi du Arrasateko Udalak

ekainaren 24ko goizaldean (martitzena) Arrasaten gertatutako ustezko sexu erasoa.
Eta irtotasun berarekin gaitzetsi dute gertakaria ehunka arrasatearrek txosnagunean egin dako bi agerralditan: gertakaria izandako egun bereko prentsaurrekoan eta hurrengo eguneko elkarretaratzean. Argazkiak erakusten duen moduan, txosnagunea goraino bete da elkarretaratzean. Txosna batzordeko kide Ane Zuazubiskarren arabera, ez da gutxiagorako: "Normala da

jende asko etortzea, gertaera oso larria da-eta. Jaiak denondako dira eta denok dugu eskubidea gozatzeko. Jendeak erantzun behar zuen, eta erantzun du".
Hitzezko erasoak ere bai
Arrasateko txosna batzordeak salatutakoaren arabera, martitzenean 07:00etan izan zen emakume baten kontrako "eraso sexuala", Pablo Uranga kalean, txosnagunearen inguruan. *Beldurra gurekin jai, erasotzaileak sutara* lelopean, egunean bertan

atera ziren ehunka arrasatear gertakaria salatzen, eta eguaztenerako protesta deitzen. Eta hala-
xe egin ere. Gainera, salatu dute ez dela izan sanjuanetan gertatutako ustezko eraso bakarra. Horren harira eta Goienak konfirmatu ahal izan duenez, hitzeko bi eraso jasan ditu jaiotan beste emakume batek.

Berriro gerta ez dadin
Edozein modutan, ez kasu batean eta ezta bestean ere, ez dute salaketarik jarri poliziaren aurrean. Eta txosna batzordeak berak ere ez du gertakariaren gaineko xehetasunik eman: "Ez dugu zehaztasunik eman nahi, neskaren datuak babesteko eta gertaera isolatua ez dela argi uzteko. Ez diogu gertaerari berari garrantzia eman nahi, gure asmoa da txosnagunea gune aske bat dela eta halakorik onartuko ez dugula ozen esatea. Hemen denok eroso egon gaitzen egiten dugu lan eta batez ere gero-
ra halakorik ez dadin errepikatu", adierazi du Zuazubiskarrek.

Bergaran beste ikerketa bat
Bestalde, Bergaran gertatutako ustezko beste eraso sexual bat dabil ikertzen Ertzaintza. Haiek jasotako salaketaren arabera, ekainaren 17an (martitzena), ustez gizonezko batek emakume bati egin zion sexu erasoa, Labe-
garaietako industrialde inguruan, egunez. Poliziak esandakoaren arabera, gertakaria ikertzen dabilta, eta, oraingoz, ez dute inor atxilotu.

Goiena '.eus' domeinuaren aitzindarien artean dago

U.M. | DEBAGOIENA
Bihar Bilbon egingo den agerraldi baten PuntuEus Fundazioak aditzera emango du *.eus* domeinuarekin abiatuko diren lehen 92 enpresa, erakunde, hedabide eta elkarteen zerrenda. Bada, *.eus* Domeinuaren Aitzindariak bezala aurkeztuko dituzte, eta, ekimenari emandako babes bereziarengatik, abendura arte modu eksklusiboan erabiliko dute domeinu izendapena. Goiena Komunikazio Taldea horien artean egongo da. Domeinuak gaur aktibatuko dira eta egunean zehar hasiko dira ikusgarri egoten; guztia,

biharko aurkezpen ekitaldirako prest egoteko.
Irailean, eskaera berriak
Lehen 92 webguneen domeinu izendapen berrien aktibazioarekin, *.eus* domeinu izendapenaren zabalkundearen lehen faseari helduko zaio. Abenduaren 3an Fundazioak ezarritako baldintzen barruan dauden edozein webgunek hartu ahal-
ko du *.eus* domeinua. Irail aldean hasiko da PuntuEus Fundazioa eskaerak jasotzen, eta epe bat egongo da horretarako. Fase horren ostean, guztiz irekiak izango dira eskaerak.

Irailaren 30era arte luzatu dute erosketa-bonuen kanpaina

U.M. | DEBAGOIENA
20 euro ordaindu eta 25 euroko erosketa egiteko aukera izan. Horixe da Debagoieneko Man-
komunitateak bultzatutako erosketa-bonuen xedea. Bada, aukera hori "jende gehiagori helarazteko asmoz", erosketa-bonuen kanpainak irailaren 30era arte iraungo duela jakinarazi dute asteen.
Askotariko saltokiak
Horrenbestez, kanpainan parte hartu nahi duten merkataria-
k irailaren 30era bitartean atxiki daitezke. Edozelan ere, dagoe-
neko askotariko komertzio eta

zerbitzuak daude kanpainara atxikita. Hain zuzen ere, helbi-
de honetan dago zerrenda: *Debagoiena.com*.
Erosi, berriz, honako toki haue-
tan eros daitezke erosketa-bonuak (pertsonako bakar-
ra eros daiteke): Arrasaten, Man-
komunitatean; Aretxabaletan, Arkupe kultura etxean; Antzuolan, goizez udaletxean eta arratsalde-
z liburutegian; Bergaran, kultura etxe-
ko sarreran (Errotalde jauregia); Elgetan, Julia-
nen kioskoan; Eskoriatzan, Ibarraundi muse-
oan; Leintz Gatzagan, Labidean; eta Oñatin, udaletxean.

Carrascoren hilketa dela-eta, errugabetzat jo dute Aginagalde

J.B. | ARRASATE
Espainiako Auzitegi Nazionalak errugabetu egin du Beñat Aginagalde, Isaias Carrasco Arrasateko PSEko zinegotzi ohiaren hilketarengatik. Aginagaldek hilketaren egunean, 2008ko mar-
txoaren 7an, Donostiako EHUKo Medikuntza Fakultatean zegoela azaldu zuen, eta gertaeraren berri Hernanin jaso zuela taberna baten bazkaltzen zegoela. Epail-
eek azaldu dute hari hilketa leporatzeko lekukotzek zigorrik ezartzeko moduko frogarik ez dutela aurke-
zten. Fiskalak 32 urteko zigorra eskatzen zuen.

RPS: 68/14



PHONO-GUNE

otorrinolaringologia klinika

HEMEN GAUDE:

Udalaitz Mediku Zentroa
Euskal Herria Plaza 3 ARRASATE – 943 79 44 22

Urbietza Mediku Zentroa
Urbietza kalea 58 DONOSTIA – 943 47 01 44

Otorrinolaringologia kontsulta berria

ARRASATEN (Udalaitz Mediku Zentroan)

Juanjo Navarro eta Mikel Landa doktoreak

Azterketa diagnostikoa teknologia aurreratuarekin eta ENTZUMEN, SUDUR, EZTARRI eta LEPOko gaixotasunen tratamendu mediku-kirurgiko integrala:

- Gortasuna, zorabioak (bertigoak) eta akufenoak
- Arnasteko zailtasunak. Errinoplastia estetikoak
- Zurrungen eta loaren apnearen tratamendua.
- Ahotsaren patologia eta otorrinolaringologia pediatrikoa

Xabier Vallina eta Joseba Gabilondo | Sexu Askapen Mugimendua

"Askotan hirietara irten beharra izan da, askatasunean bizi izateko"

- ▶ Elkarte berria sortu da Debagoiengan: Sexu Askapen Mugimendua
- ▶ Lehen ekimena orain egingo dute, baina irailean hasiko dira lanean

U.M. / I.G. | DEBAGOIENA

Astebete da Debagoiengan Sexu Askapen Mugimendua sortu berri dutela Arrasate eta Eskoriatzako gazte batzuek. Lan ildo batzuk zehaztu dituzte, eta lehen ekimena iragarri ere bai: elkarretaratzea, Eskoriatzako jaietan. Xabier Vallina elkarteko sortzaileak eman ditu xehetasunak.

Zergatik sortu duzue elkartea?

Debagoiengan sexu askapenaz askorik ez delako hitz egiten; eta ikusten zen behar bat, batez ere, lantzeko herriko jendearekin eta egoera aldatzeko. Dena isiltasunean eramaten da azkenean.

Zeintzuk dira helburuak?

Oraingoz, egin duguna da ekainaren 28ari begira, LGBT Harrotasun Eguna dela-eta, plangintza landu, zerbait egiteko. Gero, lan ildoari dagokionez, irailean aztertuko da zer egin.

Elkarretaratzea deitu duzue.

Eskoriatzako jaiak direla aprobe-txatuta, eta han ere danborradan ortzadarraren bandera eramanda egin behar dutenez errebindikazioa, pentsatu zen txosna batzordearekin batera egitea elkarretaratzea eta hori kaleratzea. Izango da 17:30ean txosnagunean. Lehen pausoa izango da, ikusarazteko hemen ere badagoela elkarretaratzea. Gaur egun dauden elkar-teek hiri handietarako dei egin dute, eta guk gura genuen hemen ere ikusaraztea.



Joseba Gabilondo eta Xabier Vallina, Arrasaten. | IRATI GOITIA

"Instituzioetatik kanpo dagoen mugimendua izan behar du"

Bi lan ildo iragarri dituzue: sexu askapenean oinarritutako heziketa bultzatzea da bat. Zela pentsatzen duzue hori lantzea?

Lehenengo bileran konturatu ginen denok ados geundela instituzioetatik kanpo dagoen mugimendua

soziala izan behar duela. Gizarte mailan landu beharreko zerbait izan beharko du. Baina ez genuen debata aurrera eraman, irailera itxaroteagatik.

Irailean erabakiko duzue, beraz, zelan egin lanketa gizartearekin?

Bai, batez ere, izango dira tailerrak, debateak sortu... nahi dugu ikusarazi posible dela Debagoiena sexu askapenarekin bateragarri izatea. Askotan pasatu dena da hiri handietara irten beharra askatasunean bizi ahal izateko. Eta erakutsi behar dugu hemen ere posible dela.

Iragarri duzuen bigarren lan ildo da heteroarauari, homofobiari eta sexismoari aurre egitea...

Batera datoz, dagoen errepresioa eta isiltasuna; heteroarauarengatik, homofobiarengatik eta sexismoarengatik da. Genero batek handinahia erakusten du, ikuspegi maskulino eta hetereoa, eta alboratu egiten ditu beste sexualitate posibleak. Ikusi behar da sexua oso zabala dela eta disfrutatzeke modu asko daudela.

Zer da heteroaraua?

Heteroaraua eta sexismoa batera datoz. Heteroaraua da heterosexualitatea hartzea natural moduan, normalena.

Oraingo gizartearen erretratua zein da? Uste dugu eskualdean ez dagoela sexismoa, homofobia...

Komentatu genuen heziketa egin beharra dagoela Debagoiengan; horrek esan nahi du kontzeptuak aldatu egin behar direla. Badago homofobia, nahiz eta askotan azaleratu ez eraso baten bitartez... ezkutatuta dago. Eta hori aldatu egin behar da. Baliteke hemen jendeak onartzea, baina nork bere sexualitatea gordetzen badu, zerbaitegatik da. Aurreiritzi asko daude, prototipoak ere bai... hori guztia landu eta aldatu egin behar da.

Zeini zuzendutako elkartea da?

Guztiz zabala da. Bost lagun elkartu gara, gure artean ezagunak. Baina helburua da animatzen den jendea gurekin harremanetan jar dadila eta talde on bat sortzea, eta lantzen hastea. Hasieran kosta arren, ardura badugu Debagoiengan gustura bizi izateko eta sexualitate guztiek lekua dutela erakusteko.

Bestarik gura baduzu gaineratu...

Nahi duena anima dadila taldera gerturatzen: debagoieneko.sexuaskapena@gmail.com da gure helbidea. Animatu eta gura duenak idazteko.



Gema Arrugaeta. | G.A.

Natura eta argazkigintza uztartuta bihartik aurrera

ANE ELORDI | DEBAGOIENA

Natura eta argazkigintza lotzen dituen ikastaroa abiaraziko dute bihar (zapatua) Arantzazu Gaur Fundazioak eta Arantzazuko Parketxeak. Hiru zapatutan egingo da, eta Aizkorri-Aratz parke naturaleko paisaietan oinarrituko da. Gema Arrugaeta argazkilariak gidatuko du, eta udaberritik udarako trantsizioan dagoen paisaia-gunea da landuko dutena.

Aurtengo ikastaroa, beraz, hirugarren modulu aurreratua izango da, eta zaletasuna duen eta modalitatean garapena lortzeko jendea-ri zuzenduta dago. Batez ere, interesekoa da aurreko ikastaroetan parte hartu dutenentzat, alegia, hasiera-oinarritza eta oinarritza-aurreratua ikastaroak egin dituztenentzat.

Esperientzia zabala

Ikastaroa Gandiaga Topagunean izango da, eta bihar, zapatua, da lehendabizikoa saioa. Uztailaren 5ean eta 12an, berriz, hurrengo biak. Izen-ematea Arantzazuko Parketxean egin behar da: 943 782 894 telefonora deituta edo arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net helbidera idatzita. Gehienez, hogeitaz gero taldea sortuko da, eta gutxienez hamar pertsona izan beharko dira. Eta oraindik bada izena emateko aukera, baina, eguna kontuan hartuta, zeresanik ez ahalik eta lasterren egin behar dela hori.

Bartzelonan trebatutako argazkilari profesionalak egingo ditu ikastaroaren gidari lanak. Esperientzia zabala du munduko paisaia, herrialde eta kulturen inguruko argazkigintzan. Munduan ibilitakoa da, eta hainbat lan argitaratu ditu: gizarte-gaiak ardatz dituen sei liburu argitaratu ditu; artean, *Aizkorri-Aratz, el espíritu de la montaña*, hamahiru dokumental egin ditu, hamar museo tematikotan daude bere erakusketak eta *Al filo de lo imposible* telebista saioko argazkilaria ere izan da.

Uda "goxo eta polita" iragarri du Pello Zabalak

Haizeak Frantzia iparretik jo du asteotan; besteak beste, horri begiratuta egin du aurreikuspena

IRATI GOITIA | OÑATI

Joan den zapatuan sartu ginen udan eta eguraldi nahasia izan dugu lehen astean, ekaitzekin. Bada, Pello Zabala frantziskotarrak esan du uda "goxo eta polita" izango dela, ekaitz arriskuekin, hain zuzen ere.

Aurreko asteetako eguraldiari begiratuta egin du iragarpena. "Eginiko haizeari begiratuta jakin dezakegu ze eguraldi izango dugun. Frantzia iparra izan dugu eta tenperaturei begiratzin badiegu nahiko berdintsu mantendu dira. Beraz, uda polita izango da".

Beroa, trumoiak...

Hala ere, kezkatuta ere azaldu da frantziskotarra. "Beroaldiak izango ditugu. Aste batzuk nahiko sanoak izango dira, baina beste

batzuek berotik joko dute. Bero horrek trumoiak eragingo ditu eta ez dakigu zenbat izango diren harritik". Uda nahiko lehorra izango dela ere badiu: "Ipar mendebaldeko haizerik ez da ibili. Orduan, euria egun gutxitan izango dugu. Bustiko duena ekaitzetatik bustiko du eta trumoi eta tximistez ezin zaitezke fida, ez dira onuragarriak izaten".

Bestalde, tenperaturei dagokionez, uda goxoa izango dela adierazi du. "Azken egunetan ekialdeko haizea izan genuen eta horrek eguraldia finko mantentzen du. Euri gutxi, baina giro goxoa utziko du, eta hori gustura hartzen dugu. Tenperatura aldetik, ez dugu bero handirik izango, ezta hotzik ere. Alde horretatik oso atsegina izango da".

Autobusetan bizikletak eramateko aukera izango da

Lurraldebusen autobus guztietan onartuko dituzte bizikletak, baina tolesgarriak bakarrik

U.M. | DEBAGOIENA

Aurrerantzean, bizikleta tolesgarriak ere onartuko dituzte Lurraldebusen autobusetan. Hori bai, bada kontuan hartu beharreko baldintza bat: tolestuta, bizikleta horiek ezin izango dutela 100x65x40 tamaina gainditu.

Asteon eman du aukera horren berri Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Emakidaren arabera

Erakunde horrek jakinarazi duenez, araudi aldetik zegoen hutsune bat konpondu nahi izan dute modu horretan: "Izan ere, orain arte Lurraldebusen zerbitzu batzuetan bizikleta tolesgarriak eramateko aukera zegoen eta beste batzuetan ez, emakidaren arabera.

Aurrerantzean Lurraldebusen autobus guztietan eraman ahal izango dira bizikleta tolesgarriak".

Bidegorrietarako laguntzak

Zerbitzu berri horren eskaintzaren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak "mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua" berretsi nahi du, eta baita pertsonen garraio-bide ezberdinen arteko lotura bermatu ere. "Aldundiarantz oso garrantzitsua da garraio arteko lotura bermatzea, erraztea eta indartzea, eta are gehiago garraio-bide horietako bat bizikleta bezalako garraio-bide iraunkor, ekologiko eta segurua denean", eman dute aditzera erakundetik.

Iñigo Alberdi | Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusia

"Euskadiko Orkestra Sinfonikoa hobe eta ezagunagoa izatea lortu dugula esango nuke"

- Alberdik uztailaren 31n lagako du Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari kargua
- Zortzi urteren ostean badoala-eta, dio "irudi on eta bereziko" orkestra dela Euskadikoa

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Zortzi urteren ostean, uztail amaieran utziko du Iñigo Alberdik (Soraluze, 1973) Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusi kargua. Kutxara itzuliko da musikaria, EOSen egindako lanarekin "gustura".

Zortzi urte nahikoa dira?

Bai. Urtarrilean iragarri nien Kultura Sailekoei zortzi urte nahikoa zela eta helburuak betetzat ematen nituela. Erreleboa ona zela. Uste dut une egokian noala.

Oraintsu egon zarete Aita Menni ospitalean. Zer moduz?

Zortzi urtean hiru bider egon gara. Zerbitzu publiko bat gara, herrigintzako tresna bat. Hala ulertzen dut nik. Bestalde, badira kolektibo batzuk ezintasunak dituztenak kontzertuetara-eta etortzeko eta horien premiak neurri baten asetzen saiatzen gara haiengana gerturatuz. Aita Menni da horrelako kasu bat. Oso harrera ona egiten digute.

Lehenago ere etorri zarete gure eskualdera. Aurten, esaterako, Bergaran izan zarete. Zer moduz Udal Pilotalekuko esperientzia?

Azkenaldian, bi bider izan gara Bergaran: lehena, Musika Eskolaren 25. urteurrenean; eta aurten Miguel Gonzalez Bastidaren omenez, iaz hil zen-eta. Egia da frontoia izateko oso ondo entzuten zela. Bestalde, musikariak harrituta geratu ziren, aretoa lepo zegoela-eta.

Arrasaten, Bergaran, Oñatin... Orkestraren marka bihurtu da, zure agintaldian, herrietara joatea eta euskal konpositoreen obrak ere interpretatzea.

Bai. Diodana, Orkestra kalitatezkoa izatea da helburua, baina, bestetik, herriak bere sentitu behar du. Horretarako, oso garrantzitsua da herrietara gerturatzea. Denboraldi bakoitzean hiruzpatalu bider joaten gara herrietara. Orkestra Herrietan zikloa sortu dugu horretarako. Saiatzen gara herri horretako musikariren baten lana interpretatzen edo efemeride batekin lotzen...

Ken 7 taldearekin, Pirritx eta Porrotxekin, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbiorekin, Donostiako Orfeoia-ekin... batera hainbat kolaborazio egin dituzue. Ildo horretatik doaz horiek ere?

Bai; kasu honetan, Klasik At zikloa sortu dugu, eta, izenak esaten duen moduan, Orkestraren ohiko erregistrotik harago joan nahi dugu ziklo honekin. Hainbat kolaborazio egin ditugu, aipatutakoez gain, Kepa Junke-

ra eta beste batzuekin, eta lortu dugu beste ikusleria mota baten-gana heltzea. Abonuzko kontzertuetara etorriko ez den jendearengana. Honekin guztiarekin lortzen dugu Euskadiko Orkestra Sinfonikoa izatea hobe, ezagunagoa, jarraituagoa...

Herriarendako egin nahi izan duzu Orkestra?

Orkestraren helburua, sorreratik, izan da euskal musikarekin aritzea eta euskal konpositoreei irteera ematea eta baita Euskal Herriaren enbaxadore izatea munduan.

Enbaxadore ona da?

Uste dut baietz. Duela urtebete Prisen, Versaillesen, izan ginen Biarritzeko balletarekin batera. Eta aurten Veneziara goaz, besteak beste, Oreka TX taldearekin batera. Sorozabal, Guridi, Arriaga, Aita Donostia, Aranbarri... euskal konpositore sinfoniko oso ezagunak dira, atzerrian izena dutenak, guk pentsatutakoa baino handiagoa. Eta musikari horien enbaxadorea ere bada Orkestra Sinfonikoa. Bestetik, nazioartean ospetsuak diren solista eta konpositoreekin lan egin dugu eta horrek eman dio sona berezia munduan Orkestrari. Irudi on eta bereziko orkestra da, ez hiri batekoa, baizik eta hara eta hona dabilena.

Gaztea da, gainera.

32 urte ditu, eta, alde horretatik, gaztea da, baina, gainera, musikariren batez besteko adina 42 urtekoa da eta hori ere gaztea da. Guztira, 101 lagun gara lantaldean, eta, horietatik, 87 dira musikariak. Gainerakoak, 14 bat, bulegoko langileak edo pertsonal teknikoak.

Zergatik uzten duzu?

Penaz noa, ze lan hau asko gus-tatzen zait-eta. Baina hasieratik izan dut garbi lanpostu honek iraungitze data daukala. Zortzi urteren eta egindako lanaren ostean, eman dut nahikoa.

Hartu zenuenean baino hobe eta orain Orkestra Sinfonikoa?

Musikari dagokionez, hobe eta ezagunagoa izatea izan dira bi helburu nagusiak, eta esango nuke lortu dugula.

Egindako zerekin geratu zara gusturen?

Orkestra ezagunagoa egiteko bultzatu ditugun ekimenekin. Aipatu ditudan zikloekin... Bestetik, Andres Orozko Estrada kolonbiarra izan da orain dela gutxira arte gure zuzendaria. Begira non dagoen orain: Londres, Huston eta Frankfurtoko orkestrak zuzentzen ari da. Hura izan



Uztailaren amaieran utziko du Alberdik kargua. | ENEKO AZKARATE

"Hemengo musikariekin aritzea izan da beti EOSen helburua"

"Andres Orozkoren lanak ekarri du Orkestraren gorakada"

"Gero eta euskal musikari gazte gehiago sartzen da Orkestran"

da Orkestraren gorakada artistiko eta musikaren erantzule nagusia.

Duela hilabete batzuk entzun zen Bilboko Orkestra eta Euskadikoa bat egitearen komenientzia. Non geratu da?

Polemika hori ziklikoa da. Orain sortu da, baina baita duela zazpi urte ere, eta, ze esanik ez, baita Euskadiko Orkestra Sinfonikoa sortu zenean ere. Herri honek daukan maila kultural eta ekonomikoa kontua izanda, onargarria da kalitatezko bi orkestra sinfoniko edukitzea. Bilbokoak historia luzeagoa dauka, baina Euskal Herriak behar du orkestra nazional eta ibiltaria. Bi proiektu dira, osagarriak.

Euskal musikariren harrobia da EOS?

Hori baino gehiago ere bada, baina bai, harrobi ona da. Musika sinfonikoari dagokionez, Europako herri garatuenetan dagoen moduko egitura bat edukitzea

lortu dugu hemen. Goian dauka gu orkestra profesional bat, baita Gazte Orkestra ere. Hezkuntzari dagokionez, daukagu Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia; hiru hiriburuetan musika kontserbatorioak ditugu eta gero, musika eskolak. Gero eta euskal musikari gazte gehiago sartzen da Orkestran eta horrek erakusten du helburuak betetzen ari direla.

Orkestraren denboraldi berria aurkeztu duzue. Nabarmenena, zuzendari artistiko berria duela: Jun Markl?

Zuzendari bat aukeratzeko orduan, bi profiletakoak izan daitezke: alde batetik, profesionalki ezaguna, eskarmentu handikoa eta ibilbide luzeak. Kasu honetan, profil horri erantzuten diona aukeratu dugu. Alemaniarrak japoniarra da Markl. Musikari fina eta EOSekin hainbatean ibili dena. Musikariak ere oso pozik daude. Orkestrari indarra eman dio.

Bestelakoan, ze azpimarratuko zenuke denboraldi berritik?

Berrelkartzeak da denboraldi berriko programazioaren leloa. Zerekin berrelkartu? Bada, Orkestrak, historian, gertuko izan dituen artistekin, musikariekin eta abarrekin. Bestetik, mendeurren batzuk betetzen dira sasoi honetan, besteak beste, Jose Mari Usandizagaren heriotzaren mendeurrena. Ravel, Guridi eta halakoekin batera, musikari nagusietako bat izan zen XIX. mendetik XX. mendera arteko sasoi trantsizioan. Eta, hortaz, Usandizaga oso presente egongo da denboraldi osoan. Eta gero, Veneziara ere joango gara.

Non hasiko zara lanean orain?

Kutxako langilea nintzen EOSera etorri nintzenean eta Kutxabankera itzuliko naiz, irailaren leian, zortzi urtez eszedentzian egon ostean. Une aldakorrek dira Kutxabanken, baina ilusio handiarekin noa, uste dudalako herri honen tresna oso baliagarriak direla kutxa publikoak.

Politikan jarduteko proposamenik jaso duzu?

Komentario ezberdinak eta leku askotatik heldu zaizkit. Batzuk alde profesionalekoak eta beste batzuk politikarekin lotutakoak. Baina, oraingoz, nire helburua da Kutxabankera itzultzea.

Elkarriketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

IÑAKI CASAS
goiena.net/
komunitatea/

Bagoneten aldapa

Bagoneten aldapa aipatzen badut, batzuek ez dute jakingo zertaz ari naizen. Mendizaleek, berriz, lotuko dute Araia-rekin (Araba), Aratzeko mendi-hegalarekin, Aizkorriarekin eta Hiru Handiak probaren azken zuzenarekin.

Beste batzuek, aldiz, lotuko dute haitzaren behealdean dagoen harrobiarekin eta Ajuria Urigoitia fabrika metalurgikoarekin, 1847an Fermin Lasal eta Luis Ajuriak sortua, 1985a ezkeror abandonatua.

Aldapa hartatik jaisten zuten harrobitik ateratako harria. Horretarako, bideak eraiki ziren, mineralez betetako bagonetak jaits zitezen. Hortik izena. Ezkerraldetik eta eskuinaldetik, mandoek eta astoek ikatza jaisten zuten labeak elikatzeke; burdina irteten zen labeetatik, eta horrek azaltzen du inguru hartako indar ekonomikoa.

Aldapa hura igotzen zuen, egunero, Josetxok. Espainiako gerran, 11 urte zituela, eskolaren ostean, aldapa hura igotzen zuen eta mendian sartzen zen. Otzara bat eramaten zuen, eltzekoa kazola baten eta plater bi: bat berarendako eta bestea Martin Joserendako –haren aitaita–, fabrika hartako eta ikatza manufakturatzen zuen lantaldeko arduraduna.

Solasaldi luzeak izaten zituzten, beti euskaraz, Martin Josek ez zekien-eta beste hizkuntzarik. Egunaren bukaran, elkarrekin bueltatzen ziren Araia.

Gaur egun, bagoneten aldapa jaistea gozamen hutsa da, naturaz disfrutatu osteko egun bat igaro ostean. Orduan, Josetxok gogora ekartzen duenez, bidean geratzen zen askatasuna eta gure kultura, pilatu egin behar den aberastasun bakarretako bat, partekatzeko helburuarekin. Ze kalte egin dezake horrek?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.net/komunitatea/



GUTUNAK

Uribetxeberriak aukera bat eskaini digu

Malores Etxeberria eta Pello Zubiria
Arrasate

Josu Uribetxeberriari naturak baimendu dio medikuek pronostikatutako epea pasatuta bizirik jarraitzea, baina bere disziplina pertsonalak eta etxean egoteak asko lagundu du: zuzen elikatu, ariketa fisikoak zorrotz egin, familiaren eta lagunen beroa sentitu, ibili eta ibili...

Nolaz kondenatu dezake epaileak kantzer terminal batekin borrokatzen ari den gizona hamabi metro baino urrutiago heldu ezin den pisutik ezin irtetera? Etxe barruko kartzelaldi berrian Josu ez da kexatu, kanpoan egiten zituen kilometroak barruan egiten saiatu da eta kito. Antzera ikusten dira bizirauten eta erresistitzen preso gaixo larri gehiago, nor bere osasun ahula gaintzeko ahaleginean imajinatzea ere zail egiten den bizi-baldintzetan, baina hori ez da kontua. Kontua

ez den bezala justizia espainiarrak ematen dien tratua alderatzea beste kondenatu boteretsuagoei ematen dienarekin. Gauza asko dauzkagu eztabaidatu eta argitzeko bake prozesu edo normalizaziorako bide edo adiskidetze edo dena delako ibilbide konplikatu horretan, direla bateko eta besteko biktimak, eta tortura, eta eskubideak, eta eragin diren min guztien erantzukizunak, eta nahi den guztia. Baina euskal presoekin gizatasunez jokatzeko, alferrikako minik ez eragitea, osasunez larri dagoena ostikoka ez erabiltzea... ezin da geratu agendaren azken lerrorako. Aprobetxatu behar dugu aukera. Uribetxeberriaren egoera berriro pittin bat normalizatu izana gerta liteke kate berri baten lehen begia. Gaixotasun larriak dauzkaten presoak etxeratzea izan dadila hurrengoa, dauzkaten osasun arazo sendaezinak minimo humano batzuekin eraman ditzaten. Ez dago gure esku bakarrik, baina gure esku ere badago Josu Uribetxeberriak ireki digun zirrikitua zabaltzea. Besardaka bana eta mila esker, Josu.

Ezker abertzalea iraganeko garaietan errotuta

Mikel Iturrospe
(Oñatiko EAJ-PNVko udalbatzako presidentea)
Oñati

2011ko urrian ETAk armak utzi zituenetik Euskal Herrian bake eta normalizazio politikoa lortzeko prozesuari ekin diogu itxaropentsu.

Hasieratik jakin dugu ez zela erraza izango, baina normalizazio politikoa zigokionez aurrerapausoak eman zitezkeen harreman politiko eta erakundeen arteko lanaren ildotik. Baina Oñatiko EAJ-PNV kezkatuta dago ikusten ari denagatik; izan ere, Ezker Abertzalea bizikidetzako bake prozesua eta normalizazio politikoa sustatu baino gehiago, iraganeko garaietan kokatu da berriz ere. Ezker Abertzalearen lehentasuna ez da Euskal Herriaren independentzia, ezta presoen arazoari irtenbidea ematea, ezta krisiari aurre egiteko enplegua sortzea ere. Duten lehentasun bakarra da

EAJ-PNV mapatik desagerraraztea. Edozein gezur, manipulazio eta boikot erabiltzen ari dira gure alderdia iraintzeko, badirudi EAJ-PNV astintzeko denak balio duela. Oñatiko Ezker Abertzaleak hitzeko eta erakundeen arteko konfrontazio politikoari ekin dio. Horren adibide da Eusko Jaurlaritzako sailburu Josu Erkorekaren bisitaren harira hartutako jokabidea. Aurreko legealdian, Erkoreka Madrilén diputatu zela, MU Enpresa Zientzien Fakultatea eraikitzeko 6 milioi eta Arrasateko Eskola egiteko 7 milioi euro lortu ziren. Ostegunean, ekainak 18, sailburua Oñatiko batzokira gerturatu zen hitzaldia eskaintzera, eta, Frankoren diktadurapean bezalaxe, manifestazioa egin zuten batzoki parean zarata eginez, bertaratuek Erkoreka entzun ez zezaten. Zuen nortasunaren ikur dira inposaketa, zuek bezala pentsatzen ez dutenak isilaraztea, konfrontazioa kudeaketa gaitasunak estaltzeko, hitzeko indarkeria eta "hemen nik agintzen dut" jarrera. Oñatiko EAJ-PNV ez da probokazio horietan eroriko, oñatiar guztien alde lan egiten jarraituko dugu, manifestazio, hitzaldi eta bestelako jardunaldiak errespetatuz, edozeinek antolatzen dituela ere.

Eskerrik asko!

Salvador Dalmau
(Portaloi kultura elkarte)
Arrasate

Ekainaren 14an, Portaloi Kultur Elkartearen 10. urteurrena zela eta, eskerrik beroenak egun hori hain borobila eta arrakastatsua posible egin zenutenoi. Bereziki, kanpotik etorritako eta Arrasateko musikariei, zuen ekarpena guretzat ezinbestekoa izan baita. Mondra futbol taldekoei, beraien ardo eta *bokadutxo*a eskaintzeagatik. Udalari, berarengandik jasotako laguntza eta emandako erraztasunagatik. Komunikabideei, egunari emandako oihartzunagatik. Eta parte hartu duzuen kantuzale eta dantzazaleei. Denon artean lortu dugu. Eskerrik asko denoi!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Ezingo dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun, gutun bakarrekin baizik. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñati 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Oñati 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Oñati 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Oñati 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Oñati 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK onialdeetan, edo bestelako onialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

HERRIAK

ANTZUOLA

Herriko beharrak identifikatzeko irteerak egingo dira, auzolanean

- Landatxope elkarteak antolatuta, martitzenean egin zuten lehen irteera herrian barrena
- Helburua da herria nola dagoen ikustea, hausnartzea, eta ondoren Udalari jakinaraztea

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako Landatxope erretiratu elkarteak antolatuta, martitzen goizean egin zuten herriko oztopo eta beharrak jasotzeko lehen irteera herrian barrena. Jose Inazio Garitano Landatxopeko kontu-hartzailea aritu zen gidari lanak egiten. Adineko jendearendako oztopo dezente dau dela azaldu zuen Garitanok: "Ibilbide bat egitera irten eta oztopo dezenterekin topo egiten genuen; horregatik, lehen urratsa alkatearengana joatea izan da eta gure asmoen berri eman diegu. Ondoren, baina, identifikatzen ditugun oztopoen berri emanda, Udalaren aldetik ere erantzun bat jasotzea gura genuke; hau da, konpontzeko aukerarik ez badago ere, zergatia jaso gura genuke".

Udalari ideia ona iruditu zitzaion hasiera-hasieratik. "Guri ongi iruditu zitzaigun, eta beraiek azterketa egindakoa antzemandako arazoei erantzungo geniola esan genien. Ezin bada konpondu zergatik ezin den azalduko diegu, gainera. Egin dutena auzolanaren parte dela uste dugu, eta dei egiten diegu herritar guztiei antzemandako arazoan edo interesatzen zaien beste edozeren berri emateko guregana jotzeko", azaldu du Ima Beristainek, Antzuolako alkateak.

Herriko oztopoen bila

Harrera polita izan du lehen ekimen horrek. 23 lagun batu ziren ibilbidea elkarrekin egiteko martitzenean. "Oso ideia ona izan da, herrian badago eta zer konpondu. Batek baino gehiagok hartu du sustoa; lurrera erori eta min hartuta", kontatu dute Antonia eta Patrizia Zubikarai ahizpek.

Torresoroatik abiatu eta, Lapatzaetxeberrira, bidegorrira eta Etxezuritik bueltan itzuli ziren berriro Torresoroara. Bidean, hautsitako espaloiak eta bankuak identifikatu zituzten. Baita egoera kaxkarrean dauden belarrez jositako horma eta bazterrak ere. Zebra-bideen beharra ere antzeman zuten zenbait puntutan. "Aiherra atzealdetik Eguzki auzora pasatzeko zebra-bide zuzena behar da. Izan ere, oso urrun dago bestaldera pasatzeko



Eguzki auzoan Landatxope elkarteko erretiratuak Jose Inazio Garitanoren azalpenak entzuten. | MAIDER ARREGI

GENARO LASKURAIN
ERRETIRATUA



"Lagun artean egiteko irteera ere bada. Erretiratuek abiatu dugun ekimena da. Udalaren oniritzia jasota, orain gure txanda da herriko beharrak batzea."

ANTONIA ZUBIKARAI
ERRETIRATUA



"Gauza asko dago egiteko. Adibidez, lurra gaizki dagoela azpimarratuko nuke; beti behera begira joan behar izaten dut lurrera ez erortzeko".

JOSE INAZIO GARITANO
ERRETIRATUA



"Oinezkoendako eta adineko jendearendako dauden oztopoak eta beharrak jaso gura ditugu irteera hauetan. Hilero egiteko asmoa daukagu".

jarritako zebra-bidea", adierazi diote monitore lanak egin dituen Garitanori. Baina nola ikusten dute herriko erretiratuek orokorrean herria? "Antzuola azken bi urteetan asko hobetu da. Elbarri bat bada herrian eta gauza asko egin dira: oinezko bideak eta espaloiak txukundu, esaterako", dio Garitanok.

"Herria gaizki ez dago, baina badago zer egin eta konpondu. Hasiera bat besterik ez da hau, eta erretiratuengandik irten den inizatiba polita dela uste dugu", azaldu du Genaro Laskurainek, Landatxopeko lehendakariak.

Hilean behin irteera

Hileko laugarren martitzenetan batuko dira, hasiera baten, erretiratuak Torresoroan. "Ordubeteo ibilbidea egin eta gero mokadutxoa jango dugu elkartean. Nahi duenak beste egun bat ere proposa dezake". Hala, lanean, auzolanean jarraituko dute erretiratuek eta hilean behin batuko dira jarraipena egiteko. Uztailaren 22an bilduko dira berriro Torresoroan, 10:30ean.



Banku bat hondatuta eta sastraka artean. | FELIX ALONSO



Espaloia oso egoera kaxkarrean. | F.A.

50.000 euro inguruko laguntzak onartu dituzte Ongizate eta Ingurumen sailek

Onuradunek %60 jasoko dute orain; likidazioaren ostean gainontzekoa

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasateko Udalak eman die onespena Ongizate eta Ingurumen sailetan aurkeztutako hainbat dirulaguntza eskaerari.

Kopururik handiena erretiratu egoitzaentzako bideratuko dute, Ongizate Sailetik: 38.000 euro. Eta kopuru horretatik zatirik handiena Abaroarendako izango da: 13.744 euro.

Gainontzeko egoitzen artean honela banatuko dituzte laguntzak: Uribarriko egoitzari, 8.517 euro; Musakolakoari, 8.098; eta Toki Argiri (Santa Marina) 7.639.

Kurtzetxikiko ibilbidea

Ingurumen Sailean egindako eskaerei dagokienez, berriz, hiru onartu ditu Udalak: Zero Zabor taldeari 1.980 euro ematea hondakinen inguruan sentsibilizazio kanpaina egiteko; Aranzadi Zientzia Elkarteari 1.500 euro ematea, Arrasateko anfibio eta narrastiak ezagutarazteko ekintzetarako, eta Besaide Mendi Elkarteari 700 euroko laguntza ematea, mendi film tourrerako; aldiz, mendi elkarteari ukatu egin diote beste eskaera bat Kurtzetxikiko artadia, harizti azidofiloa eta, besteak

beste, bertako biodibertsitatea babestu eta hobetzeko kudeaketa plana egiteko, Udalaren esanetan, ez dutelako "beharrezkoa kontsideratzen. Proiektuaren irizpideak zehazteko eta garatzeko Naturtzaindiaren kolaborazioan egiten ari baita".

Kurtzetxikirekin lotuta, hori bai, mendia inguratzen duen ibilbidea balioan jartzeko seinaleztapenerako 5.526 euro bideratzea onartu du Udalak. Balizak, geziak eta panelak jarriko ditu diru horrekin Gipuzkoako Mendizale Elkarreak.



Arrasate-Kanpanzar taldeko atletak, urrezko dominekin. | FERNANDO ZUFIRIA

Eneko Carrascalek luzera saltoan eskuratu du urrea, kasu horretan, 6,19 metrotik 5,95 metro-ra jaitsita bere marka.

Taldeka, berriz, Ibai Fernandezek, Eneko Carrascalek, Daniel Martinezek eta Sergi Fernandezek urrea erdietsi dute erreleboka, 4x100 metroko proban; eta baita 4x300 metroko errelebo proban ere (kasu horretan, Sergi Fernandezekin barik David Gartziarekin osatutako taldea zen).

Bestalde, Mojatetik probetako emaitzekin ere pozik dira: Jonathan Perez pertika-jauzilariak urteko marka pertsonalik onena egin du (4,92) eta, besteak beste, Malen Ruiz de Azuak Euskadiko marka hautsi du (4,02).

Lasterketetan lehia

Hurrengo hitzordua, berriz, oraingo asteburuan dute, Huelvan, bertan jokatu dute eta kadete mailako Espainiako txapelketa. Hain justu ere, Ibai Fernandez lehiatu da 100 metroko lasterketan, eta Daniel Martinez, berriz, 600 metroko lasterketan. Eneko Carrascalek ezin du parte hartu ikasketengatik kanpoan izango delako.

lasterketan eskuratu du urrea, 11.49ko denbora eginez, (11.63ko denbora zuen). Bere marka propioa jaisteaz gainera, kontuan hartzekoa da proba horretan bakarrik bi atletak lortu dutela 12 segundotik jaitea, lehian jardun zuten 20 atleten artean.

Urrea eskuratuta, atleta gazteak orain Huelvara

Bost atleta gazte dominekin bueltatu dira Gasteiztik, klub arteko txapelketatik

U.M. | ARRASATE

Euskadiko hamaika talderen arteko lehian, urrezko dominekin bueltatu dira Arrasate-Kanpanzar taldeko atletak, kadete mailakoek Gasteizen jokatu dute txapelketatik (zapatuan izan zen lehia). Hala, Ibai Fernandezek 100 metroko

Doako udako bonua Agirre familiarentzat

Ekainaren 20a aurretik kiroldegiko udako bonua egin dutenen artean, halako bat zozketatu du Udalak. Eta Aitana Agirreren familiak irabazi du. Hain justu, bonu familiarra eskuratu du hark doan. Guztira, 460 abonatu berri izena eman dutela jakinarazi du Udalak. Argazkian, Kirol zinegotzi Askasibar saria ematen eta Agirre, alabekin.



LARRAIZ SANZBERRO

Udako ordutegia izango dute Udal Bibliotekan, gaurtik

U.M. | ARRASATE

Sanjuanetako jaiegunen ostean, gaur (egubakoitza) zabalduko dute atzera ere Udal Biblioteka. Hori bai, gaur hasi eta irailaren 12ra arte (egubakoitza), udako ordutegiarekin funtzionatuko du udal zerbitzu horrek.

Bestela esanda, eguerdian itxi egingo dute. Hain justu ere goizean, 10:00etatik 13:00ak arte, eta arratsaldean, 16:00etatik, 20:00ak arte izango da zabalik astegunetan. Asteburuan, berriz, itxita izango da, baita zapatuetan ere.

Abuztuan, goizez bakarrik

Udako ordutegi horren barruan, bestalde, abuztuan ere aldake-

tak izango dira. Izan ere, abuztuaren 1etik 29ra bitartean goizeko jarduna bakarrik izango du Udal Bibliotekak, ordutegi honekin: 09:30etik 14:30ak arte.

Eta abuztu osoan eta irail-leko lehen bi asteetan, zapatuetan itxita segituko du; hain justu, irailaren 15-20ko astean bueltatuko da ohiko ordutegira (10:00-20:30ak arte, eten barik zabalik).

Bestalde, bitarte horretan, egutegiz hainbat jaiegun tokatzen direla-eta, kontuan hartu behar da egun hauetan itxita izango dela Udal Biblioteka: uztailaren 25ean eta 31n eta abuztuaren 15ean, hain justu.

Auzo-konposterako hiru gune berri egokituko dituzte, etxolekin

U.M. | ARRASATE

"Auzo-konpost proiektuan parte hartzeko eginiko eskaerei erantzuteko asmoz", hiru gune egokituko ditu Udalak zeregin horretarako: Maitena-Larragainen bat (Malbinak), Monterongo parkearen aurrean beste bat eta Musakolako kiroldegia aurrean hirugarrena. 17.500

euro pasa behar dira guneok egokitzeko. Eta Udalak dirulaguntza eskaera egin dio Gipuzkoako Diputazioari. Erantzunaren zain dago.

"Kudeaketa eta emaitzen aldetik eraginkorragoak" direlakoan, konpost-gailu txikiak jarri beharrean etxolak jarriko dituzte gune horietan.

TARIFA FINKOAK INFORMATIKAN

- Word.
- Mekanografia.
- Access.
- Sistema Eragileak.
- Power point.
- Excel.
- Internet.

IRAKASLEEN FORMAZIOA

Irakasleen formatzailea. (Lanbide prestakuntzara edo etengabeko prestakuntzara zuzendu nahi duten profesionalentzako ikastaroa.)

INGELESA

- Azterketetara prestatzeko ikastaro trinkoak.
- Pet
- First
- Advanced
- Ingelesa bigarren hizkuntza daukaten Irakasleentzako Didaktika eta Metodologia.

ESKOLA PARTIKULARRAK

- LMH / DBH
- Batzilergoa
- Enpresa ikasketak
- Ingeniaritza

Infomazio gehiago: 943793533
bastida@bastida.es
www.bastida.es

Aste barruan izan arren, jaiak jendetsuak izan dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Amaitu dira sanjuanak. Jaietako egun ofizial guztiak aste barruan izan badira ere, ekitaldiak jendetsuak izan dira orokorrean. San Juan bezperan txupinazoak iragarri zuen jaien hasiera, eta, ohi bezala, kuadrillek girotu zituzten festetako lehen orduak.

600 lagun inguru elkartu ziren Uarkapeko herri bazkarian 70 kilo paella jateko; bazpo jan zuten, makala lehen saiakeran igo zuten -eta. Ondoren, klasiko diren errementari-dantza, San Juan sua eta danborrada ohi bezain jendetsuak izan ziren, eta baita jaietako lehen entzierroa ere.

'Zeuk in zeuk jan': 500 lagun

San Juan egunean kiliki eta erraldioen erakustaldiak jende asko erakarri zuen, eta baita Arrasate Musikalek Amaia antzokian eskaini zuen kontzertuak ere –euri arriskuagatik ez zen Monterronen egin–. Hilaren 25ean, Eguzkilaruren bisitarekin haurrak izan ziren

protagonista, eta aurten bereziki nabarmendu beharreko ekintza izan da, zalantza barik, *Zeuk in zeuk jan* herri bazkaria. 500 lagun elkartu ziren eta jendea kanpoan geratu zen; Portaloi ondoko plaza txikia geratu da. Gauean, festak eztanda egin zuen Zea Mays eta Gatiburen kontzertuarekin.



Jaiei hasiera emateko txupinazoa.



Zeuk in zeuk jan herri bazkarian 500 lagun inguru elkartu ziren.



Eskoziarra, danborradan.



Gazte kuadrillek makala lehen saiakeran igo dute aurten.



Errementari-dantza San Juan suaren bueltan, Herriko Plazan.



Errekortadoreen erakustaldi guztietan bete zen Laubideko zezen-plaza.



Umea kiliki bat musukatzen.



Lehen entzierroa amaitu berri.



Apar jolasak, txikiaren gozamenerako.



Dantzariak zinegotzien aurrean, San Juan eguneko ohorezko aureskuan.



Ekainaren 25ean Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunak goraino bete zuen Monterron parkea.



Mikel Goñi pilotaria.



Zea Mays eta Gatibuk bete zuten txosnagunea hilaren 25ean; irudian, Gatibu.



Makal txikiaren igoera. | ARGAZKILARIAK: IMANOL SORIANO, IMANOL GALLEGO, MAIALEN TORRES, SERGIO AZKARATE, J. B.



Libre plataformako kideak, martitzeneko agerraldian. | LIBRE

Bergarako Libre plataformak "elkartasun keinuak" eskatu ditu Plazaolaren alde

28 gazteren kontrako epaiketa salatzeke hainbat ekintza antolatu dituzte

MIREN ARREGI | BERGARA
Aitziber Plazaola *Xibo* bergararren eta beste 27 gazteren kontra irailean hasiko den epaiketa salatu eta 28 kide horiei elkartasuna adierazteko herrian egingo diren deialdietan parte hartzeko gonbidapena egin du Bergarako Libre plataformak. Fiskalak sei urteko kartzela zigorra eskatu du Plazaolarentzat eta gainontzeko 27 kideentzat, Segiko kide izatea leporatuta. Libre plataformak salatu du haren aurkako froga bakarrak "torturapean burututako kideen

inkulpazioak, hainbat bileraren jarraipenak eta etxean aurkitutako kamisetak eta abar direla". Gaineratu dute "zentsugabeko epaiketak izugarritzko kostu ekonomikoa" eta "bizitza pertsonalaren haustura" dakartzala.

Hainbat ekintza
"Taldeka, bakarka, kamiseta laranjaekin...". Sare sozialetara argazkiak igotzeko dei egin dute, batetik. Horretarako, *#28akLIBRE* eta *#xiboLIBRE* traolak erabiliko dira. Gainera, uztailaren 3an, 4an, 5ean

eta 6an kalean argazkiak aterako dituztela iragarri dute; nork bere argazkiak atera eta *bergaralibre@hotmail.com* helbidera bidaltzeko dei ere egin dute. Hori bakarrik ez, San Martzialetan zapi laranja eramateko dei ere egin baitute: zapiak uztailaren 3an, 4an eta 5ean ipiniko dituzte kalean salgai. Azkenik, uztailaren 8an, 19:30ean, Irizar pasealekuan egingo den "elkartasun asanbladan" parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak. Egoeraren gainean berba egin eta ideiak batzea da batzar horren helburua.

Goizeko zazpi eta erdietan igoko dira erromesak San Martzialera letania errezatuz, astelehenean

M.A | BERGARA
Ekainaren 30a da San Martzial eguna, eta, urtero moduan, Santa Marina parrokiatik aterako dira letania errezatuz erromesak San Martzialera. Santa Marinako kanpaiek iragarriko dute 07:00etan igoera eta ordu erdi geroago abiatuko dira erromesak. Bada, San Martzialen meza egingo dute, eta, horren ondoren, txokolatea eskainiko dute San Joxepe erretiratuen elkartekoek.

Erromeria uztailaren 6an
San Martzialgo erromeria, berriz, uztailaren 6an egingo da. Egun osoko jaia antolatu du Udalak, beti bezala, egun horretarako, baina aurreko egunean ere izango da zertaz gozatu: erraldoi eta buruhandien kalejira egingo da uztailaren 5ean, 18:30ean, eta Bergarako Orfeoiaren eta Oñatiko Abesbatzaren kontzertua ere egongo da egun berean, San Pedro parrokian, 19:00etan.

Koru Parrokialaren eta Musika Bandaren kontzertuak etzi

Musikaz gozatzeko aukera ederra izango da San Pedro egunean. Batetik, Bergarako Koru Parrokialak, haren sorreraren lehenengo urteurrenean, bi pieza eskainiko ditu San Pedro parrokian egingo den hamaketako meza nagusian: Perosiren *Misa Pontificalis* eta Eslavaren *Tu es Petrus*. Gainera, Bergarako Udal Musika Bandak Espoloian egingo du kontzertua, 12:30ean. Aurretik, 11:30ean, kalejira egingo dute.

Jardunen udalekuetan izena emateko aukera uztailaren 15era arte

Irailaren 1etik 4ra bitartean Larraulera irteera antolatu du Jardun euskara elkarteak. Irteera bereziki dago zuzenduta oraingo ikasturtean euskara errefortzuetan ibili diren Lehen Hezkuntzako ikasleei, baina baita gainontzekoei ere. Irteeraren helburua da ikasturtea hasi aurretik "euskarazko hizkuntza joerak berreskuratzea". Uztailaren 15era arte eman daiteke izena Errotalde jauregian.

Aurten ere bedeinkatu dituzte lore sortak

Martitzenean, San Juan egunean, eman zieten bukaera jaiei Bergarako San Juan auzoan. Egun hartan egin zituzten meza nagusia eta baita, azken urteetako ohiturari jarraituz, erramu eta ortu lehiaketak ere. 80 urtetik gorako auzotarrak omendu zituzten, eta, zelan ez, salda eta txorizoa ez ziren falta izan.



MIREN ARREGI

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BEHEKO
TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Kayak Taberna

Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Lau kategoriatako finalak, pilotako Udaberri txapelketan

Mutilek eskuz eta neskek palaz jokatu dituzte ikasturteari amaiera eman dioten finaleko partiduak, Bergarako Udal Pilotalekuan

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Bergarako pilota eskolak Udaberri txapelketako finalekin eman dio amaiera aurtengo ikasturteari. Joan den egubakoitzean jokatu zituzten partiduak, Udal Pilotalekuan. "Partidu politak ikusi ditugu eta txapelketari bukaera ona eman diogu", adierazi du antolatzaileak, Reyes Azkoitiak.

Lau kategoria

Benjaminen kategorian, esaterako, hiru final jokatu zituzten, maila bakoitzeko bana. Hala, C mailan, Losadak eta Agirrebeñak 16-10 irabazi zieten Rinconi eta Alberdiri; B mailan, Larrañagak eta Labaienek 16-11 Lazpiurri eta Garitanori; eta A mailan, Pereirak eta Olabarrietak 16-10 Etxanizi eta Gili.

Alebinen kategoriako B mailan, Peñin eta Aranburu izan ziren nagusi Zubizarretaren eta Bolunbururen aurka, 16-7.



Txapelketako finalak jokatu zituzten pilotariak. | BERGARAKO PILOTA ESKOLA

A mailako finala, berriz, Mendizabal-Macias bikoteak jokatu zuen Roige-Ibarra bikotearen kontra. Partidua lehen bikotearendako izan zen, 18-10. Infaniletan, Etxaniz-Moral bikoteak

16-18 galdu zuen Gartzia-Gallastegi bikotearen kontra.

Neskek palan jokaturakoan, berriz, Guridik eta Murgizuk 18-16 irabazi zieten Agirrezabali eta Arenatzari.

Dikar enpresako kalitate zuzendariak saria jaso du Elgoibarren

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Bergarako Dikar enpresako kalitate zuzendari Iñaki Sanchez-ek ikasle ohi aipagarriaren saria jaso du Elgoibarko Makina Erreminta Institutuko sarien 12. edizioan. Joan den astean jaso zuen saria Sanchezek. Sari

banaketa egiteaz gain, institutu horretako heziketa zikloetako 82 ikasle ere jaso zituzten diplomak. Iker Sanchez bera ere ikastetxe horretako ikasle izan zen. Fabrikazio Mekani-ko Diseinu ikasketak egin zituen, hain zuzen.



Iñaki Sanchez saria jasotzen. | EDURNE BILBAO

Helduen Heziketa Iraunkorrean izena eman nahi izanez gero, astelehena da azken eguna

Hiru matrikula epe zabaldu dituzte Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroan. Lehena astelehena arte dago zabalik eta bigarren iraileko lehen hamabostaldian egongo da. Argazki bat, Nor-tasun Agiriaren fotokopia eta tasa-ordainketaren agiria eraman behar dira. Hirugarren aukera urtarrilean egongo da.



MARIAREN LAGUNDIA

Elikagaien Bankua handitzen

Mariaren Lagundia ikastolan Bokata Solidarioaren Eguna ospatu zuten maiatzean. Hezkuntza komunitate osoaren parte hartzeari eta inplikazioari esker lortutako diruarekin (guraso, ikasle, sukaldari eta irakasle) umeendako elikagaiak erosi ahal izan dituzte. Batez ere, haurrentzako esnea, zerealak eta *potitoak* erosi dituzte. Bergarako Elikagai Bankura eraman dituzte, haiek bana ditzaten.

Aranzadik ere, agur ikasturteari

Astelehenean, San Juan bezperan, egin zuten ikasturte bukaerako festa Aranzadi ikastolan. Ohi den moduan, kantuan eta dantzan egin zuten, horretarako propio prestatutako abesti eta koreografiekin. Ikasleek ez ezik, irakasleek eta gurasoek ere parte hartu zuten ekitaldian. Azken horiek, ekitaldirako aproposak ziren kamiseta zuriak eta kapelak soinean zituztela. Uda ondo pasa dezatela, ba, denek!



ENEKO AZKARATE

Mujika
gozotegia



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako esne-gain eta marrubi izozkiak

Artealea 3 - Tel.: 943 76 10 34

ETXAGI
JATETXEA

- Patata-tortillak
- Oilaskoak
- Erredondoa
- Harabi-bolak
- 14:30ean bazkaria bertara eramango dugu

Masterreka 8 • 943 76 53 12

AZPEITXI
Jatetxea

- Oilaskoa
- Paella
- Gisatua
- Patata-tortilla
- Erredondoa saltsan

Aranerrek 13 • 943 76 55 00



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bonboiak

San Pedro 9 • 943 76 10 51



UZTAILAK 6, DOMEKA

Ondo pasau San Martzialetan!



Enrique Brunet | Comercial Brunet-eko jabea

"35 urte beteta, gure bezeroei eskerrak eman nahi dizkiegu"

Zelai, baso zein ortuetarako makinak saltzen dituzte Bergarako Comercial Bruneten; 35 urte bete dituzte, eta, hori ospatzeko, ate irekiak egingo dituzte uztailaren 4an, %20ko deskontuaz



Enrique Brunet, Bergarako Comercial Brunet-en aurrealdean.

Zorionak! 35 urte bete dira denda ireki zenuenetik. Ez da ahuntzaren gauerdiko ezutula.

Bai; 25 urte nituela ekin genion negozioari, Zubiaurreko lokal txiki batean. Hasieran, motorrak saltzen genituen. Denborarekin, baina, bezeroak motozerrak eskatzen hasi ziren, eta horrela sartu ginen makineriaren sektorean, eta poliki-poliki gauza gehiago ekartzen hasi ginen. Dagoeneko urte asko dira motorrak saltzeari utzi geniola. Gaur egun, ortu, baso zein lorategietarako produktu edo makinak saltzen ditugu. Denetarik dugu: motozerrak, sasi-garbitzeko makinak, belarra motzeko makinak... Esaterako,

lehenak izan ginen Euskal Herri-
ra alturako kimatzea ekarri
genuenak Basogintza Elkartea-
rekin eta Diputazioarekin bate-

**"Bezeroarentzat
produktu onak
ekartzea da
nahi duguna"**

**"Bezeroak
eskertu nahi
ditugu ate
irekiez"**

ra. Ureztatze automatikoa ere, inork ez zuenean, ekarri genuen, eta gauza bera egurra motzeko makina automatikoa; hori modan jarri da orain. Bestalde, Husqvana marka guk sartu genuen Debagoienean eta Debabarrenean. Orain, Echo markarekin ere bagabiltza. Japoniarra da eta liderra han eta Ameriketako Estatu Batuetan. Hemen ere hala izango dela uste dugu, oso makina onak dituzte-eta.

Beraz, merkatuko azkena eskaintzea duzue gogoko?

Esan daiteke berritzea gustatzen zaidala, besteek ez dutena ekartzea. Hein batean, bezeroari produktu ona eskaini nahi izaten diogu. Izan ere, gure helburua izaten da bezeroa pozik izatea.

Zehazki, zer eskaintzen duzue saltokian?

Marka oneko produktuez gain, gure indarguneetako bat zerbitzu mekanikoa dela esango nuke. Era guztietako konponketak egiten ditugu. Guk saltzen ditugun makinak eta baita beste batzuk saltzen dituztenak ere.

35 urteak ospatzeko ate irekien jardunaldia egin behar duzue.

Bai, uztailaren 4an izango da eta egun horretan dendan saltzen ditugun produktu guztiek %20ko deskontua izango dute, egun osoan. Beraz, egun horretan Bergarako Labegaraietan dugun dendara etortzen diren guztiek deskontu hori aprobe-txatzeko aukera izango dute.

Uste dut nire bezeroentzako probetxuzkoagoa izango dela horrelako eskaintza bat, tortilla-pintxo batera gonbidatzea baino. Azken batean, euren fideltasuna eskertzeko modua da. Baditugu 35 urtez gure bezero izan direnak ere.

Zein produktu saltzen duzue gehien?

Sasoiaren arabera izaten da. Esaterako, orain dela gutxi arte motoaitzurak saldu ditugu. Orain, eguraldi onaz, belarra irteten denez, hori motzeko makinak, sasi-garbitzeko makinak edo sega-makinak... Hostoak erortzen hasten direnean, berriz, hai-ze-makinak. Urtaroak baldintzatzen du.



comercial **BRUNET**

%20ko deskontua
produktu guztietan.

Ate irekien jardunaldia uztailaren 4an, ostiralean

ECHO

Europar salduena

Etorri ikustera





Mikel Biain, Leire Egafia, Imanol Biain eta Jose M. Zugasti, Lazarraga parkean egindako prentsaurrekoan | MAIALEN TORRES

Udala: "Errefusa %40 gutxitu da atez atekoaz"

Zero Zabor taldearekin batera lehen urteurreneko ekitaldiak antolatu ditu, "kontzientzia areagotzeko"

M.T./O.E. | OÑATI

Herritarrak zorionduz egin du Udalak atez ateko sistemaren lehen urteko balorazioa. "Oñatiarrek erakutsitako ardura eta erantzukizuna da azpimarratu gura dugun lehenengo gauza. Ohitura aldaketa guztiek sorrazten dituzte beldur eta erresistentziak, baina lehen momentutik jakin izan dugu tamainako erronkari tamainako erantzuna ematen", adierazi zuen eguazteneko prentsaurrekoan Leire Egafiak, Ingu-rumen zinegotziak.

Datu asko

Hainbat aldetatik egindako balorazioaren datuak ere eman zituen

udal ordezkariak. Hala, azaldu du atez atekoa martxan jarri aurretik birziklapen maila %23 ingurukoa zela eta sistema berriarekin datu hori %79ra igo dela. "Gainera, garbigunera eramaten diren hondakinak kontuan izanez gero, %82tik gorako bilketa maila batera iritsiko ginateke", azaldu du Egafiak. Atez ate biltzen diren hondakinak eta beira hartu dituzte kontuan datuak ateratzeko, eta industria, komertzio, landa lurak eta herritarren bilketak sartu dituzte. Errefusaren sorrera ere %40 inguru murriztu dela aipatu du.

Bestetik, alde teknikitik hobetu beharreko puntuak identifika-

tzen joan direla ere aipatu zuen Egafiak, eta "etengabeko hobe-kuntza izan behar dela oinarri" gaineratu. Atez atekoak hondakinen bilketara bideratutako gastua %25 igotzea eragin duela ere aipatu zuen, baina diru hori inbertsioetara bideratu dutela ere argitu zuen: "Zintzilikarioak jartzeko, kamioi berriak erosteko eta Arrasaten eta Bergaran laster jarriko diren edukiontzia erosteko, adibidez". Eta gaineratu zuen: "Kontuan izan 2013ko ekarpenetatik 213.000 euro inbertsioetara bideratu direla eta 2010ean, 17.500 euro besterik ez".

Zenbait herritarrek azkenaldian edukiontzia jasotzeko ordu-

tegia ez dutela behar bezala errespetatzen ere ikusi du Udalak. Udalak, baina, ez du ordenantza aplikatu gura eta isunak jartzen hasi, baina argi du zer bait egin beharra dagoela arazo hori konpontzeko. Beharbada, kanpaina bat jarriko dute martxan laster.

Ura, pitxarretan

Ostalaritzako hondakinak murrizteko kanpaina bat ere egingo du Udalak. Iturriko uraren kontsumoa bultzatu gura da horrekin, botilako uraren ordeiz. "Neurria, baina, aukerakoa izango da; ez da aplikatuko bezeroek barran eskatutako botilen kasuan", zehaztu du Ingu-rumen zinegotziak.

EGITARAUA

UZTAILAK 1

Zinema: *Trashed* filmaren emanaldia. Doan. Zuzendaria: Jeremy Irons. Zinema aretoa, 19:00etan.

UZTAILAK 2

Hitzaldia: Juan Carlos Alduntzin eta Iñaki Errazkin etorriko dira. Kultura etxean, 19:00etan.

UZTAILAK 3

Ipuinak eta tailerrak:

Ipuin kontalariak eta umeendako birziklatze tailerrak.

Foruen plazan, 17:30etik aurrera.

UZTAILAK 5

Irteera: Lapatzeko konpostatze plantara bisita, Azpeitira. Joan gura duenak uztailaren 3a aurretik eman behar du izena udaletxeko sarreran, 07:15etik 21:00etara bitartean.

Postetxe aurrean, 10:00etan. Itzulera, 14:00etan.

UZTAILAK 6

Auzolana: Jaturabe inguruan dagoen Araotzeko kontrol gabeko zaborte-garbitzeko auzolana. Ondoren, bazkaria Araotzeko auzo etxean. Joan gura duenak asteazken zehar herrian egingo diren ekitaldietan eman dezake izena. Foruen plaza, 09:00etan.

Oharra: Lapatzera edo Araotzen egingo duten bazkarira joateko, posta helbide honetan ere eman daiteke izena: marrazola@oinati.net

Trautiren urteko jaia ospatuko dute bihar

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Trauti-Hesirik Gabe elkarteak urteko jaia egingo du, bigarren, bihar goizean Foruen plazan. "Elbarriok ditugun zailtasunak zeintzuk diren eta gure egurekotasuna erakusteko eguna izango da. Horretarako, gorpildun aulkiak ekarriko ditugu, jendea eseri eta ibil dadin. Txakurren erakustaldia ere egongo da", aurreratu du elkartearen kide Rafael Kortabarriak.

Elkartearen bazkide egiteko aukera ere egongo da, kideen eskaerak indar handiagoa izan dezaten. "Mahaitxo bat jarriko dugu, informazio mahai bat. Bazkide egin gura dutenen datuak ere hartuko dira hor. Bost euroren truke izan daiteke edonor Trautiko bazkide. Joan den urtean, esaterako, 60 bazkidetik gora egin genituen egun horretan", dio Kortabarriak.

Kanposantuko bidea

Gaur, egubakoitza, egingo du elkarteak urteko batzar orokorra. Urte ona izan dela dio Kortabarriak: "Udalarekin harreman ona dugu, elkarlean gaude. Kanposantu barruan, esaterako, plataforma elektrikoa jarri da, hilobiak ikusterako joateko. Orain, sarbidea, kanpoko aldea, konpondu gura dugu. Bestalde, San Lorentzoko irisgarritasun proiektua ere erakutsi digu, gure iritzia emateko".

400 erretiratu baino gehiago doaz domekako bazkarira

Urteko bazkaria egingo dute herriko erretiratuek domekan, Zubikoan. Horrek emango dio amaiera aurtengo Jubilatuen Asteari. 435 erretiratu inguruk elkarrekin bazkalduko dute. Aurretik, zapia eta txapela jasoko dute udal ordezkarien eskutik Miren Arrazolak (95 urte) eta Victor Lopez de Ocarizek (92). Pake Lekuk saria emango die.

1964an jaiotakoek bazkaria egingo dute uztailaren 12an

1964an jaiotako oñatiarrek kinto bazkaria egingo dute uztailaren 12an. Urriagaitzat jotzen egingo dute. Joan gura duenak izena eman eta 30 euro sartu beharko ditu Kutxabanken zabaldu duten kontu korronte batean. Hau xe da zenbakia: 2095 5111 19 113888321. Uztailaren 2a da azken eguna.



UDAL EUSKALTEGIA

Gomiztegira irteera, kurtsoari agur esateko

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiko ikasleek ere bukatu dute aurtengo ikasturtea. Afaria egin zuten joan den egubakoitzean. Eguaztenean, berriz, Gomiztegiko artzain

eskolara egin zuten irteera. Ikasturteko azkena. 28 lagun joan ziren, Batis Otaegirekin hango instalazioak ezagutu eta gazta nola egiten duten ikustera.

Denboraldiari agur, sari banaketarekin

Aloña Mendiko futbol sailak entrenatzaileen eta jokalarien lana goraipatu du urteroko afarian

IRATI GOITIA | OÑATI

Aloña Mendiko futbol sailak urteko batzar nagusia egin zuen egubakoitzean. Eta ostean, afaria eta sari banaketa egin zituzten.

Sarituez gain, beste bi protagonista ere izan ziren: batetik, Andoni Azkargorta, Lehen Mailan aritzeko fitxatu baitu Eibarrek; bestetik, Jon Aizpeurrutia, kade-te mailako entrenatzaile onenaren saria jaso baitu Gipuzkoako Futbol Federazioaren eskutik.

Azken bi urteetan Aloña Mendiko bi kidek talde garrantzitsutara salto egin dutela azpimarratu zuten batzarrean (Aitor Orue-tak iaz Alavesera eta Andoni Azkargortak aurtan Eibarre-ra). Zuzendaritzatik honako hau adierazi zuten: "Aloña Gipuzkoan erreferente da eta lan ona egiten ari garen erakusle da".



Aloña Mendiko futbol sailak saritutako jokalariai. | ANTTON GARMENDIA

Andoni Ugarte Sansek fitxatu izana pozgarria dela ere esan zuen Jabi Azpiazu presidentek.

Zuzendaritzatik gogora ekarri zuten Ohorezko Erregional mailako taldean baja asko egon direla eta denboraldi berriari gazte mailako taldetik datozenekin eta geratzen direnekin egingo diotela aurre. Hala ere, harrobiko hainbat taldetarako laguntza eskatu zuten, datorren denboraldirako entrenatzaile eta laguntzaileen beharra dutelako.

Balantze ekonomiko positiboa

Datu ekonomiko garrantzitsuen berri ere eman zuten batzarrean. Denboraldia 10.381 euroko irabaziekin amaitu dute. Horrela, presidenteak adierazi zuen ez direla kuotak eta partiduetarako sarre-ren prezioak igoko.

Sarituak

OHOREZKO ERREGIONALA
Kemenari: Joseba Irizar.
Erregulartasunari: Gaizka Zelaia.
Goleatzaile nagusia: Asier Ugarte (13 gol).
Kiroltasunari: Endika Ruiz.
Aipamen bereziak: Iker Olalde, Iñigo Zubia, Iñigo Idigoras, Aritz Garmendia eta Ismael Egaña.

OHOREZKO GAZTEAK
Asier Mantxola.

GAZTEAK
Nahia Barrena.

GAZTEAK
Beñat Elorza.

KADETEAK
Saioa Varela.

KADETE A
Joseba Anduaga.

KADETE B
Eric Martin.

INFANTILAK
Uxue Osinaga.

INFANTILAK
Iñigo Gorostidi.

INFANTILAK, TXIKIAK
Beñat Guridi.

ALEBINAK
Jon Kortabarria.

AIPAMEN BEREZIA
Jon Aizpeurrutiari kadeteen 1. mailako taldeak lortutako txapelketagatik eta GFFk emandako sariagatik.



Aloña Mendiko mendi saileko kideek Ganbora eginiko irteera. | J.M. IBARRONDO

Mendi irteera Estanes lakura eta Bisaurinera

Bi ibilbide antolatu ditu Aloña Mendiko mendi sailak uztailaren 19rako eta 2Orako, Pirinioetan

I.G. | OÑATI

23 lagun elkartu ziren Aloña Mendiko mendi sailak Ganbora egindako azken irteeran. Hurrengorako, asteburuko txangoa prestatu dute.

Estanes lakua eta Bisaurin

Bi irteera egingo dituzte. Lehen egunean, uztailaren 19an, GR11-ko etapa bat egingo dute, Candanchuko pistetatik abiatuta. Aspekto pasabidetik Estanesko lakuraino joango dira. Handik Oliboneko zirkurantz jo eta Plana Mistresatik Lizarako aterpetxera jaitsiko dira. 18 kilometroko ibilbidea da, 700 metroko desnibelarekin. Sei-zazpi bat orduan egiteko modukoa dela zehaztu dute mendi sailetik.

Hain zuzen, Lizarako aterpetxean pasako dute gaua eta bertan afaldu eta gosalduko

dute. Mendi sailetik ohartarazi dute zakua eraman behar dela eta bi egunerako beharrezko guztia motxilan eraman beharko dela.

Bigarren egunean, uztailaren 20an, berriro igoko dira Plana Mistresara, Secus aldera, Bisauringo ipar aurpegitik. Jaitsiera bide normaletik egingo dutela zehaztu dute, Foraton leporaino, handik Gabarditoko aterperaino heltzeko. 15 kilometroko ibilaldia da, 1.2000 metroko desnibelarekin.

Interesatuak Aloña Mendi tabernan eman dezakete izena uztailaren 8tik 15era. Bazkideek 60 euro ordaindu behar dituzte (langabeek 50) eta bazkide ez direnek 70 (langabeek 50). Bazkideek izango dute preferentzia eta derrigorrezkoa da federatuta egotea.

San Pedro eta San Juan jaiak, herriko lau auzotan

I.G. | OÑATI

Jaiak ospatuko dituzte herriko lau auzotan (Torreauso, Zubillaga, Garagaltza eta Koixkar) aste-buru honetan. Horrenbestez, ez da festa girorik falta izango gaurtik domekara bitartean herriko hainbat txokotan.

Torreauso

Gaur 20:00etan jaurtiko dute etxafuegoa Torreauson, eta ostean, txakolin eta gazta dastatzea izango dute. Bihar izango dute, besteak beste: trikitilariekin kalejira baserriz baserri (11:00etan), mus txapelketa (16:30ean), pailazoak

(17:30ean) eta erromeria (19:30ean). Domekan, krosa (11:00etan); meza (12:30ean); luntxa dantzari, bertsolari eta trikitilariekin; (13:00etan) eta auzo bazkaria Etxe Aundin (14:30ean).

Zubillaga

19:30ean jaitsiko da Pello basurdea auzora eta orduan egingo du eztanda festak. 20:00etan barbakoa egingo dute eta 22:00etan hasita umore gaua. Biharko ere ugari dira antolatu dituzten ekitaldiak;

esaterako: haur jokoak pilotalekuan (12:00etan), mus txapelketa (17:00etan), Irrien Lagunak (17:00etan), txokolate-jana eta buruhandiak (18:30ean), diskofesta DJ Amaiarekin (19:30ean), mozerro lehiaketa... Domekan, meza (11:00etan), omenaldia eta dantzariak (12:45), bertsoak (19:00etan), besteak beste.

Garagaltza

San Juan ermitaren inguruan bilduko dira Garagaltzako auzo-

tarrak sanjuanak ospatzeko. Bihar 13:30ean ekingo diote festari etxafuego jaurtiketarekin. Gero, bazkaria egingo dute ermita inguruan, eta arratsaldean, soinu-jolearekin dantzaldia, mus txapelketa eta haurrentzako jolasak izango dituzte. Domekan meza izango dute 12:00etan eta ondoren, luntxa.

Koixkar

Meza izango dute domekan, 11:00etan. Gero, salda eta txorizoa guztientzat, trikiti doinuez.

Txantxiku Ikastolakoak, Londresen

Batxilergoko lehen mailako ikasleek sei egun pasa dituzte Londresen. Ingelesa praktikatzear gain, hiria ezagutzeko aukera ere izan dute; besteak beste, bisita gidatua eta Tamesis ibaian zeharkaldia egin dituzte. Hilaren 19an joan ziren eta astelehen honetan itzuli dira.



TXANTXIKU IKASTOLA

Ikasle Mugimenduak antolatuta III. Ikasle Eguna dute gaur

Egun osoko egitaraua III. Ikasle Egunerako. 12:30ean ekingo diote festari triki-poteoaz. Ondoren, 14:30ean, bazkaria izango dute berdura azokan (3 euro) eta 16:30ean jokoak. Musika ere izango da: 18:30ean, El Trio Calavera, Antixenan; 19:00etan, triki-poteoa; eta 21:00etan, kontzertuak institutu parean.

Kubora ongietorri festa egingo diete LHko 2. mailako gaztetxoei

8 urte betetzean gaztelekuko sotokotik kubora pasatzen dira haurrak. Eta, hain zuzen, hemendik aurrera Kuboko erabiltzaile izatera pasako direnei ongietorri festa egingo diete domeka honetan kuboan bertan, 17:00etatik aurrera. Merienda izango dute, eta baita DJ Banjoren emanaldia ere.

Auzo-konpostaren balorazio batzarra egingo dute uztailaren 1ean

M.A. | ARETXABALETA

Txarapea ibilbideko auzo-konpost guneari, Aretxabaletan dagoen bakarrik, urtebete egin du. Eta horren gaineko balorazioa egin gura dute Udaleko ordezkariak. Lore Martinez Axpek, Ingurumen zinegotziak, hauxe jakinarazi du: "Proiektu pilotu honen inguruko balorazio bat egiteko beharra ikusten dugu, eta, bide batez, zalantzak, esperientziak eta bestelakoak konpartitzeko erabil-tzaileen artean".

Hori horrela, datorren martitzenean, uztailak 1, 18:30ean, Arkupe kultura etxeko bigarren solairura joateko gonbidapena dute auzo-konposta egiten duten herritarrek.

Tailer praktikoa gunean

Batzar hori teorikoa eta praktikoa izango dela iragarri du Martinez Axpek: "Lehenengo, aurkezpen txiki bat izango da, konposta egiterakoan izaten diren ohiko arazoak ezagutzeko eta identifikatzeko". Eta ondoren, tailer praktikoa egingo dute auzo-konpost gunean, Txarapean. Ondoren kontuak landuko dituzte bertan: arazoak ezagutu eta konpondu; maneia; konposta atera eta erabili; konpost motak; hobari-riren gaineko argibideak; eta zalantzak eta galderak.

Auzo-konpostaren funtzionamendua egokia izan dadin "ezinbestekoa" dela elkartzea jakinarazi du zinegotziak.



Txarapea ibilbidean dagoen auzo-konpost gunea. | M.A.

The Funes Troup taldea 'Zirkoa' antzezlanarekin dator eguaztenean

Kaleko lau ikuskizun izango dira uztailaren

M.A. | ARETXABALETA

Uztailaren 9an antzezlanak dira protagonista Kultura Sailak gertatutako egitarauan, baina, oraingoan, kaleko antzezlanak. Datorren eguaztenean The Funes Troup hirukoteak eskainiko du ikuskizuna Herriko Plazan, 19:00etan. Gorka Pereira, Rodrigo Lacasa eta Xabi Larrea aktoreek umore absurdua erabiliko dute egoera dibertigarriak kontatzeko, eta, akrobazia saltoekin, dantza zoroekin eta trebetasun harrigarriekin *Zirkoa* ikuskizuna borobilduko dute.

Trapu Zaharren 'Konga'

Uztailaren 9an Trapu Zaharra talde ezagunak *Konga* ikuskizuna ekarriko du Durana kalera (19:00); hain zuzen ere, ertzain baten istorioa, erlijiosoen ordena batean sartzeko uniformeak aldatzea erabaki duen ertzainaren istorioa.

Hilaren 16an, oster, Tiritirantes antzezlan eta zirku konpainiak *Hankaz gora* eskainiko du Durana kalean; malabarismoak, akrobaziak, sua eta umorea bat eginik. Eta 23an, Malas Compañías taldea *Txatarra* lanarekin etorriko da, Herriko Plazara (19:00).

Bidegorriaren proiektua idazteko laguntza jasoko dute

Kurtzebarri eskolako zatiari dagokio, baina lanak, oraingoz, ez dira egingo

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Herriko bidegorriaren proiektua idazteko diru laguntza iragarri du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Kurtzebarri eskolatik pasatzen den bidegorri tartea aldatzeko izango da, baina bakarrik proiektua idazteko. Horrek 24.000 euroko aurrekontua dauka, eta Aldundiak 7.920 euroko laguntza bideratuko du.

Bidegorria errepiderantz

Kurtzebarri eskolako jolastoki erditik eta pilotaleku albotik pasatzen da orain bidegorria, eta hori desbideratzea izango litzateke asmoa. Eskolaren aurrealdera, errepiderantz ekarri gura da bidea, bertan dauden aparkaleku batzuk kenduta. Hori egin aurretik, baina, alkaterearen asmoa da herritarrei azaltzea proiektua, eta haien oniritzia jasotzea.

Dena den, proiektua idazteak ez du esan gura lanok lehenbailehen egingo direnik. Hala jakinarazi gura izan du Ana Bolinaga alkateak. Izan ere, obra horrek 400.000 euro inguruko kostua izango duelakoan dago: "Eta Udala orain ez dago horri aurre egiteko moduan".



Kurtzebarri eskolako jolastokirantz doan bidegorri tartea. | M.A.

Gurasoen inplikazioa

Bestalde, lantokira egin beharreko joan-etorriak oinez edo bizikletaz egitea helburu duen proiektua babestu dute Oñatiko, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko udalek orain astebe inguru, eta urrian abian

jarriko dute Foru Aldundiarekin batera. Hori horrela, "gurasoen inplikazio pedagogikoa" behar dela uste du alkateak; izan ere, bai irakasle asko, bai guraso asko seme-alabekin eskolara autoetan joaten direlakoan dago.

Ohorezko bazkide izendatu du UDAk Hector Prieto

Batzar orokorra egin du kirol elkarteak, eta diru kontuak ondo daudela jakinarazi diete bazkideei

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletako kirol elkarteak pozik dago egindako denboraldiarekin: "Kirol arloan emaitza oso onak izan ditugu, baina garrantzitsuena da kirolari kopuruaren igoera", jakinarazi du Adrian Merino presidenteari.

Joan den egubakoitzean egin zuten batzar orokorra eta bazkide asko elkartu ziren. Diru kontuak ondo daudela jakinarazi zieten, "Bertikal babesle berriak erraztuta eta ohiko babesleek

hutsik egin barik". Ekintzaz betetako egutegia izan dutela gaineratu, eta oraindik egiteko dituztenak aipatu zituzten: moda desfilean parte hartu; saiheski dastatzea; eta zazpiko futbol txapelketa uztailaren.

Datorren denboraldian berrikuntza nagusia futbol eskolako umeen inguruan izango dela iragarri zuen Merinok: "Umeei beste kirol batzuk egiteko aukera eman gura diegu elkarteak beste sailen bitartez". Izan ere,

futbol eskola bukatutakoan futbol utzi behar izaten dute askok, eta, hain justu, beste kirol batzuekiko afizioa sustatzea izango da elkartearen helburua.

Ohorezko bazkidea

UDAKo zuzendaritzak erabaki du ohorezko bazkideak izendatzea hemendik aurrera, eta lehena Hector Prieto da. "Pasion Celeste blogaren bitartez emandako laguntzagatik (partiduen kronikak, UDAREN historiako kontuak...). Eredua guztiontzat, fenomeno hutsa!", zioen Merinok.

Bestalde, Liberland grabatutako bideoa eta argazkiak bota zituzten bertara bidalitako ekipamenduak erakusteko: "Bazkide batzuek esan ziguten UDAKoak izateaz oso harro sentiarazi genituela", zioen presidenteari.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Poltsa konpostagarriak saltzeko merkatarien laguntza gura dute

Ontzi marroiarendako poltsa konpostagarriak Jon harategian eta Mari Merke bazarrean dauzkate salgai, baina Udalak gura du beste komertzio batzuetan ere eskuragarri izatea herritarrek.

Hala, merkatariren batek interesa izanez gero, hondakinen informazio bulegora jo dezala: 943 25 06 82 edo hondakinak.aretxabaleta@debagoiena.com.

Kuadrillen arteko 7ko futbol txapelketa antolatu du UDAk

Uztailaren 19an jokatu dute, Ibarra futbol zelaian, kuadrillen arteko zazpiko futbol txapelketa, hirugarrenez, eta izena 16rako eman behar da, 100 euro ordainduta. Hona bideak: Udaretxabaletako Twitter, Tuenti edo Facebook bidez; udaretxabaletake@gmail.com helbidean; edo WhatsApp bidez, 635 20 64 33.

Patroigintza ikastaroko izen-emate epea uztailaren 3a arte

Patroigintza ikastaro bi eman-go ditu Katalin Antxia aretxabaletarrak uztailaren (biak hamar ordukoak): 7tik 11ra, hastapena; eta 14tik 18ra, hobetzea. Izena emateko epea egunean, uztailak 3, bukatuko da. Mezu bat idatzi behar da hona: modubatmoda@gmail.com. Prezioa 40 euro da, materiala barne.

Andramaixetarako esaldiak aurkezteko azken eguna da gaur

Andramaixak ondo pasatzera gonbidatuz botatako esaldiak aurkezteko azken eguna da gaur, egubakoitza. Udaletxera edo Arkupera eraman behar dira esaldiak, gura beste, gutun-azal batean sartuta; horrek taldearen izena izango du gainean, eta barruan beste gutun-azal batean egileen datuak. Saria 100 euroko bonua da.

FERIXA NAGUSIXA 2014

Zinegotziak soka-dantzan

Herri Egunean egingo dute lehenengoz, eta ondoren, umeeek euskal dantzak egingo dituzte

IRATI GOITIA | ELGETA

Aurten, estreinakoz egingo dute Elgetako zinegotziek soka-dantza. Herri Egunean egingo dute, 13:00etan, Plazabarrenian.

"Beste herri batzuetan ohitura da eta komentatzen egon ginen herrian egitearen ideia", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. Eta honakoa gaineratu: "Gura nuke geratzeko etortzea eta Elgetan tradizio bihurtzea".

Soka-dantzarekin herria omen-du gura dutela ere badio Erostarbek, eta sokara herritarrak gerturatu nahi dituztela: "Aurten herriko elkarteei omenaldia egin gura diegu soka-dantzara aterata, eurak dira-eta Elgetari bizitasuna ematen diotenak".

Zinegotzi guztiak, eskutik

Zinegotzi guztiek hartuko dute parte, bederatzik. "Uste dut herriak eskertuko duela kolore guztietako zinegotziak eskutik helduta plazara irtetea. Desberdintasunak alde batera lagata herriaren ordezkariak elkarrekin irtetea positiboa da. Gainera, jaiak eguneroko kontuak alde batera laga eta elkarrekin jai egiteko ere badira", dio alkateak.

Hilabete batzuk daramatzate entseatzen, egunean dena ondo irten dadin. Hain zuzen, otsaila ezkerro astelehenero elkartu dira. "Esfortzua izan da guretzako, baina herriak merezi du", aitortu du Erostarbek. Irakasle lane-



Iaz umeeek egin zuten euskal dantzen erakustaldia, Mendizaleen plazan. | GOIENA

tan ibili den Irati Kortabitartek prest daudela deritzo: "Nik uste dut dagoeneko ikasita dutela egin beharrekoa". Gaineratu du zinegotziak txukun aritu direla. Alkateak zehaztu du asko hobetu dutela, baina ez direla dantzariak. Zailena soka-dantzaren tradizio osoaz jabetzea izan dela esan du alkateak.

Kortabitartek azaldu du urte hasieran zinegotzi guztiek soka-dantzaren nondik norakoak jaso zituztela Oier Araolaza *Dantzan.com* webgunearen arduradunaren eskutik. Hala, han eta hemen egiten diren soka-dantza ezberdinak ezagutu zituzten. Alkateak aurrekua egingo du lehenik, eta haren atzetik zinegotziak nagusienetik gazteenara kokatuta aterako dira sokan plazara.



Zinegotziak soka-dantza entseatzen, kiroldegian. | LARRAITZ ZEBERIO

Euskal dantzak

Iaz euskal dantzak berreskuratu zituzten umeen eskutik, Herri Egunean. "Lehenago egiten zen Elgetan Dantzari Eguna, baina aspaldi galdu zen tradizioa. Urteak dira ez zela haurren euskal dantza saiorik egiten. Gurasoen artean irten zen ideia eta Udaletik hori bideratzen saiatu ginen. Irati Kortabitarterekin eta Xabat Leanizbarrutiarekin egon ginen ea hardura hartuko luketen galdetzeko eta baietz erantzun zuten. Haiei eskerrak oso ondo egon zen eta umeeek euskal dantzekin plaza betetzea lortu zen", adierazi du Erostarbek.

Erakustaldi hark izandako arrakasta ikusita, aurten berrir egingo dute. Horrela, martxo erdialdea ezkerro txikienak ere entseatzen dabilta. Iaz 5 eta 12 urte bitarteko umeeek hartu zuten parte eta, aurten berriz, 5 eta 15 urte artekoak ibiliko dira. Hona-koak izango dira egingo dituzten dantzak: courinta, esku-dantza, xarmantak, txulalai, alunelul, marmutx, gorularien zinta-dantza eta salina-salina.

Jaioberriei harrera

Zinegotziek eta umeeek egingo duten dantza erakustaldiaren aurretik haur jaioberriei harrera egingo diete udaletxean, 12:30ean. Horrela, iazko jaietatik aurtengoetara jaiotakoei egingo diete ongietorria. Laugarren urtez egingo dute ekimena.

Herriko elkarteak omendu nahi dituzte soka-dantzara aterata


5 eta 15 urte bitarteko umeeek euskal dantzak egingo dituzte

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue
elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.*

Ondo pasatu!

AGURRA

OXEL EROSTARBE
Elgetako alkatea



Egin jai bizi-bizi

Badira urte batzuk jaixetako agurra idazten. Hasi gura neuke eskerrak emoten bai aurtengo eta baita azkenengo urtietako jaixak aurrera ataratzeko zuen aletxua ipiñi dozuen danoi. Motza geratuko litzake zerrenda banan-banan hasiko banintza aittatzen. Eskerrik asko danoi!

Egitarauari begiratuta aukera zabala gertatu dau jai batzordiak: dantza, buruhaundi, kontzertu, puzgarri, txaranga, erromerixa, ferixa, bazkari, soka-dantza... Mozorruak, pañueluak, ahotsa afinatzia kanturako, astuak, aspirinak eta bestelakuak norberan kontu dira.

Barritasunen artian dago tradizio bihurtu gura geunken soka-dantzia. Jaixetan soka bardiñian urtengo dogu zinegotzi danok. Dantzan moduan, iritzi desberietako lagunak alkarrekin jardutia ona litzake Elgetarako. Iritzi trukaketiak emaitza hobia izateko balio izaten dau eta sines-tuta nago elgetarrek hori gura dabela: alkarrekin lan egittia Elgeta hobe baten alde.

Edade eta gusto guztietarako dare aukerak jaixetan. Hortik aurrera norberak egiten dittu jaixak bizi. Laga alde batera eguneroko buruko miñak. Egin jai! Egin jai gure artian ez darenak egingo leukien letxe! Etorriko da sasoia alkarrekin jai egitteko! Egin jai euskaraz eta aldamenekua errespetauaz! Ifion zain egon barik bizi jaixak!

FERIXA NAGUSIKO EGITARAUA

EGUENA

MOZORRO EGUNA

3

12:00 Ongietorria BURUHANDIEI plazan.

19:30 KANPAI HOTSA eta etxafuegoak. MOZORRO JAITSIERA Salvador kaleko goialdetik trikitilariekin. Brindisa eta ALKATE TXIKIA izendatzea.

20:00 ERROMERIA Gozo Gozo taldearekin.

20:00 BERTSO-POTEOA gaztetxearen eskutik.

22:00 Herri AFARIA gaztetxean.

23:00 ERROMERIA Gozo Gozo taldearekin.

00:00 LARRAIN-DANTZA.

00:30 ERROMERIA Xero Xiette taldearekin.

BARIKUA

UME ETA ERRETIRATUEN EGUNA

4

11:00 Umeendako PUZGARRIAK.

11:15 SALDA Ozkarbi elkarte aurrean.

13:00 MEZA NAGUSIA.

13:45 ERRETRATUA ateratzea.

14:00 Erretiratuendako BAZKARIA Bolatokian eta Gardokirekin ERROMERIA.

14:00 Umeendako BAZKARIA kiroldegian.

14:30 Gaztetxoendako BAZKARIA gaztelekuan.

15:30 Umeendako PUZGARRIAK.

18:30 Ustekabe TXARANGA eta buruhandiak.

19:00 ZEZENAK.

22:00 DJ FESTA Oihan Vegarekin, plazan.

23:00 ZEZENSUZKOA.

23:30 HESIAN taldearen kontzertua, plazan.



GOIENA

ASTO LASTERKETA | ZAPATUA | OZKARBI AURREA | 12:00 Elgetako XIII. lasterketa jokatu dute.



JOSETXO ARANTZABAL

FERIXA NAGUSIA | DOMEKA | HERRIKO ERDIGUNEA | 09:00 Ganadu erakusketa, artisauak eta makineria eta burdindegiko kontuak elkartuko dira herriko hainbat gunetan.

ZAPATUA

HERRI EGUNA

5

11:15 Esnatzeko DEIA.

11:30 Kuadrillen HAMAIKETAKOA Intxorta elkartearen.

12:00 ASTO LASTERKETA.

12:30 JAI OBERRIE HARRERA udaletxean.

13:00 SOKA-DANTZA. Ondoren euskal dantzak Plazabarrenean.

14:30 HERRI BAZKARIA plazan: paella, ogia eta kafea.

16:00 ERROMERIA Jainaga eta Narbaizarekin.

19:00 ZEZENAK.

20:00 BURUHANDIAK.

20:00 ERROMERIA EGAN taldearekin.

20:30 SARDINA erreka Intxortako Lehoiak lagun-taldearen eskutik.

23:00 ERROMERIA EGAN taldearekin.

23:00 BOLO TXAPELKETA.

00:00 ZEZENSUZKOA. Ondoren, erromeria.

00:00 SKA-REAGGE gaua

DOMEKA

FERIXA NAGUSIA

6

09:00 FERIXA NAGUSIA: ganadu erakusketa, artisauak, makineria eta burdindegiko azoka.

18:00 BURUHANDIAK.

19:00 Gela jauziak KUKAI dantza konpainiarekin.

20:30 TXITXI-BURRUNTZIA.

22:00 KONTZERTU AKUSTIKOA gaztetxean.

GOIKOETXE HARATEGIA



Salvador kalea 1 ELGETA
Tel.: 943 78 82 06

Zorionak! Ondo ibili jaixetan!

JAI ZORIONTSUAK
ELGETAR GUZTIOI!



Recyde-Alfa Deco

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
www.cieautomotive.com



Buruhandiak ere izango dira aurtengo Ferixa Nagusian

Udalekuetako haurrek buruhandiei ongietorria egingo diete aurtun, jaien lehenengo egunean

J.A. | ELGETA

Buruhandien inguruan antolatutako ekimenen artean, berrikuntza nagusi bat izango da aurtengo Ferixa Nagusian. Izan ere, buruhandiei ongietorria egingo diete gazteenek uztailearen 3an, eguna, eguerdiko hamabietan. Udaleku zerbitzu irekien barruko ekimena izango da, eta, festak direla aprobeztatuta, udalekuei hasiera ohi baino lehenago emango zaie.

Jaiek iraungo duten bitartean ez da udalekuen barnean jarduerarik izango, baina eguen eguerdiko ekimenak udalekuei hasiera emateko balioko du. Haurrek eurek prestatutako

ekimena izango da, eta buruhandiek betidanik ikusmin handia sortu dutenez herriko txikien artean, euren saltsan ibiliko dira umeak.

Buruhandiak, egunero

Buruhandien ongietorria ez da izango haien inguruan jaietan egingo den ekimen bakarra. Izan ere, Ustekabe Txaranga-rekin egingo dute bat Ume eta Erretiratuen Egunean, 18:00etan. Herri Egunean ere ez dira falta izango, 20:00etan irtengo baitira Elgetako kaleetan. Domekan ere irtengo dira, 18:00 aldera, Ferixa Nagusiari datorren urtera arte agur esateko.



Buruhandiak Elgetako kaleetan, orain bi urte. | GOIENA



Mozorro jaitsiera, udalbatzako 3 zinegotzi, alkatea eta alkate txikia, iaz. | IMANOL SORIANO

Egueneko jaitsierarekin lehertuko dira jaiak Elgetan

Urtero moduan, mozorrotuta egingo dute elgetarrak jaietako lehen brindisa

JULEN APERRIBAI | ELGETA

Aurtun, uztaileko lehenengo aste bukaeran ospatuko dituzte Ferixa Nagusiko jaiak Elgetan. Eguenean, uztailak 3, hasiko dira festak. Urtero moduan, Salbador kaleko jaitsierarekin izango dute hasiera. Herriko kuadrillak hasita daude mozorroak prestatzen, asko isilean eta ezkutuan.

Kanpaien hotsarekin eta etxafuegoekin hasiko da jaitsiera, eta Elgetako trikitilariak girotuko dute plazarainoko ibilbidea. Plazan, alkate txikiaren izendapena eta brindisa egingo dituzte. Alka-

te txikia, aurtun, Jon Irizar izango da. Eta Irizarrek aginte makila jasotakoan hasiko dira ofizialki jaiak.

Erromeria eta afaria

Gogotsu hartzen dute elgetarrek herriko jaietako lehenengo eguna. Jai batzordeak erromeria antolatu du Gozo Gozo taldearekin, eta gaztetxetik bertso-poteoa iragarri dute 20:00etarako. Afaria ere antolatu dute gaztetxetik; 22:00 aldera egingo dute afari hori gaztetxearen aurreko aldeko zabalgunean.

Gorputzari astindua emateko aukera polita izango dute herriarrek egunean. Gozo Gozo taldea goizaldeko ordu txikiak arte ariko da herriko plazan, eta gaztetxean Zero Xiette taldeak girotuko du gaua. Urteak dira Sorluzeko erromeria taldea Elgetako jaietara etortzen dela.

Ferixa Nagusiko beste klasiko bat guerdiko larrain-dantza da. Urteroko ohiturari jarraituz, aurtun ere dantzan egitera gonbidatuta daude herriarrek. Herriko plazan egingo dute larrain-dantza.



Elgetako Ferixa Nagusia 2014

Uztailak 3, 4, 5 eta 6

Jaixetan euskara ahoan!



Hesian taldeko kideak. | HESIAN

Askotariko musika izango da Ferixa Nagusiko festetan

Doinu tradizionalak, DJak, rocka eta kaleko musika entzungo dira Elgetan

MAIALEN TORRES | ELGETA

Elgetako festetako aurtengo egitarauak askotariko estiloak bildu ditu eta gustu zein adin guztietarako eskaintza prestatu dute antolatzaileek.

Zapatukoa izango da egunik beteena, Herri Egunean goizean goizetik kuadrillak kalera irten-go baitira. Hala ere, barikuak ere egitarau indartsua izango du, erromeriaren doinu tradizionalak DJ festarekin nahastuko baitira Oihan Vegaren saioan. Ondoren, Hesian talde sakandarraren rock eta ska doinu biziak izango dira

plazan. Egunean zehar, trikitilariak eta txaranga ibiliko dira kaleetan, festak girotzen.

Erromeria nagusi

Oinak urratu arte dantza egiteko aukera izango dute elgetarrek festa guztietan zehar. Izan ere, egunean hasita, erromeria izango da egunero.

Bi taldek eskainiko dute emanaldia egunean: Gozo gozok herriko plazan eta Zero Xiette taldeak gaztetxean. Barikuan, Gardokiren erromeriak alaituko du jubilatuen bazkalostea.

Zapatu arratsaldean, Jainaga eta Narbaizak joko dute eta dagoeneko Elgetako festetako klasiko bihurtu den Egan taldea ere izango da, arratsaldeko zortzietan hasita.

Gaztetxeko eskaintza

Gaztetxean ere musika proposamen interesgarriak izango dira aurtengoan. Besteak beste, zaturako Ska Reggae Gaua antolatu dute eta domekan kontzertu akustikoarekin emango diete amaiera festei, txitxi-burruntzia dastatzen duten bitartean.

Haurrentzako eskaintza zabala izango da aurten ere barikuko egitarauan

Urteroko bazkariak eta puzgarriez gain, umeei zuzendutako joko berriak ere egongo dira

M.T. | ELGETA

Mozorro egunaren ondoren, gogoz ekingo diote Elgetako umeei barikuari. Izan ere, haientzako bereziki antolaturiko bazkaria izango dute, urtero bezala.

Herriko haurrek elkartzeko aukera aparta izango dute eguerdiko ordu bietan. Aurtengo bazkaria bolatokian egingo da, plazan egin beharrean, baina, urtero bezala, gurasoek zerbitzatuko dute jana. Oilasko izterrak patatekin eta izozkia izango dira menuan.

Izen-ematea irekia den arren, bazkarira joateko asmoa dutenek txartela erosi beharko dute Julian Markiegiren kioskoan, sei euroren truke.

Gutxi gorabehera, 12 urte arteko umeak biltzen ditu urtero bazkariak. Aurten, ordea, adin horretatik gorakoentzat

ere antolatu nahi izan dute beste bazkari bat, baina ez du arrakastarik izan eta egitasmoa bertan behera geratu da.

Dena den, bazkariak gain, izango da zer egin Elgetako kaleetan, egun osoan puzgarriak egongo baitira.

Puzgarriak eta jokoak

Salbador kalea puzgarritz beteko da barikuan. Gainera, ohiko hiru puzgarriez gain, berrikuntzak izango dira.

Pendulu erraldoian, boloetan bezala arituko dira umeak, eta aurkariak lurrera bota beharko dituzte bola handi baten laguntzarekin. *Diverbike* zirkuitua ere jarriko dute bizikleta-zaleentzat, eta ausartenek surf simulazioko taularen gainean ibiltzeko aukera izango dute. Beraz, dibertsiorik ez zaie faltako haur eta gazteei.



Iazko puzgarrietako bat. | MIREIA BIKUÑA



*Jai zoriontsuak
elgetar guztioi!*



Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97 ELGETA

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!



MAKINA ERREMENTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta

SANPEDROAK 2014



lazko ikuskizunean 75 bat lagunek hartu zuten parte. | IMANOL GALLEGO

Denok batera 'herrixa' elkartuz

Aurten ere herritarrek gertatutako ikuskizuna izango da: etzi, 22:30ean, Gorosarri plazan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Joan den urteotako ikuskizunek izandako arrakasta ikusita, aurten ere eskoriatzarrek sortutako emanaldia ikusteko aukera izango da festetan. San Pedro egunean izango da hori, 22:30ean, Eduardo Gorosarri plazan.

Hirugarren aldia da horrelako zerbait egiten dela. Orain dela bi urteko festetan, *Herri taupadak* izeneko ikuskizuna egin zuten plazan; batukadarekin batera, hainbat herritarrek parte hartu zuten abesten eta askotariko musika tresnak jotzen. Joan den urtean, Marijo Pagaldaik hartu zuen saio hori koordinatzeko lana, eta horren ondorio izan zen *Herrixa munduan eta mundua herrixan*. Kontaktuzun modukoa aurkeztu zuten

orduan; beste herrialdeetatik etorritako eta kanpora joandako eskoriatzarren arteko keinu modukoa izan zen hori, askotariko kulturen hartu-eman eta ongiatorria.

Askotariko fusioak

Aurten, *Herrixa elkartuz* ikuskizunarekin datoz. Horren gaineko hainbat xehetasun eman ditu Marijo Pagaldaik: "Fusioak dira: umeen eta nagusien arteko fusioa,

kantu lirikoen eta rockeroen artekoa, folklore andaluziarraren eta euskaldunaren artekoa, eta baita kultura galegoaren eta bertsolarien artekoa ere. Arizmendi Ikastolaren eta Luis Ezeiza herri eskolako arteko fusioa ere izango da ikuskizunean. Askotariko arloetako gauzak elkartzean datza saioa. Horren bueltan, ikuskizuna laburbiltzen duen esaldiarekin amaitzen da emanaldia: "Zatoz laguna, goazen denok batera dauzkagun loturak askatzera, zatoz laguna, goazen denok batera, Eskoriatza besarkatzera".

Ehun lagun inguru

Bestalde, ikuskizun herrikoi horretako partaidetza urtetik urtera handituz doala aipatu du Pagaldaik. Iaz, 75 eskoriatzarrek parte hartu

zuten eta aurten, 100 inguruk. Adin askotakoak daude, eta aurtengo edizioak ume gehiago izango ditu. Horren harira, honakoa esan du eskoriatzarrek: "Aurten ume asko daude. Kontuan hartu behar da bi ikastetxeen bateratzea gertatzen dela emanaldian".

Ikuskizuna, esan bezala, San Pedro egunean aurkeztuko dute. Bada, eskoriatzarrek hilabeteak daramatzate entseguekin; izan ere, urte hasieran hasi ziren aurtengo ikuskizunaren nondik norakoak zehazten, eta otsail eta martxo aldean hasi ziren entseguekin; azken horren harira, azkenaldian, astero dabilta elkartzen. Dena dela, Pagaldaik jakinarazi du taldearen arabera dela hori, nor bere aldetik dabilako lan egiten.

Irrintzi txapelketa dago herri bazkarian

Urtero moduan, herri bazkaria egingo dute uztailaren 1eko Euskal Jaian. Trikipela enpresaren eskutik, sagardotegi menua dastatuko dute egun horretan Santa Mariñe plazan bazkaltzen dutenek; hain justu, entsalada, bakailao-tortilla, saiheskia eta gazta, menbrilloa eta intxaurreak. Umeek, berriz, makarroiak, oilasko-bularkia eta txokolate-tarta dute. Udaletik jakinarazi dute menuetan erabiliko diren hainbat produktu bertako ekoizleei erosten saiatuko direla, aurten, lehen aldiz. Bazkalostean, Jainagarekin eta Narbaizarekin dantza egiteko aukera izango da. Horrez gain, irrintzi txapelketa antolatu dute lehenengoz.



Ahate eta antzaratik eratorritako
patea eta produktua.

Piparra eta Txistorra.

**ondo pasau
jaixak!**



AGURRA

BEÑAT HERCE
Eskoriatzako alkatea



Gure esku dago, zure esku dago

Eskoriatzako jaiak mundialak eta herrikoiak izatea

gure esku dago.

Programa zabal eta errentagarria izatea

gure esku dago. Egun

hauetan Eskoriatza

txukun mantentzea

gure esku dago. Soinu,

kantu eta dantzaz

herria alaitzea gure

esku dago.

Norberarekiko eta

besteekiko errespetuz

jokatzea gure esku

dago.

San Pedro jaietan

hartu parte eta ondo

pasatzea, zure esku dago!

Animatu!

ZAPATUA
SAN PEDRO BEZPERA

28

11:03 UMEENTZAKO MARGO LEHIAKETA herriko plazan.

12:30 Margo lehiaketaren sari banaketa.

12:45 Lehio eta balkoietako loren lehiaketaren sari banaketa.

13:00 Jaiei hasiera emateko festa-kanpaiak eta TXUPINAZOA herriko plazan.

► Aurtengo pregoia, 50. urteurrena ospatzen duelako, Eskoriatza Kirol Elkarteak egingo du.

► Ondoren, Musika Eskolako bandaren kalejira eta txistulariak buruhandiek.

13:00 Festa-kanpaiak eta TXUPINAZOA. Pregoa.

► Ondoren, Musika Eskolako bandaren kalejira eta txistulariak buruhandiek.

17:30 Gazte Kuadrillen Arteko I. Jokoak plazan.

18:00 POXPOLO TA KONPANIA PAILAZOAK Gorosarri plazan.

18:00 Txosnak: Danborradako TRIKIKALEJIRA txosnetatik hasita.

19:00 Kartoizko zezenekin entzierro txikia elizatik plazara. Bertan, errekortadore eskola ibiltaria.

19:30 Parrokiako abesbatzak Eduardo Gorosarriren SALVEA abestuko du San Pedro elizan.

22:30 Nagusien DANBORRADA.

24:00 AI ENE taldearen dantzaldia plazan.

01:00 Txosnak: DJ Elvis Caino

SAN PEDROETAKO EGITARAUUA



AKERBELTZ | MARTITZENA | HERRIKO PLAZAN | 20:00. Euskal Herriko musika taldeen bertsioak egiten dituen talde bilbotarra da. Bi saio egingo dituzte jaietako azken egunean: 20:00etan eta 22:00etan.

DOMEKA
SAN PEDRO EGUNA

29

11:45 ELIZBIRA.

12:00 MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, parrokiako abesbatzarekin.

12:00 Buruhandiak plaza inguruan.

12:30 Bihar txotxongilo taldea: *Ipuin magikoak* bibliotekan.

13:00 Alkate soinu eta ohorezko bira txistulariekin plaza inguruko kaleetan.

13:15 Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA herriko plazan.

18:00 Sanpedrotako V. Gazte Futbolin Txapelketa gaztelekuan

18:30 Kale antzerkia: *Ametsetan bizi*, Trapu Zaharra taldearekin.

19:30 Rockalean taldea.

22:00 *Herrixa elkartuz* ikuskizuna Gorosarri plazan.

23:30 LA JODEDERA taldea plazan.

24:00-03:00 Borondatezko alkohol proba Santa Mariñe arratean.

24:00 Txosnak: Kontzertuak ROP+EZINEAN.

ASTELEHENA
BIGARREN EGUNA

30

12:00 Jokoak Gernika plazan.

12:00 Meza herriko hildakoen alde.

13:00 Alma Navarra taldea plazan.

14:00 Txosnak: kuadrillen arteko bazkaria.

15:30 23. Mus txapelketa Gernika plazan.

17:00 KUADRILLEN ARTEKO JOKOAK. Eskoitzako IV. Banderia.

18:30 Haurren DANBORRADA.

22:30 Gorosarrin. MURPHY magoa.

24:00 JOSELU ANAIK plazan.

01:00 Txosnak: playback txapelketa

MARTITZENA
EUSKAL JAIA

01

12:00 Musika Eskolako DANTZA TALDEA plazan.

12:30 TALOGILEAK eta SAGARDO KUPELAK herriko plazan.

13:30 TRIKITILARI Eskolako ikasleekin KALEJIRA.

14:30 HERRI BAZKARIA eta erromeria Santa Mariñe plazan.

18:30 Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira.

19:00 Buruhandien txirrindulari lasterketa plaza ondoan.

20:00 AKERBELTZ taldea plazan.

24:00 Jaiei bukaera emateko bandera jaitsiera eta trumoiada.



San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58

MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian
espezialista

Ondo ibili sanpedrotan!

ALDATZ
TABERNA

Aranburuzabala kalea 11 ESKORIATZA

Ondo pasau
San Pedro jaixetan!



Eskoriatzan baino hobeto, inon ez!

Giroak erakartzen ditu kanpoan bizi diren herritarrek

IMANOL GALLEGO | ESKORIATZA

Inguruan edo kanpoan, familia-ekin edo bakarrik, herritik kanpo bizi diren eskoriatzarrendako sanpedroak jai garrantzitsuak dira, eta, ahal duten heinean, ez dute hutsik egiten.

Askok onartzen dute urteek aurrera egin ahala jaietako ekin-tzak aldatu egin dituztela. "Gaueko parrandatik goizeko ekintzetara egin dugu", dio kanpoan bizi

den eskoriatzar batek. Hala ere, aurten ere gehienak herrira gerturatuko dira festak ospatzera.

Kaleko giroa

Eskoriatzako giroa berezia da; kaleko berotasun horrek erakartzen ditu urtero kanpoan bizi diren herritar ugari. "Familiakoekin egun politak igarotzeko aukera da", aipatu du diasporako kide batek.



Josune Kortazar,
Oñatiko plazan.

MIREN ARREGI

LARRAITZ IPARRAGIRRE
GUATEMALA

"Aurten ere gauez gozatuko ditut jaiak"

"Azkenak duela bi urte gozatu nituen; hortaz, aurten ere gauez gozatuko ditut", azaldu du Larraitx Iparragirrek. Egun Guatemalan bizi da, eta, urtero etortzen ez den arren, ongi gogoratzen ditu sanpedroak. "Txosnak, danborrada, jendea, tabernak...". Sanpedroak aipatzean Iparragirreri zerrenda amaigabe bat etortzen zaio burura, nabari da gustuko dituela.



Larraitx Iparragirre,
Guatemalako Atitlan lakuan.

JOSUNE IPARRAGIRRE

JOSUNE KORTAZAR
OÑATI

"Kalean gozatzeko egunak dira"

Urtero gerturatzen da Josune Kortazar sanpedroetara: "Familiakoekin kalean gozatzeko egunak izan ohi dira".

"Parrandazalea izandakoa naiz, baina seme-alabak ditudanetik egunez ospatzen ditut jaiak; danborradaren ostean, etxera bueltatzen gara. Dena den, ez dugu denborarik galtzen, gogotik disfrutatzen ditugu jaiak".



Gora, San Pedro jaiak!

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

☎ 943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com



Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak

- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.



Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com



Maulanda merenderoa

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 678 62 74 85

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Eguneko menua
- Karta



Ondo pasa
jaixak!



Aurtengo egitaraua sortu duten antolatzaileetako batzuk. | AMAIA TXINTXURRETA

Txosnetan 24 ordu gehiago eta Bibote Eguna izango dute

Ekintza berriak eta klasikoak berrituz ospatuko dituzte sanpedroak txosnetan

IMANOL GALLEGU | ESKORIATZA

Aurreko urteetan baino jai egun bat gehiago izango du aurtengo San Pedro jaietako txosnetako egitarauak. Izan ere, hilaren 27an, egubakoitza, emango diete hasiera jaiari. Bibote Eguna ospatuko da egun horretan lehen aldiz, eta arratsaldean egongo den *photocall*-ean argazkia atera beharko da benetako bibotearekin edo artifizialarekin; sari banaketa gauean egingo dute. Bestelako berrikuntzarik ere izango da: hilaren 30eko Kuadrilla Egunean joko berriak egingo dituzte.

Aurten ere Eingeinkeko kideak, presoen lagunak eta herriar talde bat ibili dira txosnetako egitaraua gertatzen. "Ez da, baina, egitarau soila. Gure nahia da gune alternatibo, libre eta dibertigarria sortzea. Gune bat non ez diren errespetu faltak onartuko, ez eta jarrera xenofobo, homofobo edo matxistarik", azaldu dute Txosna Batzordeko kideek.

Hasiera berezia

Txosnetan jaiak egun bat lehenago hasiko dituzte: Bibote Egu-

na ospatuko dute egun horretan. Txosnetan *photocall*-a jarriko dute eta parte hartu nahi dutenek argazkia atera beharko dute bertan. Gauean egingo dute sari banaketa, eta sariak horrela sailkatuko dituzte: bibote natural onena, bibote artifizial onena eta Txiroitutako Uranioak saria.

Horrez gain, Eskoriatzako IV. bandera egongo da jokoan. Parte hartzeko izena eman beharko da, hilaren 25a baino lehenago, Inker-nun, Aldatzen edo Facebooketik mezu bat bidalita. Gauean, *play-back* txapelketa egingo dute.

Abarka, txapela, pololo eta zapia jantzita, bertakoaz gozatzeko egun handia

Aurten ez da kantu txapelketarik izango; horren ordez, irrintzi lehiaketa egingo da bazkalostean

I.G. | ESKORIATZA

Ohiturak agintzen duen moduan, txistulariek emango diote hasiera Euskal Jaiari, dianarekin. Nagiak astindu eta gero, goizean plaza inguruan izango da giroa. Eta eguerdian, berri, musika eskolako dantza taldeak ekitaldia egingo du.

Saioa bukatu bezain laster, eta bazkaltzeko ordua iritsi arte, nahi duen guztiak herrian egiten diren talorik gozoeak dastatzeko aukera izango du; janaria eztarrian behera hobeto irrista dadin, gainera, sagardoa ere egongo da.

Edozein festatan bezala, hemen ere ospakizuna mahaia- ren buelta ospatuko dute nagusi eta gazteek 14:30ean.

Bazkaloste animatua

Tripa ondo bete eta gero, Jainaga eta Narbaizaren errome-

riak altxatuko ditu eskoriatzarrak aulkietatik, eta, gogotik dantza egin eta gero, I. Irintzi Txapelketaren txanda iritsiko da. Urteetan kantu txapelketa egin ostean, aurten antolatzaileek abestiak irrintziengatik aldatu dituzte.

18:30ean euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejiraren txanda izango da, eta, horren ostean, joan den urtean berreskuratu zuten buruhandien txirindulari lasterketaren txanda iritsiko da. 2013ko San Pedro jaietan eguerdian egin eta gero, aurten 19:00etara pasa dute txapelketa original hori.

Akerbeltz taldeak izango du aurten eguna borobiltzeko ardurra, eta, 20:00etatik 00:00etan bandera jaitsi eta trumoiakada argitsua iritsi arte, nahi duen guztiak plazan gogotik dantza egiteko aukera izango du.



Musika eskolako dantza taldeak ikuskizun polita prestatu du. | GOIENA

GORPUTZ TRATAMENDUAK

- Zelulitisaren aurkakoa eta birmoldatzea.
- Punta-puntako programa, erreduktorea:
 - Zelulitis mota guztiei aurre egiten die itxura ederra izan dezazun
- Fangoterapia (alga erreduktoreak)
- Sendotasunean oinarritutako programa, punta-puntakoa:
 - Azal malgua eta elastikoa
 - Azal ederra eta gaztea
- Gorputz hidratazioa
- Tratamendu esfoliatzailea
- Drainatze linfatikoa
- Psikoaromaterapia
- Masajeak



R.P.S. 178/09



EDURNE
ESTETIKA ZENTROA

Aranburuzabala 42
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 54

San Pedro jai zoriontsuak!

Eskerrik asko 35 urte hauetan izandako fidelotasunagatik.

- Fotodepilazioa
- Solariuma: Udarako Presta Zaitetz!
- Hortzak Zuritzea...

Zure ongizatea eta edertasuna zaindu nahi dugulako, hauek eta beste tratamendu gehiago ditugu. Informa zaitetz!

Tomas Larrañagari eta Maje Gorritxori esker ona, urteotako lanagatik

Nekazaritza ekologikoan aitzindariak izateagatik Nardiz saria eman berri die Eusko Jaurlaritzak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA
Lehen sektorean lanean aritzen diren gizon eta emakumeen lana aitortu nahi izan du Eusko Jaurlaritzak. "Ekonomiaren atal oso inportantea" direla lehen sektorean jarduten dutenak azpimarratu berri dute Iñigo Urkullu lehendakariak eta Arantza Tapia sailburuak. Nekazaritza sektorean, Tomas Larrañaga eta Maje Gorritxo senar-emazteek jaso dute onarpen hori. "Oso pozik eta hunkituta" jaso dutela Gonzalo Nardiz Bengoetxea saria kontatu du Tomas Larrañagak.

"Sari potoloa da eta sorpresa izan da guretzako, hunkigarria izan da. Gure sektoreak egindako proposamena izan da eta oso pozik gaude aurrera irten delako. Errekonozimendu handia da", azaldu du Larrañagak.

Aitzindariak eta eredu
Nekazaritza ekologikoan aitzindariak dira Tomas Larrañaga eta Maje Gorritxo. "Emaztea isilean, ezkutuan, beti lanean aritu da; gustura nago, hura izan da eta bultzatzailea. 25 urte beteko ditugu aurtun ezkondu ginela, eta hark izan du sentzibilitate hori. Betidanik *Integral* aldizkaria irakurri du. Horregatik, informazioa eta beste sentzibilitate bat izan du. Horren gaineko galderak eta kezak sortu zituen hark", dio Larrañagak.

"Euskal Herriko nekazaritza ekologikoaren lehen kurtsoan parte hartu genuen, 1990ean. Baitan, praktika egiteko mila



Larrañaga eta Gorritxo, saria jasotzeko unean. | IREKIA.NET

metroko ortu ekologikoa jarri genuen eta bertan ezagutu genituen Koldo Zubizarreta eta Josu Pereda, esaterako. Beste sentzibilitate bat daukan jendea ezagutu genuen. Nekazaritza ekologikoa errealitate zela ikusi genuen. Estatu mailan, 378. operadoreak gara; egun, 25.000 daude".

Epaimahaiaren arrazoia
16.000 nekazari daude Euskal Autonomia Erkidegoan. Osasunaren, paisaiaren eta gure kulturaren sortzaile dira. Epaimahaiak, hala, nekazaritza sektorean eta 2014ko produkzioaren atalean, Larrañaga eta Gorritxo senar-emazteek egindako lana saritu gura izan duela adierazi du: "Azken hoge urteetan base-rrian egindako lanagatik eta egungo baserriko familia-unitatearen eredu izateagatik eman diegu saria. Nekazaritza ekologikoaren normalizazioaren alde

egindako lanagatik eta aurrenak izateagatik nekazariei balio hauek transmititzen; baita ikasle eta kontsumitzaileei ere".

Sektoreari aitorpena
Bost urteren ostean, Jaurlaritzak berriro berreskuratu du Gonzalo Nardiz Bengoetxea saria. Izan ere, lehen sektoreak ekonomian duen garrantzia azpimarratu gura izan duela azaldu dute Iñigo Urkullu lehendakariak eta Arantza Tapia sailburuak.

Sektore profesionala eta lehiakorra behar duela izan lehen sektoreak azpimarratu dute. Baina, horretarako, denon konpromisoa eta esfortzua beharrezkoa dela diote Jaurlaritzako ordezkariak. "Administrazioaren laguntza beharrezkoa da, eta Jaurlaritzaren laguntza beti izango duzue; guregana laguntza eske etorri besterik ez duzue", nabarmendu du Tapiak.



Sagar-dantza egingo dute zapatu gauean, bikoteka. | GOIENA

Argazki zaharrak ikusgai Kalebarrengo jaietan

Sagar-dantza tradizionala bihar gauean egingo dute Antzuolako hainbat bikotek plazatxoan

M.A. | ANTZUOLA
Umeen danborrada koloretsuak emango die hasiera Kalebarrengo jaiei, gaur, 19:00etan. Gauean, afariaren ostean, DJ Amaiak gau giroa berotuko du.

Zapatuan, 11:00etan marrazki lehiaketa eta jinkana. 16:30ean mus txapelketa eta txikiendako jolasak. 18:00etan buruhandiak. Ondoren, arbola jasoko dute. 21:30ean auzo afaria egingo da eta Ezten Giro taldearen erromeria izango da.

Sagar-dantzaren txanda, berriz, 00:00etan izango da. Goizaldeko lauretan hasita, berriz, animatzen direnek Twister lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute.

Domekan agurtuko dituzte jaiak. Meza ondoren salda eta txorizoa banatuko dute Kalebarrenen. 12:00etan dantzari

gazteek erakustaldia egingo dute eta arratsaldeko bostetan Monda eta Lironda pailazoan *Baietz lortu* saioaz gozatzeko aukera izango dute umeek.

Antzinako argazkiak
Gaur, 19:30ean hasita, Kalebarrengo jaietako argazki zaharrak ikusteko aukera izango da Anelkarren eskutik. Elkartasunezko pintxoa eta edaria ere izango da. Gerturatzen direnek sorpresa izango dute, gainera.

San Martzial, astelehenean
Lizarraga Auzoan San Martzial eguna ospatuko dute. 18:30ean etxafuegoekin emango zaio hasiera; ondoren, meza nagusia egingo dute, eta, ohitura den moduan, gazta eta ardoa banatuko dute. 21:00etan afaria eta mus txapelketa egingo da.

Edurne Uribesalgoren ikasleek egindako eskulanak ikusteko aukera dago asteburuan

Asteburu honetan ere, ekainaren 28an, zapatuan, eta 29an, domekan, Edurne Uribesalgoren ikasleek egindako lanak ikusteko aukera izango da. Kurtso osoan egindako lanak dira. Uribesalgoren ikasle gaztetxoek eta helduek egindako eskulanak dira, hain zuzen ere. Olanaren dago erakusketa, eta, hain zuzen ere, 18:30etik 20:30era bisita daiteke.

Aiherrako Herriko Etxeko ostatu-okindegia eta jatetxea kudeatzeko pertsona bat behar da

Aiherrako Herriko Etxeak ostatu-okindegi-jatetxe berria irekiko du laster. Kudeaketa lanak egiteko pertsona bat behar da. Interesa duenak posta arruntez –Aiherrako Herriko Etxea 64 240 (PA)– edo mezu elektronikoko bidez – mairie.ayherre@wanadoo.fr – motibazio gutuna eta curriculum bidali ditzake. Herriko Etxean bertan ere utz dezake. Ostatu-okindegi eta jatetxeko lanak 2014ko udan bertan amaitzeko asmoa dute.

Landatxope elkarteak herriko erretiratuentzako bazkaria antolatu du uztailaren 13rako

Urtero moduan, herriko erretiratuentzako bazkaria antolatu du Landatxope elkarteak uztailaren 13rako. Izena emateko aukera egongo da uztailaren 1ean eta 2an, elkartearen bertan, arratsaldeko lauretatik seietara. Prezioa sei euro da. Landatxopetik, Genaro Laskurain elkarteak lehendakariak giro ezin hobea egongo dela eta herriko erretiratuak animatu gura izan ditu bazkarian izena emateko: "Ederto pasako dugu; giro ona bermatua dago".



JABI ETXANIZ

Herriar ugari izan zen dantzak ikusten

Ohiturari eutsiz, gaitz guztiak bota zituzten sutara antzuolarrek San Juan bezperan. Aurretik, baina, arbola jaso eta Oinarin taldearen dantzak ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek. Lehenengoz, herrian, Oinarin dantza-taldeko neskek eta mutilak soka-dantza egin zuten elkarrekin arbolaren bueltan, Herriko Plazan.



Martitzeneko osoko bilkura; Maider Landa eta oraindik kargua hartu barik duen Puri Regidor ez ziren izan. | M.B.

Udalak 8.000 euro bideratuko du zaharren egoitzako lanetara

Obren lehen fasea egiten dabilta eta udalbatzak 8.000 euro gehiago ematea onartu du asteen

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Martitzenean egindako ohiko osoko bilkuran, Jose Arana patronatuarekin hitzarmena sinatzearen alde agertu ziren batzarrean izandako zinegotzi guztiak. Mese-deetako egoitzan irisgarritasuna hobetzeko egiten dabiltzan obrak finantzatzeko 8.000 euro bideratzea aurreikusten du hitzarmenak.

Eskoriatzako alkate Beñat Hercek gogorarazi zuen egoitzako obrak hiru fasetan egingo direla, eta orain egiten dabiltzanaren berri eman zuen: "Herri-tarrek egindako donazioekin, beraiek aurreztu duten diruarekin eta Udalak eman duenarekin lehen fasea jarri dute abian. Hona-ko hau dabilta egiten: igogailua bigarren solairura igotzen eta

solairu horretan lehen mojen gelak zirenak egokitzen, irisgarritasun baldintzak betez. Horretarako dirua behar da, eta Udalak plusa ematea onartu du".

Horrez gain, Intxaurtxueta auzoko 32, 33 eta 34. atarteetan dauden lau lokaletan etxebizitza tasatuak egokitu ahal izateko kalifikazioa ematearen eta oinarriak onartzearen alde agertu zen udalbatza.

Egoitek urrian kiroldegian

Udal kirol instalazioetako zerbitzuen kontratazioa Egoitek enpresari esleitzea ere adostu zuten. Hercek enpresa horrek eskainiko dituen zerbitzuen berri eman zuen: "Sorosle zerbitzua, kiroldegian ematen diren jarduerak,

fitness zerbitzua eta asteburuko harrerako pertsonala".

Herriko kiroldegiko obrak amaitzen dituztenean hasiko da Egoitek zerbitzua ematen. Jakina denez, urrirako gura du Udalak kiroldegia osterara ere %100ean martxan izatea.

Bestalde, udalerriko parke eta lorategietako mantentze-lanak egiteko zerbitzua kontratatzeke lehiaketa martxan jartzea onartu zuten. Kale garbiketaren lehiaketarekin egin zen moduan, honetan ere klausula sozialak sartu ditu Udalak.

Umeak ondo elikatuta

Mozioak ere ez ziren falta izan martitzeneko osoko bilkuran. Eztabaidatutako lau mozioetatik hiru onartu zituzten: alde batetik, Jaurilaritzari eskatzea umeak ondo elikatuta egon daitezen bere esku dauden neurriak har ditzala, eta, horren bueltan, Andaluziako Gobernuak onartutako dekretua adibide moduan har dezala. Bestetik, errepublikari edo monarkiari buruzko erreferenduma egitea eskatu zuen udalbatzak. Eta azkenik, gayen, lesbianen, bisexualen, transexualen eta intersexualen eskubideak errespetatuak izan daitezela exijitu zuen.

Bihartik urrira bitartean itxiko dituzte herriko kiroldegiko beheko solairuko zerbitzuak

Jakina denez, obrak egingo dituzte kiroldegian, eta, hori dela eta, bihartik (zapatua) itxita egongo dira lehen solairuko instalazioak: hain justu, frontoi txikiak, sauna, aldagelak, barruko igerilekua eta, kiroldegi kanpoaldean badago ere, baita kanpoko igerilekua ere; gimnasioak eta kantxa bakarrik egongo dira erabiltzaileen eskura. Asmoa da urrirako amaitzea lanak.

Etzira arte (domeka) luzatu dute gazteei zuzendutako Udaero programarako izen-ematea

Oraindik izena eman barik duten gazteek etzira arte dute Udaero programan izena emateko aukera, gaztelekuan. Bestalde, San Pedro jaien bueltan, ekintza bereziak gertatu dituzte gaztelekukoek. Bihar, zapatua, gazte kuadrillen arteko I. jokoak egingo dituzte, 17:30ean, plazan; eta etziko, domeka, sanpedroetako V. gazte mahai-futbol txapelketa antolatu dute, 18.00etan, gaztelekuan.

Izena eman daiteke uztailaren 9tik 11ra bitartean Ibarraundin egingo den txalaparta ikastaroan

Txalaparta ikastaroa gertatu dute herrian. Hiru saio izango dira: uztailaren 9an, 10ean eta 11n, 18:30etik 20:30era, Ibarraundin. Interesatuak uztailaren 4a baino lehen eman behar dute izena kultura etxean, euskara@eskoriatza.net postan edo 943 71 46 88 telefono zenbakian. Izena ematearekin batera, bost euro ordaindu beharko dira. Euskaraz izango dira eskolak.

Aste Zapatistako zozketak badu irabazlea: lehen saria 880 zenbakia duenak eroango du

Ekainean herrian egindako Aste Zapatistaren bueltan antolatutako zozketan honako zenbaki hauek izan dira sarituak: 1. saria 880 zenbakiarendako da; hori agertu ezean, 1.318 eta 868 zenbakiak sarituko dituztela jakinarazi dute antolatzaileek; eta 2. saria 1.452 zenbakia duenarendako izango da; edo bestela, bigarrenik, 648, eta hirugarrenik, 734 zenbakiendako.



ESKORIATZAKO UDALA

Sarituak Osasun Asteagatik

Gosasun Zigilua eman diete Eskoriatzako Udalar eta Mondragon Unibertsitateari, elkarlanean antolatutako II. Osasun Asteagatik. Euskal Autonomia Erkidegoan elikaduran, jarduera fisikoan eta osasun emozionalean bizitza-ohitura osasuntsuen sustapenarekiko konpromisoaren onarpena da zigilua, hain zuzen ere.

zenbaki3
aholkulariak-abokatuak



• Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

- **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
- **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
- **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

LENIZ
ESKORIATZA



KONPONKETAK:
Txapa

Margoa

Mekanika

Aingeru Guarda Pasealekua 31. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 40 10

Javi Corbal | Eskoriatza kirol elkarteko presidentea

"Umeen danborradako karroza bat elkarteari eskainiko diote, herria gurekin akordatu da"

Eskoriatza kirol elkarteak 50 urte bete ditu aurten eta San Pedro jaietako pregoilaria izango da

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Urteurren potoloa du ospatzeko aurten Eskoriatza kirol elkarteak: 50 urte. Zenbat kontu, zenbat burukomin eta zenbat poztasun 50 urteotan. Udalak ere gogoan izan du elkartea, eta bihar, San Pedro jaiei ongietorria egiteko, pregoilari lanak egingo ditu Javi Corbal presidenteak.

Jaletako pregoia egingo duzu kirol elkartearen izenean. Ohorea da ala karga?

Biak! Ohorea da, noski, baina erantzukizuna ere bai, ez nago -eta ohituta jendaurrean berba egitera... Garbiñe Uribek eta Juani Murillok lagunduko didate balkoian, gainerakoek ez dute -eta gura. Gainera, umeen danborradako karroza bat kirol elkarteari eskainiko diote; hortaz, herria ere akordatu da gurekin, eta eskertzekoa da hori.

Zelan dago Eskoriatza kirol elkarteak 50 urte ondoren?

Osasun ona du eta ez daukagu kexatzeko arrazoirik. Ilusio handiarekin gaude, gainera.


Zein izan da elkartearen 50 urteotako ibilbidea?

Hainbat lagun Zarautz tarra tabernan elkartzen ziren eta txirrindularitzaren inguruan sortu zuten elkartea 1964ko apirilaren 3an. Gero talde gehiago etorri ziren, futbola, saskibaloia eta mendia, eta 80ko hamarkadan sokatira taldea ere izan genuen, emaitza bikainekin, gainera. Egun ez daukagu txirrindularitzarik eta futbola bilakatu da areto futbol; emakumeen saskibaloia dugu eta mendi eta pilota taldeak.

Eta aurten emaitza bikainak izan dituzue hainbat sailetan.

Bai, egia da; kirol eskolak ditugunetik emaitzak onak dira. Aretotutako futbol, esaterako, Arizmendi-Eskoriatzako kadeteak Euskadiko txapeldunak izan dira. Eta Eskoriatzako gazteen mailako taldea Arabako txapelduna eta Euskadiko txapeldunordea. Saskibaloian, osterara, haurren lehen mailako neskek Gipuzkoako txapeldunak izan dira.

Gainerakoek halako arrakastarik



Javi Corbal, Eskoriatza kirol elkarteko presidentea. | GOIENA

ez, baina isilean lanean, ezta?

Bai, pilota taldean gazteak sartu dira eta hor dabilta kirol hori sustatu guran. Eta mendian arrakastak lortzea ez da samurra, baina 100 federatu baino gehiago daude eta azken urteotan hainbat

ekitaldi antolatzen dituzte, hala nola San Silvestre eguneko lasterketa eta Gabez Takarraran.

50. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egin dituzue dagoeneko...

Bai; San Silvestre egunean hasi ginen urteurrena girotzen, eta

ondoren Manuel Muñoz egindako omenaldia etorri zen; elkar-tearen eguna ere ospatu dugu eta Gabez Takarraranekin presidente ohiak omendu ditugu. Bertan izan ziren Felix Lekuona fundatzailea; German Encina; Roman Aranburuzabala; eta Edorta Zubizarreta. Bi falta izan ziren, eta Manuel Muñoz zena, noski. Benetan hunkigarria izan zen omenalditxo.

Pentsatzen dut asko akordatu zinetela Manuel Muñozekin...

Asko, asko, egunero akordatzen naiz ni. Nire aholkularia izan zen, elkartera hurreratu nindue-na... Eta 30 urte egin zituen bertan presidente, pentsa!

Ekitaldi gehiago ere izango dira?

Bai, noski. Irailaren bukaeran lagunarteko partidu bat jokatzera etorriko da Gipuzkoa Basket taldea; ilusio handia egiten digu partidu horrek. Eta urri inguruan Euskadi mailako txapelketaren bat ere izango dugu.

Eta aurrera begira zein erronka?

Sustatzen gabiltzan kirol eskolekin emaitza politak lortzen gabil-tza eta emaitza horiek goiko mailalara bideratu gura ditugu. Oinarritzako taldeetan oso ondo dabilta lanean, eta goiko mailak bultzatzea tokatzen da orain.

Elkarteko txirrindulariak

Eskoriatza kirol elkarteko txirrindulariak daude argazkian (Club Deportivo Escoriaza), taldeko jantziarekin. Gaur egungo Gorosarri plazako etxeen parean ateratako argazkia da. Hona txirrindulariak ezkerretik eskumara: Pedro Guenetxea, Aingeru; Eugenio Oianguren (atzean); Jesus Fernandez de Arriabe Matxain; Jon Urien; Felix Esperasate; eta Bastida. Alboan, ikusleen artean, Juan Mari Bergaretxe.



Eskoriatza kirol elkarteko txirrindulariak. | ESKORIATZAKO UDAL ARTXIBOA

Eskulanen erakusketa egongo da kultura etxean sanpedroetan

Urtean zehar eskulan ikastaroetan jardun duten ikasleek egindako lanak jarriko dituzte ikusteko San Pedro jaietan. Lanen artean izango dira margolanak, etxerako apaingarriak, argazkiendako albumak eta altzari txikiak. Hala, Eskoriatzan ere badirela artista txikiak ikusiko dute herri-tarrek.

Erakusketa kultura etxean egongo da bihar hasi (ekainak 28) eta uztailaren 1a arte, martitzena. Hona ordutegia: 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Bihar da leiho eta balkoietak sari banaketa ekitaldia

Oraindik bozka daitezke leiho eta balkoietak loreen lehian finalista gelditu diren balkoiak; hamar, guztira. Argazkiak kultura etxean eta Udalaren webgunean (*Eskoriatza.net*) jarri dituzte, eta gura duten herritarrek bozka dezakete (boto bakararra).

Irabazlea aukeratzeko hiru boto izango dira: bata Kultura batzordeak emango du; bestea, Olazar erretiratu elkar-teak; eta hirugarrena herri bozketa bidez aukeratutakoa izango da. Saria, osterara, bakar-ra da: 100 axtroki. Sari hori bihar banatuko dute, San Pedro bezpera, 12:45ean.

25. Eskoxtrem ibilaldia uztailaren 12an egingo dute

Eskoriatzako Mendi Bizikleta martxak 25. urteurrena beteko du aurten, eta urrian beharrean uztailan izango da, uztailaren 12an, hain zuzen.

Martxa erabat aldatu dute, gainera, bai ibilbideari dago-kionez, baita estiloari dago-kionez ere. Bi ibilbide egongo dira: bata, motza, 20 kilometrokoa eta 1.100 metroko igoerarekin; bestea, luzea, 36 kilometrokoa eta 1.700 metroko igoerarekin. Izena Internetez eman daiteke *Kirolprobak.com* helbidean edo egunean bertan Eskoriatzako plazan.

Ondo pasau San Pedro jaixetan!

ESKORIATZAKO CAMPUSA

Dorleta auzoa, z/g
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

ARETXABALETAKO CAMPUSA

Bedarreta auzoa. Otalora, 31
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

Tel: 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu
www.mondragon.edu/huhezi

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

Naked Blues-ek itxiko ditu Sastiñako egubakoitzak

Blues doinuez gozatzeko aukera gaur plazan, formatu akustikoan (20:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Sastiñako egubakoitz musikatuak gaur agurtuko dira irailera arte. Ekaineko lehen bi aste bukaeretan kontzertuak egon ostean –hirugarrenean Lagunartea dantza taldearen erakustaldia izan zen protagonista–, gaur (20:00) itxiko da hilabeteko zikloa. Ordu eta laurden inguru iraungo du kontzertuak: "Publikoarekin lortzen dugun *feedback*-aren arabera, gehiago luzatu daiteke...", iradoki du taldeko kide Jaime Alvallosek. Kontzertu lasaia izango da, batez ere formatu akustikoan delako. Hala ere, kantu mugituak ere izango ditu dantzatu gura duenarendako. Bertsioak izango dira nagusi, Robert Johnson, Muddy Waters, Big Bill Broonzy, Howlin' Wolf, Son House edo Brownie McGhee moduko artistak dira taldearen eragin nagusiak. Lehen aldia izango da Aramaioa datozena.

Eskarmentu handia

Jazzaren munduan eskarmentu handia duten Jaime Alvallosek –gitarra eta ahotsa– eta Alejan-



Alejandro Mingot eta Jaime Alvallos, Naked Blues. | NAKED BLUES

dro Mingotek –dobro eta gitarra– osatzen dute musika beltza tradizionala oinarri duen bikote akustikoa. Musikenen, Euskal Herriko Musika Ikastegian, eza-gutu zuten elkar.

Ikasketak bukatuta, irakasle lanetan hasi zen Mingote Musikenen, eta, besteak beste, Alvallosi eman zizkion eskolak. Orduetik noizbehinkako harremana izan zuten, hainbat jam sesiotan elkarrekin parte hartu-

ta, esaterako. Hala ere, duela urte eta erdi inguru egindako Iruñeko Animal Blues jaialdian erabaki zuten bereziki bluesa oinarri duen Naked Blues sortzea.

Bluesa du oinarri, baina beste zenbait estilo ere lantzen dituzte: "Aspaldiko musika beltza dugu ardatz. Jazza, swinga edo soula ere lantzen dugu baina hain dira estilo bertsuak, muga jartzea oso zaila izaten dela", adierazi du Alvallosek.



Herri kirolak Bizente Goikoetxea plazan, iazko udalekuetan. | JOKIN BEREZIARTUA

100 ume baino gehiago aurtengo udalekuetan

J.B. | ARAMAIO

Udako oporrak hartuta, Aramaio 3 eta 12 urte arteko haurrak udalekuen zain egongo dira honezkero. Udalekue-tako arduradun Ana Muñozaren arabera, aurtun 107 ume eman dute izena. Uztailaren 9tik 22ra ospatuko dira –bi egunak barne– eta ekintzak goizez egingo dira nagusiki, 09:00etatik 13:00etara. Izena eman duten umeak zaindu eta hezteko bederatzi begirale arituko dira lanean. Begirale guztiak dira aramaioarrak –izena emateko orduan lehentasunetako bat zen– eta horietatik bost iaz ere aritu ziren. Beraz, lau begirale berri izango dira aurtun.

Ondo pasatzeaz gain, ikasi

Udalekuetan parte hartuko duten umeak –eta begiraleak– ez dira aspertuko, hiru astean denetarikoko ekintzak egingo dituzte –eta. Besteak beste, Gantzaga auzoan ortu ekologiko bat bisitatuko dute; ondo pasatzeaz gain, udalekuen helburua ere badelako gauza berriak ikastea. Eta noski, urtero egiten den Otxandio igerilekurako bisitak ez du hutsik egingo.

Bestalde, Zuiako Koadrilako Euskararen Eguna Aramaion ospatuko da aurtun, uztailaren 17an. Oso egun polita izaten da; ondo pasatzeaz aparte, inguruko herrietako umeak ezagutze-ko aukera izango dute.

Azkoaga auzoko San Juan jaiak, "oso giro ederrean"

Parte hartze "oso handia" izan dute festek; auzo afarian, esaterako, inoiz baino lagun gehiago

J.B. | ARAMAIO

San Juan jaiak ospatu dituzte asteon Azkoaga auzoan. Zapatuan, hilak 21, hasi ziren egitarauko lehen ekintzak: elizan egindako musika kontzertu batekin hasi zituzten festak, eta ondoren, 21:00 aldera, 70 bat lagun elkartziren elizpean auzo afarirako: "Sekula baino lagun gehiago elkartzu ginen, gazte asko", adierazi dute jai batzordekoek. Astelehenean, San Juan bezpera, parrillan gertatu-

tako txorizoak, odolkiak, hirugiharra eta abar dastatu ondoren, San Juan sua piztu zuten Santa Agedatxo ermitaren aurreko zelaian: "Gazte eta ez hain gazte, makinatxo batekin egin zuten salto". Eguna borobiltzeko, su artifizialak izan zituzten.

San Juan egunean, meza, Lagunartea dantza taldearen emanaldia, pintxo-potea, briska eta mus txapelketak eta umeentzako puzgarriak izan zituzten.



San Juan sua, Azkoagako Santa Agedatxo ermitaren aurreko zelaian. | JESUS ARREGI

Oso pozik parte-hartzearekin

Jaietako antolatzaileak oso pozik daude aurtengo festekin: "Parte-hartze oso handia izan dute.

Kaletik [Ibarratik] eta ingurutik jende asko etorri da. Martitzene-ko puzgarrietan neska-mutiko pila bat izan ziren lehenengo

opor egunak erretzen". Bada, emaitza ikusita, jai batzordekoak gustura ibiliko dira datorren urteko festak antolatzen.

Denboraldiko azken lasterketa

Gazte mailako txirrindulari txapelketa jokatu zen ekainaren 21ean Aramaion. Benjamin, alebin eta infantil mailetan aritu ziren txirrindulariak. Dorleta Txirrindulari Eskolaren denboraldiko azkena izan zen. Infantil mailan herriko lehena Martin Abarrategi izan zen.



DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI TALDEA

Inarrak eta Elortzak irabazi dute jaietako kartel lehiaketa

Uztailaren 4tik 7ra ospatuko dira San Martin jaiak, eta kartel lehiaketako irabazleak jakinarazi ditu Udalak: 16 urtetik beherakoen artean, Beñat Inarra izan da irabazlea –60 euroko txartela emango diote Elkar dendetan gastatzeko–. Nagusien artean, berriz, Txomin Elortza izan da irabazlea –150 euroko saria.

Azken Ostirala gaur Bizente Goikoetxea plazan, 19:30ean

Hilero egiten den moduan, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko Azken Ostirala egingo dute gaur Bizente Goikoetxea plazan. Herriar talde batek deitu du elkarretaratzea, eta kondena-ren hiru laurdenak beteta dituzten presoak eta gaixorik daudenak askatzea eskatuko dute, besteak beste.

ELGETA



Gurasoak, auzolanean, eskolako gelak margotzen. | L.Z.

Eskola prestatzen ari dira datorren ikasturterako

2 urteko umeen gela handitzeko lanak martxan dira, eta gurasoek badihardute gelak margotzen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

2013-2014 ikasturtea amaitu bezain pronto hasi dira lanak Herri Eskolan. Irailean 17 neska-mutiko hartuko ditu 2 urteko umeen gelak, eta espazioa handitzeko beharra zegoen. Udalak Goitu enpresari esleitu dizkio handitze lanok, eta martxan dira. Aurrekontua 10.319 euro da.

2 urteko umeen gela handitzeko aurreratu egingo da sarre-rako atea eta aldamenean dagoen irakasleen komuna gela barruan geratuko da; eta gela barruko biltegia kendu egingo dute. Hor-ma hori bota egingo dute, eta, hain zuzen ere, gelak hartuko du eremu hori.

Gelak auzolanean margotzen

Lehenengo solairuan ere lanean dihardute. Gelak margotzeko premia handia zen, eta Udalak

ipinitako materialarekin eskola-ko gurasoek dihardute lan hori egiten, auzolanean. Guraso elkar-teak egindako deialdiak erantzun polita izan du; 21 gurasok eman dute izena. Hasiera bateko asmoa zen gela bat margotzea, baina bizpahiru izango dira azkenean. Bihar, zapatua, dute hurrengo hitzordua gurasoek, 09:00etatik 13:00etara.

Zuzendaritza aldaketa

Datorren ikasturtean zuzendari-tza talde berria izango du Elge-tako Herri Eskolak. Nora Olabi-dek hartuko du zuzendari kargua, Ixone Fernandez de Arroiabe izango da ikasketa-burua eta Arantza Espartzak jarraituko du idazkari zereginetan.

Gaur, barikua, jasoko dituzte ikasturteko notak Lehen Hezkun-tzako neska-mutikoek.

Bertan dira Ferixa Nagusiko jaiak eta txartelak eta zapiak salgai daude

L.Z. | ELGETA

Eguenean, uztailak 3, hasiko dira Ferixa Nagusiko jaiak Elgetan. Berrikuntzen artean daude, bes-teak beste, buruhandiei ongieto-rria, gaztetxoendako bazkaria eta udalbatzaren soka-dantza. GOIENA paperaren zenbaki hone-tan bertan dago jaien gaineko gehigarri berezia.

Txartelak salgai

Julian Markiegiren kioskoan daude salgai umeen bazkarirako txartelak —6 euro—; gaztetxo-en bazkarirako txartelak —8 euro—, eta zapatuko herri bazkarirako txartelak —4 euro—. Jaietan zapi gorria lepoan ipintzeko dei egiten dute batzordetik. Zapiak ere sal-gai daude herriko tabernetan.

Txangoak, jolasak, tailerrak... martxan da udaleku zerbitzua

L.Z. | ELGETA

Astelehenean, ekainak 23, zabal-du zituen ateak udaleku zer-bitzuak, eta nork bere taldeko kideak eta hezitzailea ezagu-tzeko aukera izan zuen. Mireia Andreu eta Eider Gisasola arduratuko dira 3-4 urte bitar-teko umeez; Nerea Villak 5-6 urtekoen taldea gidatuko du; Adrian Gorostiza 7-8 urte bitar-teko umeekin egongo da eta Kepa de Vega, berriz, 9-12 urte bitartekoekin.

Hezitzaileak astelehenean elkartu ziren gurasoekin. Talde bakoitzarendako prestatutako egitaraua aurkeztu zuten. Aurre-ko urteetan moduan, aste bakoit-zak gai bat izango du, eta gai horrekin lotutakoak izango dira

ekintzak. "Irteera egunak, ur egunak... dena zehaztuta dago, eta, kontrako oharrik jaso ezean, umeak bertan eskatzen direne-kin bidaltzea eskatzen dizuegu. Ez ditugu aldiro oharrak bida-liko", esan zuten. Hezitzaileek adierazi zuten, esaterako, eguaz-tenak egun marroiak direla, irteera egunak. Egun horietan jantzi eta oinetako egokiekin bidali behar dira umeak uda-lekuetara. Egun urdinak eta egun gorria ere badaude.

Irteera igerilekuetara

Apatamonasterioko igerilekue-tara egingo dute irteera, uztai-laren 11n. Bada, udalekuetako haur guztiek dute parte hartze-ko aukera.



L.Z.

San Juan suaren gainera salto

San Juan bezpera ospatzeko ogitartekoak banatu zituen guraso elkarteak, eta umeek egindako piloari su eman zioten jarraian. 21:30 alderako martxan zen San Juan sua, eta batek baino gehiagok egin zuen salto gainera. Piroteknia ere egon zen, Bolatoki tabernako Jose Monterrosoren eskutik.

Irailean ipini gura dute martxan bilketa sistema berria

Domekako herri kontsultan herritarrek adierazitakoaren ondoren, Udalak jakinarazi du Debagoieneko Mankomuni-tatearekin batera lanean jarraituko dutela sistema berria irailean martxan jar-tzeko. Aurreikusten dute uztaileko osoko bilkuran eman-go diotela onarpena sistema berria ezartzeko erabakiari.

Roberto Basaurik irabazi du Beheko kaleko jaietako porra

Jaiak ondo joan dira, eta jai batzordeak eskerrak eman dizkie festa posible egin duten auzotar guztiei. Porrari dago-kionez, Roberto Basauriren-dako izan da saria. Torreal-dean, Gudarien Bidean eta Salbador zeharbidean 179 lagun daude erroldatuta. Basauriren erantzuna 180 izan da, eta hura gerturatu da gehien. Bi txuleta eta bi boti-la ardo irabazi ditu.

OHARRAK

HILEKO AZKEN BARIKUA

Gaur, presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea herri-ko plazan, 20:00etan.

URTEURRENA ESPALOIAN

Bihar, zapatua, 19:00etan hasi-ta, magia kalean, afaria eta gala Espaloia kafe antzokiaren 10. urteurrena ospatzeko.

BISITA LUBAKIETARA

Domekan, 10:00etan, bisita gidatua Intxortako lubakie-tara. Argibide gehiago: 943 71 89 11.

TIRO TXAPELKETA

Domekan, 10:30ean hasita, karabina-tiro txapelketa fron-toian. Norica etxeak antola-tuta.

MUSIKA IKASLEEN SAIOA

Domekan, 12:00etan, musika ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute Espa-loia Kafe Antzokian.

LEINTZ GATZAGA

Udalerriko gatz laborategira bidali dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Antzinako gatz fabrikaren bide-ragarritasuna aztertzeke egitas-moaren baitan, han bertan egin-dako gatzaz aztertzea bidali dute. "Alacanteko laborategi kimiko eta farmazeutikora bidali beharra dago, analisisa egin diezaioten. Ikusteko zelako emaitzak ematen

dituen hemengo gatzak. Añana-koek esan ziguten eurek Alacan-tera bidali zutela, eta gauza bera egingo dugu", kontatu du Eugenio Otsoa alkateak.

Izan ere, alkatea bera ibili da oraingo asteen gatzaz egiten, gatz gourmeta eta gatz lorea, hain justu ere.

Antzinako gatz fabrikaren dorla zaharrean jardun du zeregin horretan. Otsoak jakinarazi due-nez, dorla zahar hori gura dute gero gatzaz egiteko erabili, gatzaz negozioa berreskuratzeko aukerarik izanez gero. Hori abia-puntu, dorla zaharra eraginko-rragoa izateko prototipoa lantzen dabilatzala kontatu du alkateak.

Uztailerako, gertu

Saiolanek lagunduta egingo dute haren diseinua, eta orokorrean Gipuzkoako Diputazioa ere bada-

bil Gatzagako antzinako fabrika-ren bideragarritasun planean laguntzen, *Debagoiena Eraldatzen* programaren barruan sartuta dago-eta egitasmoa.

Uztailaren erdialde inguru-rako entregatu behar dute bide-ragarritasun plana.

Ur-sareko obrak, adjudikatuta

Bestalde, Leintz Gatzagan egin gura dituzten lanen artean, ber-tako ur-sarea handitzeko obrak egitekotan dabilta. Bada, lan horiek dagoeneko adjudikatuta

daudela kontatu du alkateak, eta, horrenbestez, laster hasiko dire-la lanean. Bukatu ere bai; izan ere, asko jota, hilabeteko epea izango dute horretarako.

Arlabanen eginda dago ur-biltegi bat, eta bertara eramanda dituzte erdiguneko ur-hodiak; bada, Udalaren asmoa da ur-sare hori handitzea, udalerriaren ur-zerbitzua bera handitzeko.

Kasu horretan ere Gipuzkoa-ko Foru Aldundiaren laguntza du Udalak lanok egiteko; dirutan lagunduko dio, hain justu.

FUTBOLA

Andoni Azkargorta | Eibar taldeko analista taktikoa

"Jokalariak aldatzen dira, baliabideak ere bai, handia dirudi guztiak, baina, azkenean, futbola da"

- Gaizka Garitano entrenatzaileak osatu duen lantaldeko kideetako bat da
- Gertu dago Eibarrek Lehen Mailan jarrai dezan gogor lan egiteko, eta ilusio handiarekin

MIRARI ALTUBE | EIBAR

Ez dago Azkoagainen, ez Eztalan, ezta Mojategin ere, nahiz eta hiru futbol zelaia ondo baino hobeto ezagutzen dituen. Andoni Azkargorta (Antzuola, 1978) Ipuruan dago. Erronka galanta du aurrez aurre Eibarrek Lehen Mailan, eta erronka horren parte izango da Azkargorta, Gaizka Garitano entrenatzailea buru duen lantaldeko kidea, hain zuzen ere. Dagoeneko bete-betean sartuta dago lanean; izan ere, uztailaren 14an denboraldi-aurrea hasiko du Eibarrek. Ilusioa ageri du aurpegian eta lanerako gogo handia.

Futbolean urtebeteko atsedena hartzeko erabakia hartu, Aloña Mendingen denak agurtu, eta...

Bai, asmoa hori zen. Urtea gogorra izan da arlo pertsonalean eta asmoa zen lanean zentratu eta futbola lagatzea apur batean, lasaitasun bila. Baina Eibar taldearen proposamena etorri da, eta ezin ezetz esan!

Beharbada, baten batek pentsatu du aurretik zenuela hitzartuta Eibarrekin, eta hortik agurra.

Ez, ez. Uzteko erabakia hartuta neukan; Aloña laga ostean beste eskaintza batzuk ere izan nituen, eta horiei ezetza eman nien. Hau, oster, salto bat da, eta, gainera, baldintza onak eta lan polita. Beti da ametsa elkarte profesional baten egitura sartu eta Lehen Mailan jardutea, eta aukera honi ezin zitzaien pasatzen laga.

Hortaz, agur urte sabatikoari.

Bai, baina honetan bakarrik zentratuko naiz; horregatik, samurragoa izango da lana.

Lehenago ere Eibarren egondakoa zara; hortik sortu da, beharbada, proposamena?

Bai, kirol zuzendariak ezagutzen ninduen eta Gaizka Garitano entrenatzaileak ere bai. Nire lan egiteko modua badakite zein den, eta hortik etorri da.

Zein izango da Eibarren egin beharreko lana?

Analista taktikoa izango naiz. Talde aurkariak ikusi eta horien azterketa egin, aste horretan bertan aurkariaren ahalik eta informazio gehien izan dezan Gaizkak eskura. Eta gure taldeak jokatu-tako partiduen analisiak ere egingo ditut, gero Gaizkarekin eta gainerako teknikariekien komentatzeko, gure akatsak zuzentzeko eta ondo egindakoak jakiteko.

Alde ederra, erregional mailako taldeak ezagutzetik, Real Madril edo Bartzelonaren gaineko informea egitera...

Bai, ezberdina. Jokalariak aldatzen dira, baliabideak aldatzen

dira... Handia dirudi guztiak, baina, azkenean, futbola da, eta futbola berdina da Bigarren Erregional Mailan eta Lehenengo Mailan, aldatzen dena da jokalarien kalitatea eta horren inguruko kontuak.

Orain arte egindako lanaren saritzat hartu duzu?

Saria? Ez dakit. Nik sentitzen dut amets bat egia bihurtu dela. Urtebeteko kontratua daukat eta, behintzat, urtebete izango dut honetan buru-belarri lan egiteko. Helburua da ahal den ondoen lan egin, eskatzen didatena ahal den txukunen egin eta, batez ere, disfrutatu. Lanorduak futbolari eskaintzeko denbora izanda, ahalik eta gehien disfrutatzen saiatuko naiz.

Batetik bestera ibiliko zara Eibarren kontrarioen partidua ikusten ala gaur egun Internet eta telebista bidez egiten da lan?

Astelehenetan jakingo dut zein izango den aste bukaerarako nire plangintza. Bidaiatzea tokatuko zait, eta gero, oso baliabide onak daudenez, aztertuko dut bideoetatik eta guk ditugun informazio iturrietatik. Baina bidaiatzea ere tokatuko zait, partidua zuzenean ikusteko.

Entrenatzaileak, dena dela, berdegunean egon nahi izaten du, ez harmailetan, ala?

Bai, eguneroko dinamika horretatik kontua aldatu egin da. Zelaian gutxiago egongo naiz, Gaizkak noizbehinka eskatuko dit zelaia joateko, baina bestelakoan ez. Dena den, analizatzenko lana ere polita da, eta ez dut uste zelaia deituko didanik, egun osoan egongo naizelako futbol kontuetan zentratuta.

Zer topatu duzu egunotan Eibarren?

Baliabide askoz hobeak lanerako eta erraztasunak, baita exijentzia maila handiagoa ere. Eta topatu dudana da lantalde oso naturala; izan ere, normal lan egitea da asmoa. Hortaz, topatu ditut erosotasunak lan egiteko orduan, exijentzia puntua ere bai eta lan egiteko obligazioa.

Ildo horretatik, Eibar bera ailegatu berria da Lehenengo Mailara eta naturaltasunez jokatzeko normala da, ezta?

Bai; Eibarrek, elkarte moduan, ez dut uste bururik galduko duenik. Maila aldatu da, orain arteko kontuak aldatu dira, baina naturaltasuna izango da Eibarren ezaugarria.

Eta posible da Eibar moduko talde batek Lehenengo Mailari eustea? Eibarrek beti erakutsi du lane-



Andoni Azkargorta, martitzenean, Ipuruako harmailetan. | JAGOBA DOMINGO

"Aloña laga ostean eskaintza batzuk izan nituen eta ezetza eman nien"

"Analista taktiko lanak egingo ditut, aurkariak ikusi eta horien azterketa"

"Ametsa da elkarte profesional baten egitura Lehen Mailan jardutea"

"Zailtasunak izango dira, urtea luzea da, baina mailari eusteko egingo dugu lan"

rako gaitasuna. Beste talde batzuekin alderatuta aurrekontu txikiagoa izango du, baina lana ondo egiten bada... Zailtasunak izango dira bidean eta urtea luzea da, baina maila mantentzeko taldea eta lana seguru egongo direla.

Futbolean kontuak ondo doazenean ederto, baina ez doazenean ondo... Zuk horren berri badaukazu, baina Lehenengo Mailako presioa handia izango da gero.

Pentsatzen dut baietz. Azkenean, medio gehiago eta taldearen ingurua ere zabaldu egingo da. Dena den, oraindik ez dut presiorik igarri. Ikusi dut lana egin behar dela; hau da, goizean hona sartzen naizenetik arratsaldean irten arte lan handia egin beharra dagoela, horretarako gaude eta horretan zentratu behar dugu. Presioa ez dakit... Baloia martxan jartzen denean, abuztu bukaeran, jakingo dugu.

Eta komunikabideek ere lehen baino gehiago begiratu diote Eibarri. Haien indarra ez da txikiagoa; aurre egiteko gertu?

Bai, izan daiteke... Egia esan, nik oraindik ez dut ezagutzen halakorik, berria naiz-eta. Beharbada, hemendik urtebetera esango dizut zelako eragina duten elkarte baten eguneroko lanean, baina, orain, ezin ezer esan. Ipuruan gaude; ez da zelaia handia, baina bai oso gertuko; hori baliatuta atera ahal izango ditu puntuak Eibarrek?

Ipurua zela berezia da. Neurriari dagokionez, beharbada, beste batzuk baino txikiagoa da, eta jendea ere gain-gainea dago; hortaz, bertan gertatzen dena, bai zelaian, bai harmailetan, segituan antzematen da. Esandako moduan, zelaia berezia da, xarma berezia dauka eta benetan zelaia polita iruditzen zait.

Honezker batek baino gehiagok esango zizun... Messi, Neymar, Cristiano bertatik bertara ezagutuko dituzu, a ze zortea!

Bai... Ez dakit zer sentipen izango den, ez dakit zelako pertsonak izango diren... Oraingoan, urrun ikusten ditut, eta, ezagututakoan, ikusi behar zelakoak diren. Dena den, egia da ikuspegia aldatzen dela; izan ere, orain arte telebistan bakarrik ikusitakoak gertu gertu izango ditugu gero.

Zorte on hasi berri duzun ibilbidean eta zorte on Eibarri Lehenengo Mailan!

Ea urte ona den eta Eibarrek Lehen Mailan beste urtebetez jarraitzen duen, horretarako egingo dugu lan-eta hemen gabil-tzan guztiok.

ATLETISMOA

Atletismoak ez du etenik Oñatin: badator Torreauso krosa

X.U. | ARRASATE

Joan den zapatuko Oñatiko Herri Lasterketak utzitako zapore onari jarraipena eman ez, oraingoan lasterkari herrikoia goak izango dira protagonista, Torreausoko krosaren 17. edizioan.

Domekan egingo dute lasterketa (11:00), Antxintxiketaneko lagunak antolatuta: Etxe Aundi jatetxetik hasita, eta izena aurrez eman badaiten ere (*Kirolprobak.com*), lasterketa hasi baino lehenago antolatzaileak bertan egongo dira, azken orduan animatu direnei dortsalak banatzen (8 euro aurrez, 12 euro lasterketa egunean).

Zazpi kilometro pasa

Torreausoko krosaren distantziak aukera ematen du edonor animatzeko. Ibilbideak 7,5 kilometro ditu eta urterokoa izango da, Torreauso eta Olarte arteko joan-etorria. Iaz gizonezkoetan Sergio Gartzia izan zen azkarrena –zapatuan sasoi ikusgarrian dagoela erakutsi zuen herrikideen aurrean– eta emakumezkoetan Nere Arregi gailendu zen.



Eneko Lizarralde, martitzenean, esprintaren ostean besoak altxatzen, ondoan Arnau Sole duela. | KARLIS MEDRANO

TXIRRINDULARITZA

Eneko Lizarralde garaipenen palmaresa estreinatu du

Bergarakoak Tolosan irabazi zuen martitzenean; selekzioaz izango da Galizian

XABIER URZELAI | ARRASATE

Eneko Lizarralde (Bergara, 1993) ez du Tolosako San Frantzisko kaleko zuzena zati batean ahaztuko. Oraindik ere urratuta izango du eztarria, martitzenean Jose

M. Anza memorialeko helmuga lehen postuan zeharkatu zuenean amorrutik betetako oihua bota ostean. Izan ere, halako garaipenek zentzu apur bat handiagoa ematen diote gazte horiek auke-

ratu duten bizi izateko moduari: pedalei eragiteko bizi izateari.

Esprintean

Bergarako txirrindulariak esprintean Arnau Sole utzi zuen atzean;

ez zen nolanahiko kontrarioa, duela hilabete batzuk Gorlan azkarrena izan zen-eta Caja Rural-eko mutila. Baina lehia beste askorekin ere izan zuen, azken esprint horretan hamabi lagunak egin zuten-eta denbora bera; eta tartean ziren Gipuzkoako taldekide Alain Gonzalez eta Sergio Rodriguez.

Sare sozialetan

Hala, Gipuzkoa taldeko ziklistak dagoeneko estreinatu du afizionatu mailako palmaresa –gazte mailan lortu zuen garaipenik– 114 kilometroko lasterketan Altzo–birritan– eta Oreindaingo mendateak gainditu ostean lehenengo gurutzatu zuen Tolosako helmuga. Hala, iluntzean bertan sare sozialetan azaldu zuen garaipenari esker bizi izandakoa: "Bizitzan momentu askotan planteatzen dituzu gauza asko, aurrera egin ala ez, hiru urtez 23 urtez azpikoetan ibiltzeak askorako ematen du-eta, askorako. Baina, halako batean lan horrek saria jasotzen du: oihu egiten duzu, hustu egiten zara, eta poztasunez lehertzen zara".

Asteburuan, selekzioarekin

Lizarralde jaso du saria; izan ere, Lokatzako harrobiko txirrindularia Ponferradan egingo duten Espainiako Txapelketan izango da asteburuan Euskadiko selekzioa ordezkatzen –garaipena baino lehenago aukeratuen artean zegoen–. Hamabi ziklista aukeratu dituzte, guztira.

ARETO FUTBOLA

Semicup txapelketa zapatuan, Bergarako gaztez osatuta

Bihar, zapatua, izango da txapelketa. Seminarioko jolastokian jokatu dute 07:00etan hasi eta 23:00ak bitartean. Hamazortzi talde ariko dira lehian, "denak Bergarako gaztez osatuak", neska eta mutil, 16 urtetik gorakoak, ekipoko, gutxienez, bost kide. Txosnagunea eta jateko lekua egongo dira, baita musika ere.

TXIRRINDULARITZA

Askazurira igoera kronometratua egingo dute zapatuan, Zubillagan

Zubillagako jaietan lehenengoz egingo dute Askazurirako igoera kronometratua. Igoera horrek malda itzela du, hiru kilometroko igoera da, eta tarte horretan 500 metroko desnibela gainditzen da. Hain zuzen, mendiko bizikletarekin egingo dute igoera. 10:00etatik 10:45era dortsalak banatuko dituzte eta 11:00etan hasiko dute lasterketa.

KARABINA TIROKETA

Karabina tiroketa txapelketa antolatu du Noricak etziko, Elgetan

Elgetako I. karabina tiroketa txapelketa izango da, Norica etxe komertzialak antolatuta. Txapelketa 10:00etan hasiko da eta bi kategoriatan antolatu dute: lehenengo maila eta bigarren maila. Karabinaren ezaugarrien arabera finkatzen da kategoria, eta txapelketarako hainbat diana mekaniko ipiniko dituzte frontoian.



Iaz Araotz inguruan ibili ziren sokekin eskalatzen. | GOIENA

ABENTURA KIROLA

Hainbat nobedaderekin dator Oñatiko II. Abentura Raida

X.U. | ARRASATE

Abentura raidak geroago eta oihartzun handiagoa izaten dabilta, eta Oñatiko proba da adibide ona, bihar egingo duten raiderako parte-hartze aurreikuspen guztiak gainditu egin dituzte-eta: "60 bikoterendako lekua genuen, eta izen-ematea amaitu aurretik bete zitzaigun kopuru hori. Hala, beste hiru talde onartu ditugu ondoren", adierazi du Aitor Otamendi antolatzaileak.

Horrek esan nahi du, guztira, 120 abentura-zale baino gehiago batuko direla zapatuan Oñatin, iazko edizioaren ia halako bi: "Antolaketa aldetik ez da aparteko buruhaustea,

bestela ere lan handia egoten da, baina pozik gaude halako harrera ona izan dugulako".

Denetariko probak

Lehenengo ediziotik hona hainbat aldaketa izango dira, ez duelako inongo zentzurik proba berdintsua egiteak: "Bezperara arte [gaur] sekretupean mantenduko ditugu gauza asko, baita proba non hasiko dugun ere. Aurten bizikletan ibiliko dira, korrika egin beharko dute, ura ere egongo da, arku-tiroketa... Baina ez dugu askoz ere gehiago aurreratuko".

Bihar 10:00etan hasiko dute proba, eta, guztira, zazpi ordu iraungo du.



MENDIA

Bidaia luzea espedizioa hasteko

Aste barruan abiatu dira WOPEAK espedizioko kideak Karakorum aldera, baina bidaia uste baino luzeagoa izango da. Loituk abiatu ziren Iñurrategi, Zabaltza eta Vallejo, baina Islamabad eta Skardu arteko tartea autobusez egin behar izan dute (638 km), arrazoi meteorologikoak direla eta. Zain dute Pajju Peak.

KULTURA

Oñatiko Abesbatzaren eta Bergarako Orfeoiaren proiektu barrokoa, prest

- Oñatiko San Migel parrokian estreinatuko dute, asteburuan; eta Bergaran, hurrengoan
- 120 musikarik Vivaldi eta Bach autoreen obra ezagunak interpretatuko dituzte

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI

Proiektu sinfonikoak egiteko ahots asko behar direla-eta elkar-tu ziren iaz Bergarako Orfeoia eta Oñatiko Abesbatza Mozarten *Requiem* meza egiteko. Esperientzia aberasgarria izan zen abesbatza biendako eta zaleek ere harrera oso ona egin zieten Oñatin eta Bergarako kontzertuetan.

Requiem bukatu berritan hasi ziren hurrengoaz berbetan eta opor ostean egin zuten proposamen ofiziala. Irailean lotu zituzten, bada, datak; eta urtarrilean hasi ziren lanean, nor bere alde-tik. Aste Santu ostean elkarrekin entseatzen hasi ziren; bakarlarien arloa landu zuten gero eta azkeneko entseguetan orkestrarekin batu ziren.

Domeka honetan estreinatuko dute, Oñatiko San Migel parrokian (19:00). Datorren zapatuan, uztailaren 5ean, berriz, Bergarako San Pedro parrokian izango dira (19:00). Bi kontzertuetarako sarrerak salgai daude.

120 lagun taularen gainean

Taularen gaineko zuzendaria Aitor Biain da, baina Loli Ordoki zuzendaria ere badago; hark zuzentzen du Abesbatza, eta Orfeoia, berriz, Biainek. Urteetako harreman estua dute eta gustura egiten dute elkarrekin lan. Amateurrek egindako proiektua bada ere, partaideen inplikazioarengatik bereziki, oraingoan ere, profesionalak besteko mailako emanaldia egingo dutela diote biek ala biek.



Oñatiko Eteo egoitzan musikariak eta abeslariak, domekan estreinatuko duten obraren entseguan. | KARLOS ETXANIZ

Abesbatza bien artean 82 laguneko korua osatu dute; horien artean dira bost bakarlariak: Nere Ibarra (sopranoa); Oihana Diaz eta Ainara Uribesalgo (altua); Gorka Aranburu (tenorea)

eta Karlos Etxaniz (baxua). Iazko bakarlariak aukeratu ditu Bianek; aurtun bat gehiago bada ere.

Abeslariak laguntzen izango da 26 lagunek osatutako ganbara orkestra. Bergarako eta Arrasateko musikariek gainera, Gipuzkoako eta Arabako beste orkestra batzuetako kideek osatutakoa. Harizko tresnak dira aurtun nagusi (biolak, txeloak eta kontrabaxua, besteak beste); baina badaude haizezkoak (oboa eta tronpetak) eta baita organoa ere. Iazko proiektuan parte hartutakoak dira gehienak, baina badaude berriak ere.

Bigarren erronka, zailagoa

Artean moduan, musikan ere barrokoa kargatuagoa da: "Aurre-

koaren iraupen antzerakoa badu ere (75 minuturen bueltan), musika gehiago abestuko dugu oraingoan. Barrokoan tempo azkarragoak daude, musika konplikatuagoa da, eta, horrez gainera, Bachena alemanez da. Beraz, aurtengo prestatzeko zailtasun handiagoak izan ditugun arren, iazko esperientzia oso lagungarria izan da. Denbora laburragoan lan gehiago eta hobe egitea lortu dugu", dio Biainek.

7.000 euroko aurrekontua

Sarreretakotik diruaz gainera, Oñatiko eta Bergarako udalen laguntzarekin egingo diete gastuei aurre. Aipatzekoa da Bergaran jasotakoaren erdia San Pedro parrokiara bideratuko dutela.



MAIALEN TORRES

LOLI ORDOKI
ZUZENDARIA

"Musika ez da ulertu behar; musika sentitu egin behar dela diot nik beti"

Eskarmentua du musika alorrean; orain erretiratu dagoen arren, urteetan izan da musika irakaslea. Oñatiko Abesbatza zuzentzen du egun, baita erretiratu abesbatza ere.

Estreinaldiaren bezperatan, ze itxura hartzen diozu?

Nik uste dut ondo prestatuta gaudela eta kontzertu ona emango dugulakoan nago.

Iazkoa baino zailagoa.

Erronka handia izan da, bai, besteak beste, alemanez kantatu behar dugula-eta.

Ekipo ona duzu, baina.

Bai, bai; ondo erantzuten dute eta oso pozik nago eurekin; urte asko goaz elkarrekin.

Aspaldiko laguna eta lankidea duzu Aitor Biain ere.

Ikastolan ikasle izan nuen, pentsa ezazu! Gure abesbatza sartu zen gero... Elkarlanak egin izan ditugu, izaera eta ezaugarri ezberdinetako koruak badira ere. Gure esparrua euskal polifonia da-eta, bereziki.

Zeini gomendatuko zenioke kontzertua?

Edozeinendako modukoa da. Sarritan esaten didate: "Ni zelan joango naiz, ba, ez badut ezer ulertzen". Garrantzitsue-na ez da ulertzea, sentitzea baizik. Musikak pertsonak sentsibilizatzen ditu.

DATUA

8

EURO

Oñatirako sarrerak Izarraitz eta Portu tabernetan eros daitezke; eta Bergarakoak, berriz, kultura etxean, Benjamin zapata-dendan eta Pikupe bulegoan.

Iaz obra klasikoa eta aurtun barrokoaren aldeko apostua

Musika barrokoan musika asko dagoenez programa ona aukeratzea oso zaila eta garrantzitsua dela dio Aitor Biain zuzendaria. Aspalditik zuen Vivaldi kantatzeko gogo. Obra asko ditu, lau urtaroez gainera. Korurako, esaterako, asko ditu Vivaldik; Biainen esanetan, ondo idatzitakoak eta kantatzeko errazak. *Gloria* eta *Credo* aukeratu zituzten; Vivaldiren arrakastatsuenak. Koru askok aukeratu izan dituztenak.

Barrokoan, ikur nagusietako bat Bach dela dio Biainek. Askok idatzi zuen, baina konposatzaile moduan konplikatu zen eta kutxan gordeta egon zen haren musika, XIX. mendean modan jarri zen arte. Kantata pila bat ditu, idatzi zuen lehenengotakoa da aukeratutakoa. Bost mugimendu dituen obra da: sinfonia, koruak, bakarlariak... Zentzu horretan, bada, kontraste handiko obra dela gaineratu du proiektuaren zuzendaria.

Kantu zerrenda borobiltzeko, *Ave Maria* (Charles-François Gounod) kantatuko dute. Erromantikoa da, XIX. mendekoa, baina Bachen figuran oinarritutakoa. Orkestra eta korurako bertsio bat egin zuen; pieza oso ezaguna da, bakarlarien eta abesbatzen emanaldietarako sarritan aukeratutakoa. Laburbilduz, Biainen esanetan, dinamikoa izango da kontzertua; eta publikoari abesti asko entzun dituela irudikatuko zaio.



Aitor Biain. | GOIENA

Blues, soul, funk eta swing doinuak entzungai uztaileko egubakoitzetan

Bergarako Espoloian kontzertuak izango dira, musika beltza hizpide

ANE ELORDI | BERGARA
Hamalagarrenez egingo da aurtén Berumuga jaialdia. Urteroko ohiturari jarraituz, uztaileko egubakoitz guztietan kontzertuak izango dira Bergarako Espoloian. Uztailaren 4an emango diote hasiera egitasmoari eta uztailaren 11n, 18an eta 25ean musika eskaintza zabala izango da Bergaran. Musika beltzaz gozatzeko aukera izango dute Espaloira gerturatzen diren bergararrek. Uztaileko lau iluntzetan ohiko musika eskaintzaz harago doazen ikuskizunak izango dira, doan.

Blues eta rock doinuekin emango diote hasiera egitasmoari. Iazko edizioa ere blues doinuekin hasi zen; orduan, Bergarako Belceblues taldeak ireki zuen jaialdia. Aurtén, Jimmi Barnatan & The Cocooners taldearen emanaldiak egingo du jaialdiaren irekiera.

Uztaileko egubakoitzetan soul, funk, blues eta swing doinuak entzuteko aukera izango da. Aurreko edizioetan bezala, zenbait herrialdeetatik etorritako punta-puntako taldeak arituko



Jimmi Barnatan abeslaria. | BERUMUGA

dira Bergaran. Musika beltza jorratzen duen proposamena zabala eta aberatsa izango da. Eta, zelan ez, blues musikaren euskal ordezkaritza ere izango du jaialdiak.

Jimmi Barnatan
Santander eta New York artean hazitako abeslaria da, txikitatik kultura eta musika estatubatuarra barneratu ditu, eta berak sortutako musikan eragina dau

ka horrek. Bergaran, *Room 13* izeneko azken diskoko kanta izango dira entzungai. Abeslariaren estudioko hirugarren diskoa da, eta zinema eta musika bateratzen ditu; besteak beste,

El Gran Wyoming eta Jimmi Barnatan berak interpretatutako irrati nobela baten sei lokuzio biltzen ditu lanak. Karisma eta *bluesman* ahotsa dituen abeslari bezala definitzen dute bakarlariaren jarraitzaileek.

The Cocooners talde kantabriarra izango du lagun oholdta gainean, elkarrekin egin baituzte azken lana. Jimmi Barnatanek ahotsa jarriko dio ikuskizunari eta bateriak, baxuak, pianoak eta gitarrak lagunduta egingo du agerraldia Espoloian.

Abeslari sortzailea da eta etengabe dago lanean. Azken proiektua zenbait musikarirekin elkarlanean grabatuko du gaur, La Fuga, M Clan eta Burning taldeetako kideekin.

Bilboko seikotea

Travellin' Brothers izeneko seikote bilbotarrak uztailaren 18an egingo du emanaldia Espoloian. Familia giroan sortutako musika taldea da eta 2014ko otsailean seigarren diskoa aurkeztu zuen. Orain, Sextet biraren baitan kontzertua eskainiko du Bergaran. Talde gaztea den arren, 600 ikuskizunetik gora eskaini dituzte dagoeneko.

Europar ezaguna den taldea da, areto eta jaialdi askotan aritutakoa. Ikusteko aukera izan dutenek "bizitzaren eta musikaren ospakizun" bezala sailkatzen dituzte emanaldiak; izan ere, taldearen ezaugarri nagusiak dira bizitasuna, kalitatea eta baikortasuna.



Incansables taldeko kideak Daxen jotzen. | INCANSABLES

Incansables eta euren azken lana Debagoieneko kaleetan entzungai

ANE ELORDI | ARRASATE
San Juan jaien bezperan izan ziren Incansables taldeko kideak Arrasateko kaleak alaitzen. Gipuzkoarrez eta nafarrez osatutako taldea den arren, debagoiendartuta daude: hogeititik gora daramatzate bailarako jaiak eta kaleak girotzen.

San Juan bezperan izan ziren Arrasaten, gazteekin batera txopo-poteoa egin zuten txosnetatik abiatu eta plazaraino. Orain arte, 26an gerturatzen ziren Debagoienera, jaietako azken egunean; hala ere, egun aldaketarekin pozik agertu dira, Debagoienera gogotsu datozela adierazi dute, eta laster berrikusi eta entzuteko aukera izan-

go da; hain zuzen ere, Bergarako San Martzial egunean arituko dira.

'Omenez' azken lana

Incansables txarangak lan berria du esku artean, taldearen 43 urteko lana biltzen duen diskoa kaleratu dute: *Omenez*.

Disko berria hainbat helburu eta aitzakiaren gainean sortu dute: batetik, taldeko sortzaile Joakin Ortega *Kanario* omentzeko lana da. Ortega berak egindako lanak bildu dira diskoan. Bestetik, taldearen ibilbideak bidelagun izan dituzten elkarte eta pertsonak ere eskertu nahi izan dituzte abestien bitartez.

Kultura sustatzeko sei milioi eta erdiko diru laguntzak emango ditu Eusko Jaurlaritzak

Dantza, artea eta literatura lagundu nahi izan dituzte, bereziki, 2014an

ANE ELORDI | ARRASATE
Kulturako diru laguntzen deialdia ireki du Eusko Jaurlaritzak. Horretarako, 6,5 milioiko aurrekontua du aurtén; 2013koarekin alderatuta, kultura arlora zuzendutako diru laguntzek %10eko igoera izan dute. Batez ere, dantzari eta arteari bideratutako dirua izango da, baina kultura sustatzeko eta ondarea zaintzeko diru laguntzak ere aurkeztu dira.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuorde Joxean Muñozek aurkeztu zituen datuak Bilbon egindako agerraldian. Eusko Jaurlaritzak kultura sektorerari bideratutako diru laguntzek gora egin dute; 2012a ezkerreko %13 igoera izango da, baina kultura sustatzeko eta ondarea zaintzeko diru laguntzak ere aurkeztu dira.

Bereziki, dantzak %25eko igoera jaso du iaztik. Literaturak ere nabaritu du igoera, liburu salmentaren jaitsierari aurre egiteko. Kultura ondarearen zuzendaritzatik lau arlotara bideratu dira laguntzak: liburutegietan funtsak berritzeko deialdia

820.000 eurorekin lagunduko da eta liburutegietarako teknologia berrien deialdira 350.000 euro bideratu dira; izen-ematea uztailearen 2ra arte izango da. Museoko 600.000 eurorekin lagunduko dituzte eta irakurzaletasuna sustatzeko 258.000 euro dituzte.

Kultura sustatzeko diru laguntzak, deialdiak, zenbatekoak eta epeak

- Ikus-entzunezko sorkuntza, garapen eta ekoizpenerako deialdia: 1,8 milioi euro laguntzatan, uztailearen 9ra arte.
- Sormen Lantegiak programa: 1.000.000 euroko laguntzak, uztailearen 16ra arte.
- Dantza sustatzeko deialdia: 400.000 euro laguntzatan, uztailearen 16ra arte.
- Musika jarduerak profesionala laguntzeko deialdia: 445.000 euro, uztailearen 11ra arte.
- Literatura argitalpenak: 626.800 euro laguntzatan, ekainaren 30era arte.
- Euskadi Literatura Sariak: 150.000 euro, ekainaren 30era arte.
- Antzerki ekoizpenei laguntzak: 787.500 euro laguntzatan, ekainaren 30era arte.
- Kale Antzerkia Bultzatuz deialdia: 75.000 euro laguntzatan, ekainaren 30era arte.
- Arte Plastikoen eremuan jarduerak laguntzeko deialdia: 416.000 euro, uztailearen 2ra arte.

Jazza eta habanerak bateratuta emanaldia egingo du Ganbarak

Ganbara Gazteko eta abesbatzetako kideak jazz hirukote baten laguntzarekin arituko dira gaur

ANE ELORDI | OÑATI

Oñatiko Ganbara abesbatzak, Ganbara Gaztek eta jazz hirukote batek musika emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Bidaurretako eliza atarian, 22:00etan; eguraldi txarra eginez gero, Santa Anan izango da. Kanean egitasmoaren barruko ekitaldia da, eta, ohiko erregistroak atzean utzita, Ganbarak ikuskizun berezia eskainiko du: habanerak eta jazz doinuak bateratutako emanaldia egingo dute.

Ganbara abesbatzako Aitor Biain zuzendariak adierazi duenez, egitasmo horrekin ohikoak diren musika eskaintzetatik harago joan izan nahi dute. Izan ere, abesbatzek eliza eta audito-

riumetan abesteko joera dute, eta kalea ere espazio egokia da musikaz gozatzeko. Hori dela eta, Oñatiko hainbat txokotara musika eramateko nahia agertu zuen Biainek; horietako bat da Bidaurretako eliza ataria. Gauaren iluntasunari aurre egin eta ikuskizunari indarra emateko argiztapen berezia izango du. Iaztik dute esku artean proiektua, eta jendaurrera eroango dute.

Askotariko doinuak

Egubakoitzean egingo den musika emanaldiak hiru zati izango ditu: lehenik eta behin, Ganbara Gaztek jazz pieza bat eskainiko du. Hogei minutu inguruko pieza izango da, eta pianoaren, bate-



Ganbara abesbatza, Ganbara Txikiren hamargarren urteurreneko ospakizunean. | GOIENA

riaren eta kontrabaxuaren laguntza izango dute gazteek.

Bigarren zatian, Ganbara abesbatzak abestuko du. Helduen taldeak habaneraz osatutako erreperitorioa eskainiko du. Azkenaldian habanerak lantzen aritu dira; izan ere, kanta mota horren gaineko txapelketa batera aurkeztuko dira. Gaur gauean entzun ahal izango diren habaneretako

batzuk hauek dira: *A tu lado*, *El ausente* eta *Amor, esto es amor*.

Azkenik, gazteek doinu modernoak interpretatuko dituzte, zenbait musikariren konpainian. Pop kanta ezagunak izango dira entzungai Ganbara Gazteren eta musikariren eskutik. Beraz, askotariko doinuak entzuteko aukera izango da, oñatiar abeslari gazte eta helduen eskutik.

Habanera txapelketa

Oñatiko Ganbara abesbatzak bigarren zati hartuko du parte Torreviejako habanera txapelketan. Aurrekoan bi sari eskuratu zituzten, eta gogotsu joango dira. Uztailaren 23an kantatuko dute bertan, eta prestaketa lanetan buru-belarri dabilta; bada, gaurko kontzertua ere baliagarria da, habanerak entseatzeko.



Iazko Txalaparta Festa. | TTAKUN TXALAPARTA TALDEA

Txalaparta doinuek Arrasateko kaleak hartuko dituzte bigarren zati

ANE ELORDI | ARRASATE

Bigarren zati hartuko dute Arrasateko Txalaparta Festa herriko Ttakun txalaparta taldeko kideek. Uztailaren 5ean egingo da ekimena eta egun osorako ekintzak antolatu dituzte. Goizeko hamaiketan emango diote hasiera egunari: txalaparta diana batekin hasiko dute eguna, eta ondoren plazan txalapartak jarriko dituzte edozeinek jotzeko moduan.

Egun osorako egitaraua aurkeztu dute: herritar guztiei zuzendua eta adin guztientzako. Txalaparta beste doinu batzuekin lagunduta egongo da; izan ere, irrintzilariak, albokariak

eta bertsolariak ere arituko dira Arrasateko eta beste herri batzuetako txalapartariekin.

Hogei urte txalapartarekin

Arrasateko txalaparta taldeak 21. urteurrena ospatzen du aurtengo. Lehendabiziko txalapartariak 1988an hasi ziren, eta elkartea 1993an sortu zuten. Sorreratik ibilbide oparoa izan du taldeak, asko izan dira txalaparta jotzen ikastera gerturaturutakoak. Egun, ikastaroak ere ematen dituzte, azkena maiatza eta ekaina bitartean izan da. Antolatzaileek positiboki baloratu dute ikastaroak izandako partaidetza.

Beñat Flores | Kimu Berri lehiaketako irabazlea

"Aurtengo promozioa oso interesgarria izan da, badaude argitaratzeko moduko lanak"

Aureskua gai hartuta, Floresek, Juaristik eta Duquek irabazi dute Kimu Berri

ANE ELORDI | ARRASATE

Beñat Floresek, Aitana Duque-ekin eta Maider Juaristekin batera, Kimu Berri lehiaketako sari nagusia irabazi du. Hirukoteak aureskuaren inguruko ikerketa lana burutu du, eta dantza hori oinarri hartuta ikus-entzunezko bat sortu dute. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailerako egindako proiektua da, eta ondare ez materiala lantzea dauka helburu, besteak beste.

Gradu bukaerako lana aurkeztu duzue Kimu Berrira.

Bai, Eusko Jaurlaritzarentzat egindako lana da, eta ondare ez materiala aztertzen du, zehazki, aureskua. Hori lantzeko bi azterketa egin ditugu, euskal kultura ondare ez material bezala, nahiko kontzeptu abstraktua eta berria dena. Horregatik, jendeak uler dezan, gaia Euskal Herrira ekartzea eta gertuko bilakatzea erabaki genuen, eta aureskua aurkeztu genuen horretarako.

Zergatik aukeratu zenuten aureskua?

Euskal Herri osoa bilduko zuen gai bat nahi genuen, eta aureskua proposena zen. Gainera, dokumentazio lana egiten, jakin genuen Unescok tangoa gizon-emakume guztien ondare sailkatu zuela; eta aureskuarekin tangoarekin egin den antzeko zerbait egitea motibagarria iruditu zitzaigun.



Aitana Duque, Beñat Flores eta Maider Juaristi sarituak. | HUHEZI

Dantza gertukoa duzue?

Ez bereziki. Egia da Maider dantzaria dela eta euskal dantzen talde batean urte asko daramatzala. Hala ere, guztiontzat da gustuko gaia eta motibatzen gaituena, horregatik aukeratu genuen. Hain zuzen ere, gaia aukeratzekoan ez dugu guran pentsatu, euskal gizartearen interesekoa izan

daitekeen begiratu dugu, publikoaren gustukoa.

Zein izan da proiektuaren helburua?

Eusko Jaurlaritzak zuen beharrezko bati erantzutea zen helburua. Beraiek argi zuten dokumental bat nahi zutela, eta gu gure lana ahalik eta ondoen egiten saiatu gara; eta lana erabiliko duelakoan gaude.

Kimu Berri saria jasotzea espero zenuten?

Inola ere ez. Aurtengo ikasleok aurkeztu ditugun lanek maila oso handia izan dute, eta pozik gaude saria irabazi izanagatik. Aurtengo promozioa oso interesgarria izan da, badaude argitaratzeko moduko lanak.

"Euskal Herri osoa bilduko zuen gai bat nahi genuen, proposena zen"

ASTEA GOIENAN



GOIENA

Arrasateko San Juan jaien saio berezia

Aurtengo sanjuane eman dituzten momenturik dibertigarrienak jasoko dira jaien saio berezian. Gaur, egubakoitza, 19:10ean, 22:00etan eta 00:35ean eskainiko da. Asteburuan ere ikusi ahal izango da saioa. Ikus beheko taulan ordutegia.

'Jaiak: Arrasateko jaiak'
Egubakoitza, 19:10



GOIENA

Eskoriatzako jaiak astelehenean ikusgai

Eskoriatzan asteburuan hasiko dira San Pedro jaietako ospakizunak, eta asteburuak eta astelehenak ematen dutena ikusi ahal izango duzue *Debagoiena* zuzenean saioan, astelehenean. Imanol Gallego eta bere alkandora ibiliko dira giroa jasotzen.

'Debagoiena zuzenean'
Astelehena, 20:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 27	ZAPATUA, 28	DOMEKA, 29	ASTELEHENA, 30	MARTITZENA, 1	EGUAZTENA, 2	EGUENA, 3
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Kantari	10:00 Kantari	12:00 Jaiak: Arrasateko jaiak	12:00 Harmailatik	12:00 Atik Zra	12:00 Tertulia
12:30 Ikusmira	11:00 Debagoiena zuzenean	10:55 Zorion Agurrak	12:45 Tripa-zorri	12:30 Tripa-zorri	12:50 Onein	13:00 GITBk 10 urte
12:50 Atik Zra	12:00 Amaia DJ	11:00 Ikusi irratia	13:30 Debagoiena zuzenean	13:10 7 Akorde	13:25 Harmailatik	13:35 Ikusmira
13:35 Zorion Agurrak	12:30 Zorion Agurrak	11:45 Ikusmira	14:30 Berriak	13:35 Amaia DJ	13:55 Zorion Agurrak	13:55 Zorion Agurrak
13:35 Kantari	12:35 GITBk 10 urte	12:00 Jaiak: Arrasateko jaiak	15:00 GITBk 10 urte	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean
14:00 Debagoiena zuzenean	13:15 Harira	12:45 Onein	15:35 Ikusmira	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak
14:30 Berriak	13:45 Ikusi irratia	13:15 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Onein	15:00 Onein	15:00 7 Akorde
15:00 Amaia DJ	14:35 Ikusmira	13:55 Zorion Agurrak	16:30 Berriak	15:55 Zorion Agurrak	15:30 Harira	15:30 Onein
15:30 Onein	14:50 Zorion Agurrak	14:00 Astea iruditán	17:00 Kantari	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean
16:00 Debagoiena zuzenean	14:55 Astea iruditán	14:35 Zorion Agurrak	17:30 Atik Zra	16:30 Berriak	16:30 Berriak	16:30 Berriak
16:30 Berriak	15:00 Debagoiena zuzenean	14:40 Ikusmira	18:20 Ikusmira	17:00 Ikusmira	17:00 Kantari	17:30 Tertulia
17:50 Araba Euskaraz	16:00 Jaiak: Arrasateko jaiak	15:00 Kantari	18:25 Zorion Agurrak	17:15 GITBk 10 urte	17:30 Jaiak: Arrasateko jaiak	18:30 Berriak
18:30 Berriak	16:45 7 Akorde	16:10 7 Akorde	18:30 Berriak	17:55 Ikusmira	18:30 Berriak	19:00 7 Akorde
19:10 Jaiak: Arrasateko jaiak	17:15 Harira	16:45 Atik Zra	19:00 Amaia DJ	18:25 Zorion Agurrak	19:00 Berriak	19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean	17:45 Ikusmira	17:35 Zorion Agurrak	19:30 Harmailatik	18:30 Berriak	19:00 Tertulia	20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	18:15 Amaia DJ	17:40 Astea iruditán	20:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Kantari	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	18:45 Zorion Agurrak	17:45 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	19:30 7 Akorde	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak	18:50 Astea iruditán	17:55 Amaia DJ	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak
22:00 Jaiak: Arrasateko jaiak	19:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Harira	21:30 Berriak	20:30 Berriak	21:30 Berriak	22:00 Amaia DJ
22:45 Debagoiena zuzenean	20:00 Harira	19:00 7 Akorde	22:00 Harmailatik	21:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Tertulia	22:30 Debagoiena zuzenean
23:15 Berriak	20:30 GITBk 10 urte	19:30 GITBk 10 urte	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	23:00 Berriak	23:00 Berriak
23:45 Gurean gaur	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Jaiak: Arrasateko jaiak	23:00 Berriak	22:00 7 Akorde	23:30 Gurean gaur	23:30 Gurean gaur
00:05 Debagoiena zuzenean	21:30 Jaiak: Arrasateko jaiak	20:45 Amaia DJ	23:30 Gurean gaur	22:30 Debagoiena zuzenean	23:50 Debagoiena zuzenean	23:50 Debagoiena zuzenean
00:35 Jaiak: Arrasateko jaiak	22:00 Jaiak: Arrasateko jaiak	21:15 Astea iruditán	23:50 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	00:20 Tertulia	00:20 Amaia DJ
	22:45 Astea iruditán	21:20 Debagoiena zuzenean	00:20 Harmailatik	23:30 Gurean gaur		
	22:50 Harira	22:20 Harira		23:50 Debagoiena zuzenean		
	23:20 7 Akorde	22:50 Ikusi irratia				
	23:50 Debagoiena zuzenean	23:40 Astea iruditán				
	00:50 Jaiak: Arrasateko jaiak	23:45 Debagoiena zuzenean				

ARRASATE IRRATIA

'Uda giroan' saioa estreinatuko da astelehenean

Astelehenetik egubakoitzera bitartean orain arte izan den *Igo autobusera!* irratisaioari lekukoa hartuko dio astelehenean *Uda giroan* saioak. Uda iristearekin bat hartu izan du lekukoa irratisaio horrek beste urte batzuetan ere, eta oraingoan ere hala izango da. 10:05ean eskainiko da saioa.

Vivaldiren eta Bachen obren kontzerturako sarrerak zozketan

Bergarako Orfeoiak, Oñati Abesbatzak eta Ganbera Orkestrak uztailaren 5ean 19:00etan San Pedro parrokian eskainiko duten Vivaldiren eta Bachen obren kontzerturako sarrerak zozketatuko dira egubakoitzean. Parte hartzeko, deitu 943 25 05 05era edo idatzi irratia@goiena.com-era.



Asun eta Damaso

Asun Zugasti eta Damaso Uribesalgo ekainaren 26an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Zapatuan urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Etxekoen partetik, "zorionak, bihotz-bihotzez, bikote, eta urte askotarako! Halaxe jarraitu!".



Maidier eta Jordan

Maidier eta Jordan zapatuan, ekainaren 28an, ezkonduko dira Arrasaten. Ondoren, bazkaria Zarautzen izango da. "Zorionak, bikote! Orain arte bezain zoriontsu izaten jarraitu! Familiakoen eta lagunen partetik".



Miguel eta Maria Angeles

Bergarako Miguelek eta Maria Angelesek ezkondu zirela 50 urte bete dituzte gaur, ekainak 27. Bihar, zapatua, urrezko ezteiak ospatzeko bazkaria egingo dute Zumelaga jatetxean, seme-alabekin eta bilobekin. Etxekoen partetik, "zorionak, bikote! 50 urte elkar zaintzen. Segi horrela!".



Maialen eta Enaitz

Maialen Romaratezabala eta Enaitz Perez ekainaren 28an ezkonduko dira Oñatiko udaletxean. "Ondoren, guztiok batera bazkari batekin ospatuko dugu. Zorionak, bikote! Egun zoragarria igaro dezazuela eta ondo ibili Ameriketako Estatu Batuetan. Musu handi bat familiaren eta lagunen partetik!".

HILDAKOAK

M. Luisa Galdos Urcelay. Oñatin, ekainaren 19an. 81 urte.
M. Pilar Gaztañares Mendiguren. Oñatin, ekainaren 19an. 97 urte.
Antonio Zubillaga Egiluz. Oñatin, ekainaren 20an. 92 urte.
Maritxu Larrañaga Telleria. Bergaran, ekainaren 20an. 89 urte.
Oliva Dominguez de la Torre. Bergaran, ekainaren 21ean. 52 urte.
Jose M. Arizabaleta Padilla. Bergaran, ekainaren 21ean. 69 urte.
Eugenio Elkoroiribe Eguren. Bergaran, ekainaren 21ean. 73 urte.
Tomas Biain Biain. Oñatin, ekainaren 22an. 87 urte.
Paulo Altuna Markaide. Arrasaten, ekainaren 22an. 91 urte.
Milagros Bengoa Eskibel. Arrasaten, ekainaren 23an. 85 urte.
M.Carmen Zubia Zeziaga. Bergaran, ekainaren 23an. 73 urte.
Bego Beitia Irureta. Bergaran, ekainaren 25ean. 62 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE				
Egubakoitza, 27	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30	
Zapatua, 28	ALBERTO AZKOAGA	Ferrieras kalea 1	943 79 15 15	
Domeka, 29	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99	
Astelehena, 30	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26	
Martitzena, 1	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39	
Eguaztena, 2	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74	
Eguena, 3	ESPAÑOL	Araba Etorb., 14	943 79 18 65	
BERGARA				
Egubakoitza, 27	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05	
Zapatua, 28	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63	
Domeka, 29	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63	
Astelehena, 30	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15	
Martitzena, 1	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74	
Eguaztena, 2	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87	
Eguena, 3	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05	
OÑATI				
Egubakoitza, 27	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16	
Zapatua, 28	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16	
Domeka, 29	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16	
Astelehena, 30	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22	
Martitzena, 1	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22	
Eguaztena, 2	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58	
Eguena, 3	GARATE	Kale Barria 42	943 78 05 58	
Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).				



Laura eta Oxel

Laura eta Oxel zapatuan ezkonduko dira Arrasateko San Frantzisko elizan. Ostean, familia eta lagunekin bazkalduta ospatuko dute. Familiaren partetik, "zorionak, bikote, eta zoriontsu izan!".



Alberto eta Miren

Alberto eta Miren ekainaren 28an Beasainen ezkonduko dira. Lagunen partetik, "zoriontsu izan eta ondo pasatu eztei-bidaian".

ESKER ONA



Milagros Bengoa Eskibel
Luis Orobengoaren alarguna



Arrasaten hil zen 2014ko ekainaren 23an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, seme-alaben eta gainerako senideen izenean.

Beti gure bihotzean egongo zara.

Arrasaten, 2014ko ekainaren 27an.

ESKER ONA



Tomas Biain Biain



Oñatin hil zen 2014ko ekainaren 22an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Oñatin, 2014ko ekainaren 27an.

OROIGARRIA



Paulo Altuna Markaide



Arrasaten hil zen 2014ko ekainaren 22an, 91 urte zituela.

Sustraiak senda erraturik aide zabalera abiatu zara. Zure erroetara gu ere sustraiturik zugan izango gara ta gugan izango zara. Bajongo tontorretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2014ko ekainaren 27an.

OROIGARRIA



Oliva Dominguez de la Torre
Auzo Laguneko langilea



Nahiz eta gure artetik joan, beti gogoan izango zaitugu.



Auzo Lagun Koop. E.
Bergaran, 2014ko ekainaren 27an.

URTEURRENA



Jose Larrañaga Arizaga



2013ko ekainaren 23an hil zen Osintxun, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 29an, 12:00etan, Osintxuko elizan.

Zuregandik jaso deguna gure bihotzek ondo daukate garderik.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, haren emaztearen eta gainerako senideen izenean.
Bergaran (Osintxu), 2014ko ekainaren 27an.

ESKER ONA



Maritxu Larrañaga Telleria
Jose Arejola-Leibaren alarguna



Basalgon hil zen 2014ko ekainaren 20an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran (Basalgo) 2014ko ekainaren 27an.

ESKER ONA



M. Luisa Galdos Urcelay



Oñatin hil zen 2014ko ekainaren 19an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Zure kementa, guregan da betirako, eman diguzun guztiagatik, bihotzez eskerrik asko.

Oñatin, 2014ko ekainaren 27an.

OROIGARRIA



Luis Oñate Zubia



Oñatin hil zen 2014ko ekainaren 16an, 59 urte zituela.


Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.

Zure lagunak.
Oñatin, 2014ko ekainaren 27an.

OROIGARRIA



Bego Beitia Irureta



2014ko ekainaren 25ean hil zen, 62 urte zituela.

Besarkada bat eta gero arte.

Zure kuadrilla.
Bergaran, 2014ko ekainaren 27an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

ZINEMA

GASTEIZ

BOULEVARD

Juntos y revueltos
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.

Mi otro yo
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.
Zapatua eta domeka: 16:35.
Egubakoitzetik eguenera: 18:35, 20:35, 22:35.

Campanilla, hadas y piratas
Zapatua eta domeka: 15:45.
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 19:45.

Campanilla, hadas y piratas 3D
Zapatua eta domeka: 16:15.
Egubakoitzetik eguenera: 18:15.

Perdona si te llamo amor
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Transcendence
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Zapatua eta domeka: 16:30.
Egubakoitzetik eguenera: 19:00, 21:30.

Yo, Frankenstein
Egubakoitza eta zapatua: 00:25.
Egubakoitzetik eguenera: 20:25, 22:25.

Elysium
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 20:30.
Astelehena eta eguaztena: 20:30.

Malefica
Egubakoitza eta zapatua: 00:20.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik eguenera: 18:05, 20:10, 22:15.

Malefica 3D
Egubakoitza eta zapatua, eta astelehenetik eguenera: 20:15.

X-Men: dias del futuro pasado
Egubakoitza eta zapatua: 23:45.
Zapatua eta domeka: 15:30.
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 19:30, 21:00, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 18:15, 21:00.

X-Men 3D
Egubakoitza eta zapatua, eta astelehenetik eguenera: 22:15.

Ahora me ves
Zapatua: 22:00.
Martitzena eta eguena: 20:30.

Pancho
Zapatua eta domeka: 15:50.
Egubakoitzetik eguenera: 17:50.

No hay dos sin tres
Egubakoitza eta domeka, eta astelehenetik eguenera: 19:45, 22:00.
Zapatua: 19:45.

8 apellidos vascos
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.

Tarzan
Zapatua eta domeka: 16:25.
Egubakoitzetik eguenera: 18:25.

Las aventuras de Peabody y Sherman
Domeka: 15:30.

Al filo del mañana
Egubakoitza: 00:30.
Zapatua: 22:00, 00:30.
Domekatik eguenera: 22:00.

Tarzan (euskaraz)
Zapatua: 15:30.

Dragon Ball Z
Domeka: 15:30.

Las dos caras de enero
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

Rio 2
Zapatua: 15:30.

FLORIDA

Campanilla, hadas y piratas
Egubakoitza: 16:45, 18:30, 20:40.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45, 18:30, 20:40.
Astelehenetik eguenera: 16:45, 18:30.

Mi otro yo
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 20:35, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 16:45, 20:35.

Transcendence
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

Violette
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

El cielo es real
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguaztena: 20:10.

Tokarev
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:35, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:35.

La jaula dorada
Egubakoitzetik domekara: 18:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:45.

El viento se levanta
Zapatua eta domeka: 12:00.

Las dos caras de enero
Egubakoitzetik eguenera: 20:30.

Tarzan
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

Tarzan (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

Foxfire
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

Malefica
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 16:35.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:35.

Occidente es occidente
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Perdona si te llamo amor
Egubakoitzetik eguenera: 18:25.

El sueño de Ellis
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00 (jatorrizko bertsioan).



GOIENA

OÑATI Jazza eta habanerak bat eginda Ganbara abesbatzarekin
Jazz musikak eta habanerek bat egingo dute Ganbara eta Ganbara Gazte abesbatzekin. Hainbat instrumenturen laguntza izango dute, Aitor Biainen aginduetara, Bidaurretako elizaren atarian (euria egiten badu, Santa Ana antzokian). Gaur, egubakoitza, Bidaurretako elizaren atarian, 22:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

EKAINA 27
UZTAILA 3

MUSIKA

ARAMAIO Naked Blues

Bikote akustikoaren errepertorioa musika beltzean oinarritzen da, eta bereziki antzinako bluesari garrantzia ematen dio. Bikotea Jaime Alvallosek (gitarra-jotzailea eta ahotsa) eta Alejandro Mingotek (dobro eta gitarra-jotzailea) osatzen dute. Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00ean.

BERGARA Behi Bi Blues

Bergarako bikoteak *jam* saioa egingo du hainbat musikarirekin. Doako emanaldia. Gaur, egubakoitza, Laino Skate gunean, 22:30ean.

OÑATI Marcel Manoucheren kontzertua

Manoucheren jazza Django Reinhardt-en estilora, inprobisatu eta antzeztutako jazza da. Zuzeneko errepertorio ganberro eta nostalgikoa jotzen du taldeak. Gitarra soinuak, haize-instrumentuak eta ahots erakargarriak nahasten dituen saioa. Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

ESKORIATZA Ai Ene taldea

San Pedro jaietako egitarauko ekitaldi musikala. Dantzaldia egingo dute. Bihar, zapatua, Fernando Eskoriatza plazan, 00:00etan.

ESKORIATZA La Jodedera

San Pedro jaietako egitarauko ekitaldia. Etzi, domeka, Fernando Eskoriatza plazan, 23:30ean.

ESKORIATZA DROP eta Ezinean

San Pedro jaietako egitarauko kontzertua, txosnagunean. Etzi, domeka, txosna gunean, 00:00etan.

ESKORIATZA Joselu Anaiak

San Pedro jaietako egitarauko kontzertua. Ekainaren 30ean, Fernando Eskoriatza plazan, 00:00etan.

ESKORIATZA Akerbeltz

San Pedro jaietako egitarauko kontzertua. Uztailaren 1ean, Fernando Eskoriatza plazan, 20:00etan.

JAIAK

ESKORIATZA Sanpedroak

Askotariko ekintzak egingo dituzte Eskoriatzan ekainaren 28tik uztailaren 1era arte. Ekainaren 28tik uztailaren 1era arte.

ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak

Gaurtik domekara arte askotariko ekintzak egingo dituzte Antzuolako Kalebarrenen. Gaur: jaien hasiera (19:00), elkartasunezko pintxo eta edariak (19:30), Amaia DJarekin dantzaldia (22:00), eta aulki-jokoa (01:00). Bihar: marrazki lehiaketa (11:00), mus txapelketa (16:30), buruhandiak (18:00), auzo-afaria (21:30), Ezten Giro taldearen erromeria (22:30), sagar-dantza (00:00) eta Twister lehiaketa (04:00). Domekan: txistularien goizeresia, meza eta salda eta txorizoa (10:00), dantzarien emanaldia (12:00) eta Monda eta Lironda pailazoen *Baietz lor-tu* emanaldia (17:00). Gaurtik domekara arte, Kalebarrenen.

OÑATI Koixkargo jaiak

San Pedro eguna ospatuko dute Oñatin, Koixkarren: 11:00etan, meza Jesusen Bihotza ermitan; eta ostean, salda eta txorizoa. Trikitilariak ere egongo dira. Etzi, domeka, Koixkarren, 11:00etan.

OÑATI Garagaltzako jaiak

Sanjuanak ospatuko dituzte Garagaltza auzoan. Bihar, zapatua, etxafuego jaurtiketa eta auzo-bazkaria (trikitilariak, mus txapelketa eta umeendako jolasak) egingo dituzte San Juan ermitaren alboan, eta etzi etxafuegoak, meza eta luntxa. Bihartik domekara arte, Garagaltza auzoko, San Juan ermita ondoan.

OÑATI Vivaldi eta Bach oinarri
Bergarako Orfeoia, Oñati Abesbatzak eta Ganbera Orkestrak bat egingo dute Antonio Vivaldiren eta Juan Sebastian Bachen musikari omenaldia egiteko. Bi musikarien pieza esanguratsuenak abestuko dituzte. Emanaldi bikoitza egingo dute: ekainaren 29an Oñatin eta uztailaren 5ean Bergaran. Etzi, domeka, Oñatiko parrokian, 19:00etan.



KRIKA

Bidaialagun arriskutsuak


Patricia Higsmithe-
n eleberri batzuk zinemara egokitu dituzte. Ripley pertsonaiari buruzko film bat baino gehiago: *A pleno sol, El talento de mister Ripley, El juego de Ripley...* Win Wenders-ek *El amigo americano* zuzendu zuen, eta Hitchcock-ek ere *Extraños en un tren*-en bertsio bikaina egin zuen. Orain, aretoetan *Las dos caras de enero* daukagu. Suspentsezko *thriller* horretan, idazlearen unibertso eta pertsonaia anbiguoak agertzen dira. Atenasen topo egingo dute AEBetatik etorritako dirudun bikote batek eta Atenasen turistei iruzur txikiak egiten bizi den mutil gazte batek. Gaztea bikotearengana hurbilduko da. Bikotean, neska gizona baino askoz gazteagoa da eta hiruren artean triangelu anbiguo bat sortuko da. Badirudi patuak hirurak elkartzea erabaki duela. Bikotearen ekintzak nahiko susmagarriak direla jakingo dugu. Zoritxarra edo patuaren parte-hartzeak ekarriko du denek besteen beharrak izatea. Identitate faltsuak dituzte, ez dakigu ondo pertsonaien jatorria. Datu batzuk erakusten zaizkigu,

LAS DOS CARAS DE ENERO ★★☆☆
Zuzendaria: Hossein Amini.
Herrialdea: Erresuma Batua.
Aktoreak: Vigo Mortenssen, Kirsten Dunst, Oscar Issac.

baina ez zaigu argitzen non hasten den antzeztutako pertsonaia eta non pertsonaiaren benetako izaera. Horrela, saguaren eta katuaren arteko jokoa sortuko da. Pertsonaien informazio gutxi izateak, horien egoerek sortutako aldaketak eta horiei aurre egiteko erabilitako bizirik irauteko senak egiten dute *Las dos caras de enero* film interesgarri.

Filmean hiriburu eta paisaia desberdinak ikusten ditugu. Pertsonaiak ihes eginik batetik bestera mugitzen dira. Istorioaren intrigak ondo funtzionatzen du. Zuzendariak eszena batzuetan elipsiarekin jokutzen du gauzak nolakoak izan diren zehatz-mehatz ez jakiteko. Pertsonaiak ondo maneiatzen dira istorioaren intriga aurrera eramateko, baina, agian, horien barneko deskribapenari Hitchcockek ematen zien ukitu aztoratzailea falta zaie.

ANTONIO ZABALA



GOIENA

OÑATI Maria Luisa Maiztegi
Maria Luisa Maiztegi pintorearen margoak egongo dira ikusgai kultura etxean.
Ekainaren 28a, zapatua Oñatiko kultura etxea
Oñati 18:00etan

ARETXABALETA Rosa del Agila
Bihar, zapatua, da Rosa del Agilaren lanak ikusteko azken eguna. Bestalde, Ainhua Caberoren ikasleek egindako lanak ikusgai ipiniko dituzte uztailaren 2tik 30era.
Astelehenetik zapatara arte, Arkupen.

DEIA

OÑATI Oñatiko III. Ikasle Eguna
Askotariko ekintzak egingo dituzte III. Ikasle Egunean; besteak beste, triki-poteoa, bazkaria eta kontzertuak.
Gaur, egubakoitza, Oñatin, 12:30ean.

OÑATI Udalekuetako begiraleendako formazio saioa
Udalekuetako begiraleen bigarren formazio saioa.
Gaur, egubakoitza, Eteon, 16:00etan.

OÑATI Txokolate-jana eta dantzaldia
Erretiratuen astearen barruan.
Gaur, egubakoitza, Pake Lekun, 17:30ean.

OÑATI Trauti elkartearen batzarra
Urteko batzarra egingo du Trauti-Hesirik Gabe elkartek.
Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:30ean

OÑATI Paperezko hegazkinen VI. txapelketa Topalekuan
12 eta 17 urte bitarteko gazte-txoendako lehiaketa egingo dute.



GOIENA

BERGARA Udal Musika Bandaren kontzertua
Bergarako Udal Musika Bandak emanaldi bikoitza egingo du domekan Alfredo Gonzalez Chirlaqueren aginduetara: 12:00etan kalejira egingo du, eta horren ostean, 12:30ean, kontzertua, Espoioian. Sarrera, doan.
Egtzi, domeka, Bergarako kaleetan eta Espoioian, 12:00etan eta 12:30ean.

Izen-ematea zabalik egongo da txapelketa hasi arte.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 18:30ean.

OÑATI Trauti-Hesirik Gabe elkartearen jaia
Urteko jaia egingo du Trauti-Hesirik Gabe elkartek. Besteak beste, gupil aukien erakusketa, txakur terapien erakustaldia, elkarteko bazkide egiteko informazio-gunea...
Bihar, zapatua, Foruen plazan, 11:00etan.

OÑATI Erretiratuei omenaldia
Domekan bukatuko da Erretiratuen Astea: 12:00etan meza egingo dute parrokiari, eta ostean, herriko bi nagusiri omenaldia egin eta bazkaltzeko elkartuko dira Zubikoan. Bertso ekitaldia, oparien zozketa eta dantzaldia ere egongo dira.
Etzi, domeka, Zubikoan, 12:00etan.

OÑATI Kubora ongietorri festa
Merendola eta disko-festa egingo dituzte Kuboan, bereziki Lehen Hezkuntzako bigarren maila bukatu dutenendako.
Etzi, domeka, Kuboan, 17:00etan.

HITZALDIA

OÑATI Juan Karlos Alduntzinen eta Iñaki Errazkinen berbaldia
Uztailean urtebete beteko du atez ateko hondakinen bilketa sistemak Oñatin, eta Udalak eta Zero Zabor taldeak hainbat ekitaldi antolatu dituzte urtemuga ospatzeko. Besteak beste, Juan Carlos Alduntzinek eta Iñaki Errazkinek berbaldia egingo dute.
Uztailaren 2an, kultura etxean, 19:00etan.

BESTELAKOAK

ELGETA Bisita gidatua lubakietara
Intxortara egingo dute bisita gidatua. Izena emateko bideak: 943 71 89 11 eta 943 79 64 63 telefonoak eta turismo@debagoiena.net helbidea.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

ESKORIATZA 80 urtetik gorakoen afarirako izen-ematea
Olazar elkartek 80 urtetik gorakoen urteroko afaria egingo du uztailaren 17an, eta dagoeneko zabalik dago izen-ematea: interesatuek uztailaren 10era arte eman dezakete izena.
Uztailaren 10era arte, Olazarren bulegoan.



GOIENA

ESKORIATZA 'Herrixa elkartz' ikuskizuna
100 bat lagunek parte hartuko dute Eskoriatzako ikuskizunean. Fusioa da nagusi oraingo honetan: umeen eta nagusien fusioa, kantu lirikoaren eta rockeroen artekoa, folklore andaluzaren eta euskaldunaren fusioa...
Etzi, domeka, Gorosarri plazan, 22:30ean.

ESKORIATZA Kirodegiko beheko solairuko zerbitzuak itxita
Ekainaren 28tik urrira arte egongo dira itxita. Makina gelako zorua berritzearekin batera, barruko igerilekuaren sakonera murriztuko da denbora tarte horretan. Erabiltzaileak kanpoko eta barruko igerileku barik gertuko dira udan.
Ekainaren 28tik urrira arte.

IKUS-ENTZUNEZKOA

OÑATI 'Trashed: rodeados de residuos y basuras' filma
Uztailean urtebete beteko du atez ateko hondakinen bilketa sistemak

Oñatin, eta Udalak eta Zero Zabor taldeak hainbat ekitaldi antolatu dituzte urtemuga ospatzeko. Besteak beste, Jeremy Irons-en *Trashed: rodeados de residuos y basuras* filma emango dute.
Uztailaren 1ean, zinema-aretoan, 19:00etan.

ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Zirkoa'
The Fune Troup taldeak kale-antzerkia egingo du umeendako. Hiru pertsonaia karabana baten helduko dira Aretxabaletara. Euren leloa *Irria negarra baino hobe* da. Ikusleak barrez leher-tuko dira.
Uztailaren 2an, Herriko Plazan, 19:00etan.

Gora datuak!

GOIENA TELEBISTAK 2.000 IKUS-ENTZULE GEHIAGO

CIES erakundeak egindako maiatzeko azken neurketaren arabera, Goiena telebistak 10.000 ikus-entzule ditu, egunero, astean barrena. Gipuzkoan; jazo abenduan baino 2.000 ikus-entzule gehiago.

Eskerrik asko zuri, bertakoa eta sasoikoa aukeratzearren.

GOIENA TELEBISTA
Bertakoa eta sasoikoa

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**



Bergarako Orfeoia, Oñati Abesbatzari eta Ganbera orkestrari esker

Vivaldiren eta Bachen obren kontzerturako sarrerak ditugu.

Bergarako San Pedro parrokiari
Uztailaren 5ean, 19:00etan

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Kontzertua] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.com
WhatsApp: KLUBA [Kontzertua] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Epea: Uztailaren 3ra arte.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, hieki zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.com

goienakluba



goiena

2014-06-27

BUKATZEKO

Frantziako kabareta, formatu txikian

- ▶ Astelehenean, hilak 30, musika ikuskizuna taularatuko dute Ganbara Kantu Eskolako kantuko ikasleek
- ▶ Bakarka, pertsonaia baten paperean, abeslariak antzeztu egingo dute, obrak abestuz gainera

MIREN ARREGI | OÑATI

Helburua, urtean zehar egindako lana erakutsi eta une dibertigarri bat pasatzea. Duela hamar bat urtetik ahots teknikako klaseak hartzen dituzten Ganbara Kantu Eskolako kideak ikuskizun gutxienez berezia prestatu eta taularatzten dute ikasturte bukaeran. Aurten ere ez dute hutsik egingo, eta, beti bezala, istorio harrigarri eta gorabeheratsua prestatu dute; Hollywoodekoei inolako inbidia-rik ez dien istorioa; oraingo honetan ere, klubak, mafiosoak, gaizkileak, kabaretariak, mozkorrak, mojak eta amodio kontuak izango dira protagonista.

Marta Velasco irakaslea da istorioa sortu eta dena antolatzeko ardura duena. Leioarrak urte asko daramatza Ganbara Kantu Eskolan ahots teknikako klaseak ematen. Bereziki, Ganbara Gazte eta Ganbara Abesbatzako kideekin lan egiten du eta haren izaera alai eta saltseroa erabat islatzen da ikasturte bukaerako ikuskizunetan. Astelehenean egingo duten horretan ere horrela izango da. Ikasleak mozkorrotu eta antzezten ipiniko ditu, kantuan ez ezik. Kantariak, bakarka, abestuko dituzte norberari egokitutako abestiak.



Entseguan, Laia Polo, Ainhoa Arrazola eta Marta Velasco. | MIREN ARREGI



Duela bi urteko ikuskizunaren bukaeran ateratako argazkia. | BEATRIZ LIZARRALDE



Ikuskizuna iragartzeko iazko kartela.

Musikal zatiak, opera zatiak, pop abestiak... Denetik.

Bereziki, klasikoa

Taldean abesteak ez du zerikusirik bakarka abestearekin, baina bakarka egiten den lanak, norberaren garapenean ez ezik, taldean du eragina: "Ikasturtean zehar lan itzela egiten dute ikasleek. Ahots teknika lantzen dugu klaseetan eta gustatzen zait bereziki musika klasikoa lantzea. Noski, eurei gustatzen zaizkien abestiak ere ikasi eta interpretatzen ditugu", dio Marta Velasco irakasleak. Astelehenean aurkeztuko dute aurtengoa jendarean; Elkar Hezin, 20:00etan.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Gaueko sua, eta goizeko ihintza

Ostirala da eta astelehen gauean egin genuen San Juan sua. Iraganen izan ditugun eta etorkizunerako nahi ez ditugun gauzak sutara bota eta berriak eskatzeko gaua da 24koa. Uda-ko solstizioa ospatzeko gaua, kristau ez garenontzat.

Niretzat beti izan da konplikatu samarra sutara zer bota erabakitzea, baina aurten benetan zaila egin zait. Denbora gutxian hainbeste gaua izan ditugu sutarako esku artean: LOMCE, Abortuaren Legea, *fracking*-erako baimenak, Kutxabank pribatizatze saia-kera eroa, dispersioa, preso gaixoen egoera krudela...

Baina San Juan bezperan beti naiz baikor. Sutara botatako hauekin batera ikusten ditut Bergarako Hezkuntzaren Mahaia, mugimendu feminista, *fracking*-aren aurkako plataforma Debagoienara ere zabaldu izana, presoen aldeko sare herritarra, Kutxabank publikoaren aldeko hainbat eragile... San Juan eguneko ihintzetan oinutsik ibili eta hurrengo urterako gaitzak alboratu eta lanerako kementa erakutsi du beti herri honek eta oraingoan ere horretan diharduela esango nuke.

Beraz, erre ditzala suak diruaren interesek bakarrik mugitzen dituzten proiektu horiek guztiak eta indartu ditzala ihintzak bestelako jendarte baten defentsan diharduten herri-mugimenduak.

SAN PEDROAK 2014

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN | SAN PEDROAK 2014, ESKORIATZAKO JAIAK

ASTELEHENA, EKAINAK 30, 20:00, 21:00 ETA 22:30 | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JAIK: SAN PEDROAK 2014, ESKORIATZAKO JAIK

EGUBAKOITZA, UZTAILAK 4, 19:15 ETA 22:00



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena